

## SISIFOREN MITOA

### ALBERT CAMUS

Camus, ene existentzian, absurduaren argitasun bitxiaz sartu zen. Zer hoberik nahi ukan nezakeen nik?

1957eko udan, Moskun, herrialde ezberdinetatik helduriko ikasle batzuk Gazteriaren Jaialdira hurbildu ginen. Zenbait hilabete geroago Nobel sariak Albert Camusen obra koroatuko zuen. SESBak mundurako irekiera lotsorra hasia zuen, mugatua eta gainbegiratua.

Frantses adiskide batek La Peste eskaini zidan orduan. Sakela-liburuaren azalaren gainetik, silueta beltz batek, lepoa luze eta arratoi baten antzeko buru biribilaz, bizkarra ematen zidan. Testuaren lehen lerroek karraskari izurritsu batzuek erasoriko hiri batean sartu ninduten. Berehalakoan, izurriak hiri zoriontsu hori gainerako mundutik isolatzen zuen. Eleberriaren bukaeran, tornua nasaitu egiten zen.

Bere erarik gogorrenetakoaz, “izurria”, hamarkada askotan zehar jaun eta jabe izan zen ene inguruan. Camusen kontakizunaren amaieran bezala, gu ere, azkenean, minte horrek bere tornuak nasaitzen zituelakoan geunden. Alabaina, susperraldiak beste hiru hamarkada iraun zuen, horren buruan kirurgi ebakuntza gogor, desordenatu eta odoltsuei lekua uzteko.

Baina ahalmen handiko aliatu arretatsu bat aurkeztu berria zidaten jadanik, bizitzaren bideetan zehar nigandik behin ere alde eginen ez zuena. Albert Camus zuen izena. Frantzia bizi zen bera, izurripean zegoen Oran haren eta klaustromaniapeko Moskuren arteko kidetasunez jabeturik, noski.

Camusek, ene irudiko, gure izurritik ateratzen lagundu beharko gintuen.

Irakaskuntza ofizial osoan Camus berariaz ezkutatua zuten. Edo, hobeki esan, penitentzi akertzat agertzen ziguten, idazle burges gaitzizenaren burdina goriaz markaturik. Harekin batera, idazle burgesak genituen, halaber, Marcel Proust, Péguy, François Mauriac, Gide, Malraux eta beste asko ere. Frantziar literaturako idazle nagusiak, garai hartan, honela deitzen ziren, Henri Barbusse, Jean Laffite, Georges Cogniot, André Stil, Louis Aragon. Maurice Thorez-en Le fils de peuple (Herriaren semea) mende honetako Miserableen mailan jartzen zen.

Urte berean, 1957aren bukaeran, Nobel saria jasotzean egindako hitzaldian, Albert Camusek “errealismo sozialistaren” zoragarritzko “erakartasunaz” arduratu nahi izan zuen, baina ez zen hura Kremlinen harresien inguruan estimatzen zen mezua, horrelako izurri kutsakorretatik inoiz baino gehiago babesten baitzen. Horrela, arrapostua, herriko literatur aldizkari mardul batean, luza gabe azaldu zen. Izenburua aski adierazkorra zen: Laurogei mila kilometro norbere inguruan.

Egia esan, ez orduan ez eta geroago ere, ez dut jakin kontatzen Camusen pentsaera eta irudikapen joriek zenbat “kilometro” ibilarazi zidaten. Ez naiz segur, bestalde, haren ibilbidea eta emaitza kilometro, metro edo zentimetrotan neurtu behar ote diren ere. Gauza bat argi zegoen ordea: La Peste-ren lehen orrialdea pasatu nuenetik, ni,

ezinbestean, halako galdera baten partaide egin nintzen, haren zintzotasunak, trinkotasunak eta, maiz, izaera mingarriak aldi berean Montaignez eta Rousseauz pentsarazten zidatelarik.

Halere, buruan sartua nuen haren mezua hedarazi behar nuela. Nobel saridunaren hitzaldia birrindua zuen aldizkari hari La Peste-ren errusierazko itzulpena egiteko proposamena egin nionean, hartarako, Camusen humanismoa aipatuz, erantzunean esan zidaten humanismo horri badaezpadako usaina zeriola, guztiz kaltegarria justizia unibertsalaren aldeko borrokalarietzat. Halere, askoz beranduago, Tbilisin, beste bi itzultzaileekin batera, eleberria georgieraz eman genuen argitara. Eta orduantxe gertatu zen pasadizo absurdua, Sisiforen Mitoa-ren arrazoiketari aski ongi datorkiona. Liburuan, erakargarriagoa egiteko asmoz, jarriko frantsesezko izenburu faltsuan, Camus izena K potolo, pisutsu eta kenezinaz ageri zen. Oharkabeko oker hori begien bistan zegoen georgiar testuaren gainean. Kontua da georgieraz –errusieraz bezalaxe-- Camusen eta Kafkaren hasierako letra, kasu bietan, K bera dela. Tira, abentura txar bat gehiago K... jaunarentzat. Eta Kafkaren aurrean kapela berriz erantzi beharra ere bai, Sisiforen mitoa-ri begira.

1957an hiru urte besterik ez zitzaizkion Camusi gelditzen bizitzeko. Haren heriotza galtze pertsonaltzat sentitu nuen.

Stendhalen Maitasunaz obrak eleberrien artean duen aparteko tokia du Sisiforen mitoa-k Camusen obra osoari begira: hain giltza da. Alderantzia eta Zuzena (1937) eta Ezteiak (1939) liburuek urraturikoaren ondoren, Sisiforen mitoa-k (1942) gainerako ilara luzeari ireki zion bidea, berorren pilareak ondokoak direlarik: Arrotza, Caligula, Gaizkiulertua, Gizaki jazarria, Izurria, Erorkera, eta Erbestea eta erresuma<sup>1</sup>. Harrezkero, idazlan batetik bestera, funtsezko koherentzia finkatzen da. Camusen ibilbidea, herio basak etena, hazkuntza naturalaren itxura hartuz doa, barne-aginduari erantzunez. Haren plama bakoitzak eta haren eskribuen multzoak, barru-barrutiko beharrizan hori –berezko eta saihestezineko zalantzarekin batera-- benetako obren zigilua dela erakusten dute.

Camusek argitasuna du xede. Haren esaldiak argiak dira, mediterraniar argitasunaz ehoak, lakonikoak eta beteak. Elipsearen beldur dira, autoreak “gutxi gorabehera”-ren beldur den bezalaxe. Camusen idazkera lehor eta biluzia da, mundua eta beronen misterioak biluzten saiatzen delako.

Maiz, Camusek besteengan miresten dituen ezaugarriak, beraren prosarenak ere bilakatzen dira. Horrela ari da Xestoven obraz, zeinetan Camusek bere “monotonia miresgarria” goraipatzen duen, “betiko egia berberei etangabe so”.

Inoiz ezohiko interferentziak ere gertatzen dira Camusen lumapean. Aipatu berria dugu Camusek, bizitzaren fenomenoak analizatzean, darabilen lehortasuna. Baina alderantzizkoa ere ez da gezurra, Camusek pentsaeraren fenomenoak –definizioz beren neurrian zorrotzak-- sentsualki hurbilarazten baititu. Kierkegaard “ezagueraren Don Juan” gisa definitua da, Seduzitzailearen Egunkaria-ren egilea horretara gogo onez prestatzen delako. Pentsaeraren eta zentzuen erabateko konpromiso osoak erakartzen du

---

<sup>1</sup> Jatorrizko izenburuak: *De l'amour, Le Mythe de Sisyphe, L'Envers et l'Endroit, Noces, Le Mythe de Sisyphe, L'Etranger, Caligula, Le Malentendu, L'Homme révolté, La Peste, Les Justes, La Chute, L'Exil et le Royaume* (Itzultzailearen oharra)

Camus. Neure aldetik, bizitasun lehorren eta pentsaera sentzualaren elkargunean irudikatzen dut Camus.

Sisiforen Mitoa-ren testua bikaina da bere lehortasunean. Baina Izurria-rena, Arrotza-rena, kontakizunean, eleberriena edo teatro-lanena ere ez da gutxiago. Guztiek dute, kidetasunean, grabitate-hondo bera.

Camusek elkarren ondoko belaunaldietako gazteria erakartzen daki, norbaitek pentsa lezakeena ez bezala, gaztaroa, hain zuzen, gure bizitzako sasoirik serioarena delako. Izan ere, gazteriak bizitza are serioiago hartzen baitu, haren hedadura infinitua iruditzen zaion neurrian.

Alderantziz, seriotasunak Camusen funtsezko gaztetasuna egiten du. Beraz, haren obraren aurrean bustiezin gelditzeak nolabaiteko “gaztetasunik eza” susmaraz lezake.

Halere, Camusi dagokionez behintzat, gaztetasunak ez du esan nahi heldutasunik eza edo gaztaroko xorakeria, inoiz hortik esan edo iradoki den bezala. Izan ere, munduaren ikerketa era askotara egin daitekeenez gero, Camusek seriotasunaren erara egitea hautatu du.

Sisiforen arrazoiketa, desesperantza eta ekintzaren artean kokatzen da. Bigarrenaren mesedetan. Badira zenbaitzuk, buruari esperantza eskatuz, landare gisa bizi eta noraezean dabiltzanak. Badira, halaber, beren esperantza giza neurriko ekintzan kokatzen dutenak ere. Eta Camus horietarikoa dugu.

Giza ahots bat, gainezka ari den txakurteriaren erdian.

Hasierako lerroetatik, egileak bere urratsak zehaztasunez egin nahi ditu, eta bere eskrupulua identifikatzen uzten du. Kontua sentiberatasun absurdua dela azpimarratu nahi du, eta ez nolabaiteko filosofia absurdua, holakorik, zehazki esateko, ez baitu gure garaiak ezagutu. Honela, nozio nagusia hasieratik bertatik mugaturik gelditzen da, saio osoan zehar sistematikoki aztertua eta galdekatua izateko. Jarraipen-espíritu honetan, iraute sistematikoan, anabasaren aurreko ezarrera ordenatuan, aitzinera doan neurrian egiten duen eraiketan, Camus oso frantsesa da. Segurtasun txikiak nahiago ditu zirriborroko ikuspegi handiak baino. Argitasun txiki batzuen segidak bidea argitzen dio Camusi, eta aurrera joaten uzten. Horrek haren pausoak sendotu eta azpiko zorua egonkorragoa egiten ditu.

Ibilbide aski baikorraren buruan, bizitzako ongiezak ukatu edo ezkutatu gero, ustekabea haiekin topo egiteko arriskua dago. Camusek aurea hartu eta ezinegona eta herstura gogoz ezartzen ditu abiapuntutzat. Beragan, zorrotasunaren aldamenean, erromantizismoak ere bere sustraia sakonean sartzen du, identifikaezinik ia. Joan den mendeko gaitzan pentsa daiteke, zehazgabeki arimara iragana, frantsesen belaunaldi batentzat “Renéren gaitza” izan zena bilakatzeko<sup>2</sup>. Gaizki izendatua, izan arren, irudi luke mende batetik hurrengora berpiz litekeela, itxuraldaturik, ezaugarri aldatuekin, baina beti ere bere sufrimendu kenezina eramanez. Sisiforen mitoak, alde horretatik, espirituaren gaitz baten deskribaketa, egoera garbian, izan nahi du.

---

<sup>2</sup> Frantsesez “mendeko gaitza” (“le mal du siècle”) erromantizismoari esaten zaio. “Renéren gaitza” (“le mal de René”) ere esaten zaio. Châteaubriand idazle erromantikoak argitaratu zuen eleberrian izenburua gogoratuz (Itzultzailearen oharra)

Gaixotasuna diagnostikatu eta horretaz arduratzeko premia horrek argiro darakuskigu Camusek bere baitan daraman medikuaren nolakoa. Existentziaren antsien eta oinazeen aurrean txunditurik gelditu gabe, berak bizitzaren itxuragabekeriak biluzian uzten ditu. Horrekin ez gaitu desesperarazi nahi, ez eta besoak gurutzaturik geldi gaitezen ere. Camus, begirada argi, zoli eta gogorraz, ezeri amore emateke, gure akats eta oinazeak nabarmenarazten dituzten humanista horien leinu noble horretako kidea da, ahal den neurrian, min horiek garaitzen eta gainditzen guri laguntzeko. Txekhov medikua zen lanbidez. Camusen irudimenak mediku bat sorrarazten du –Rieux-- eta horrexerri datxekio.

Ikergaia definitzerakoan, filosofi korda ber batek lotzen ditu Camus eta Argien Mendea, baina beronen bide bakoitza saihestuz: Voltairek arrazoimenaren izenean mintzatzen zen gogozenik, Jean-Jacques Rousseauk bihotzaren arloa nahiago zuen artean. Antinomia horrek ez du Camus ukitzen: beragan bihotza arrazoigarria da, eta arrazoimena bihozkorra.

Camusen moderazioak ez du adierazten arduragabetasunik, eta etengabeki mutur-puntetako tentazioei aurre egiten die. Horrela, suizidioaren arazoa hasieran dakar: “Filosofi problema benetan serioa bakarra dago: suizidioa”.

André Gidek, Camusek belarri adikorrez aditzen zuenak, prosan esaldi zorrotzen bila zebilela aitortzen zuen. Holakorik aurkitzen ez bazuen, testua porrot egindakotzat ematen zuen. Zorroztasuna, trinkotasuna eta esaldi laburra oso egokiak dira, zalantzarik ez, era horretako geziak moldatzeko. Horrexegatik ez gaitu harritu behar gisa horretako esaldi zorrotzen falta ez izateak ez Sisiforen mitoa-n ez eta Camusen beste idazkietan ere. Baina horietan besterik ere aurkitzen da: irudi zorrotzak, hain zuzen.

Saioa amaitu eta gero, neure oroimenean Mitoa-ren irakurketa jadanik zaharra gorderik nuen, telefonoaren eszena laburra. Ene kautan, deskribaketa honek, gutxienez, orrialde erdia betetzen zuelakoan nengoen, hainbestearino markatu ninduen eta. Halere, hiru lerro besterik ez du: “Gizon bat telefonoz hizketan ari da beirazko itxitura baten atzean; ez zaio entzuten, baina haren ganoragabeko mimika ikus daiteke: galde egin daiteke ea zergatik bizi den”. Telefono-kabinaren espazioa bizitzaren zentzuan zeharkatzeko darabilen abiadura zorabiagarria da. Bizitza, bizitua izateko, erritmo berbera behar du.

Mutur-puntek erakarririk, Camusek Dostoievskirekin egiten du topo beronen arlo propioan, Eztabaida, puntu honetan mamitzen da, hots, “bizitzari zentzurik ukatzeak hura bizitzerik ez duela merezi deklaratzera nahitaez garamatzala” egia ote den jakitea.

Galdera honi erantzuteko, Camusek bere espiritu-kemen osoa behar izan du.

Argia, argitasuna, garbiro jokatzeari dira Camusen azken baliabideak. Argi-izpiek ilunpearen lilura gainditu behar dute. Horren aipamena garbiki egiten du, honako hau nabarmenaraztean: “Ekintasuna eta argikusmena aparteko ikusleak izaten dira gizatiar ez den joko honetan, hor absurduak, esperantzak eta heriotzak beren argudioak elkar trukitzen dituztelarik”. Protagonisten aurkezpenak, bestalde, Camusen mundu espiritualaren beste dimentsio bat bistaratzen digu: pentsalariaren ikertzea dramatiko bihurtzen duen haren dimentsio teatrala. Azken buruan, begiradaren zolitasun horri, Camusen baitan, halako burmuin-zorabioa dario, dena bere buruaren berdina dela eta

“liburu baten azken orrialdeak jadanik lehenengoetan direla” dioskuna. Baina, kontuz: hasierara bidaltzen gaituen bukaera ez da bukaera faltsua besterik.

Camusen argiak haren liburuen paisaiak argitzen ditu. Begiak zabalik bizi nahi izan du.

Camusek munduarekin izandako harremanak pozgarri eta sentsualtasunezkoak direlarik, ez gaitu harritu behar, hura neurtzeko, argitasun-apeta gogora ekartzeak.

Bere bilaketaren opakutasunaren aurka etengabeki jarkirik dabilelarik, Camusek erlatibitatea bere baitan pairatzen du eta ez digu hura inola ere ezkutatu nahi.

Izan ere, haren ustez “egiazko ezaguera oro ezinezkoa delako”. Erlatibitatearen protesta horiek izan ziren, Camus, bere bizitzan zehar, hitlerismoaren, maoismoaren eta estalinismoaren obsesioetatik gorde zuten babesgailuak (segada potoloenetako batzuk besterik ez aipatzearren), eta prest daude, harrezkero, ipuinetako herensugeen buru etengabe berpiztuen antzera, haiengandik sorturiko kume ugarietatik gu ere jagoteko.

Buruaren argimena eta zolitasuna ez dira emanak izaten, konkistatuak baizik. Beraz, horietara heltzeko, Camusen urratsak borondatezko urrats izan nahi zuen. Bizitza maite zuelarik, bere buruari harengana abiatzeko astinaldia eman zion. Bistan da, partida denboran jokatzeko zela, izan ere, “leherketarik gabeko bizitzako egun guztietan, denborak garamatza. Baina beti heltzen da halako une bat, eta orduan geuk eraman behar izaten dugu bera”. Camusek, une horretan, sentiberatu egiten gaitu, eta hutsik ez egitera laguntzen.

Existentziako errealitateak kontuan harturik, zolitasuna eta ekintasuna ez lebilzke elkarrekin luzaro, jazarkuntzarik gabe. Absurduaren definizioetako bat, Camusen arabera, haragiaren jazarkuntza hori da, denboraren iragatearen aurkakoa.

Etengabeko jazarkuntza ez da, noski, hemen lurrean asma daitekeen denborapasarik onena. Camusen zuhurtzia honetan datza, berak ezinbestekoa deritzon bakoitzean etsitzean edo jazartzean.

Zer esanik ez, Arrotza-ren gaia –Camusek Sisiforen mitoa prestatu zuen denbora berean idatziriko elaberriaren izena-- bere saioaren lerro artean itzurtzen diren gaien sinfonia txikian ageri da: “Neure existentziaz dudak segurtasunaren eta segurtasun horri ematen saiatzen naizeneko edukiaren arteko zuloa ez da behin ere beteko. Neure buruarentzat arrotz iraunen dut sekulako”.

Poetak, behin eta berriz, beren xedeetara itzultzen dira, haiek berrartuz edo aldatuz, eta espero ez ziren argikuntzak hurbiltzen dituzte. Musika-konposatzaileek ezaguna dute prozedura hori. Camusen prosa, itxuraz lehorra den arren, sakonean lirikoa da.

Azken buruan, Camusen ustez, kontua ez da bizitza, onartzeko, edertzea, ez eta bera itsustea ere, gaitzesteko. Aski da den bezala hartzea. Bizitza delako. Itxurazko uzurtasun horren pean, Albert Camusek atxikimendu sakona dio bizitzari.

Camusen urratsen ondoan badira gaizkiulertu batzuk ere. Halere ezerk ez du gelditzen. Maiz lotsagabe, eta Camusen ondoan gero eta lotsagabeago, gure garaiak, aldi berean, lotsa suminduenak ere izaten ditu. Bere argimen eta zolitasun estoikoan, Camus lotsa

onekoa da. Hasieran, bizitzaren gorputzaren gaineko zauriak oro, haren aurpegiko garatxo guztiak, aitortu eta agerian utzi nahi ditu, ondoren haren edertasun gorena itzultzeko, ez miopearen begiradak ez urruneko begirada enfatikoak ezin antzeman lezaketen.

Sisiforen mitoa-ren osaera, zehazki ebakiriko triangelu baten itxuran laburbil liteke. Camusen abiapuntua –helmuga ere dena-- suizidioaren problema da, eta horri darion galdera, hau da, “bizitzak bizitzea merezi duen ala ez” jakitea. Galdera honek eta beroni emanen zaion erantzunak triangeluaren soluzioaren angelua osatzen dute.

Beste angelu biak absurduaren eta argitasunaren nozioez osaturik daude. Camusen pentsaera, birrintzaile edo etsigarria izan barik –lehen begiratuan lirudikeenez-- eraikitzailea da, ahal den erarik zehatzenaz. Sisiforen mitoa irakurtzean askoz hobeki ulertzen dugu Rieux doktoreak zer eratako indar morala duen –Izurria-ren pertsonaiak-- , bere eginbeharra egitera eta gaixoak sendatzera laguntzen diona.

Camusentzat ahalegina pentsaezina da eta ez du baliorik zolia denean baizik. “Etengabeko kontzientziak, beti berriztuak, beti teink dagoenak” delako horrek laguntzen dio Camusi “ahalegin zoliaren errepide latz eta idorra” aurkitu eta horri hertsiki jarraitzea.

Camusek hitz handiak saihesten ditu eta haren lumapean maiz ez da estoizismoaren aipamenik kausitzen. Eta halere, egon, etengabeko estoizismoa dago.

Bere egiak aurkitzeko, Camusek argitasuna beharrezkoa du. Ez du garrantzi txikiagoa, halere, egia horiek giza neurrikoak izateak: “Arratseko haizetik hasi eta nire lepo gaineko esku honetaraino, gauza bakoitzak bere egia dauka”. Kontzientziak argitzen du gizakia, beroni eskaintzen dion arretagatik. Optika berean, Camusek “esperientziaren aurpegi bakoitza ulertzera” jotzen du. Eta, azken finean, premia horrek gizaki bakoitza bereziki balioestera darama: “Munduaren aurpegi guztiak pribilegiatuak direlako iritzi psikologiko huts honetan, gizaki absurduak bazuen egia bat, eta aldi berean mingostasun bat ere bai”.

Argitasunarena bezala, giza neurriaren eskakizuna ezinbestekoa da Camusentzat: “Ezin uler dezaket giza hitzez besterik. Ukitzen dudana, jarkitzen zaidana, horra hor nik ulertzen dudana”.

Arrazoimenaren aldamenean, ikusi dugunez, Camusen baitan bihotzaren boza ere aditzen da: “Ebidentzia abstraktua formen eta koloreen lirismoaren aurretik alde egiten du. Gatazka espiritualak haragitzen dira eta giza bihotzaren aterpe miserable eta ederra berraurkitzen dute”. Konkretuaren eta ukigarriaren defentsa, abstraktuaren aurka, lirikoarena burutikoaren kontra, etengabe azaltzen da hor.

“Gizaki absurdua” da Camusi interesatzen zaiona: “Errua aitorrarazi nahi liokete. Bere errugabe sentitzen da”. Kafka irakurri ondoren, Camusek, jota, K...jaunari errugabetasunik ez dagoela entzun dio esaten.

Camusek gure existentziaren funtsezko gauzak argitan jarri nahi lituzke. “Espirituaren ezkutaketa eta atzerakada, espirituak argitan jartzen duenaren aurrean”.

Bai poztasunean eta bai probetan ere, Camusen pentsaerak gorputza eta arima, bi-biak lotzen ditu: “Ez naiz suizidio filosofikoaz interesatzen, suizidio soilaz baizik”.

Camus esperientziak berresten dituen jakintsuen aholkuei darraie. Hortaz, onargarriak bihurtzeko aitzakiaz, ez du, gauzen izaera aldatu nahi. Errealitateari –berau batzuetan bat ere erakargarria izan ez arren-- aurrez aurre begiratzen dio, eta hori lasaitasunaz egiten du, inolako beldurrik gabe. Galderaren meandroen buruan, suizidioaz egindako itaunaren erantzuna aurkitzen du. Angelu horretatik behaturik, “problema alderantziz jarria da. Lehenagoko kontua zen ea bizitzak, bizitua izateko, zentzuren bat ukan behar ote zuen. Hemen ageri denez, aitzitik, zentzurik ez dukeelarik, hainbat hobeki bizitua izanen da”. Irteera Camus kezkatzen zuen oztopoa, helmugan, konpondua duela nabari da. Camusen arrazoiketan paradoxatik ere bada. Baina eremu idorretan zehar iraganik ere, haren pentsaerak, azkenean, lagundu egiten gaitu. Zenbat eta eremua idorragoa izan, hainbat eta preziagarriagoa da laguntza hori.

Dena gertatzen da, Camusek absurdutik irteten den arrazoiketa klasikoa hitzez hitz balu bezala, ad absurdum arrazoiketa alegia: “Bizitzea absurdua bizieraztea da”. Pascalen behialako formula hura dakarkigu horrek gogora: credo quia absurdum. Camusek, funtsean, hauxe dio: ni bizi naiz, absurdua delako. Pascalek maitasunezko aldarrikapena Jainkoari egiten zion, Camusek, aldiz, bizitzari. Bien izendatzaile komuna maitasuna da.

Camusek, era berean, argia behar du bere jazarkuntza argitzeko eta emankor bihurtzeko. Izan ere, azken buruan berak bizitzaren fruituetan –Gidek lurtar elikagaiak esanen zukeen-- pentsatzen du. Hori dela eta, ekinaren ekinaz gizakia goresten du, “bere jazarkuntzaz eta argikusmenaz”.

Beren artean aski urrun nozio hauen ezkontzan, Camusek oreka berraurkitzen du –maiz zaila, baina ezinbestekoa-- frantses pentsaeraren tradizio zaharraren bidean. Ez segadak edo zailtasunak kamuflatu, ez eta frogak bazterrean utzi ere, horra hor Camusek hautatu eta praktikatzen duen erdiko bide zuhurra.

Bestaldetik, berak “jazarkuntza” eta “argikusmen” hitzak “jazarkuntza kontzientea”ren nozioan elkartzen ditu. Perpausaren arte-lanaz eta sinonimi sailkapenaren ikerketaz landa, Camusen pentsaerari halako batasuna eta koherentzia egonkorak datxekio: bai Sisiforen mitoa-n eta bai hortik kanpoan ere, bere obraren osotasunean.

Arretaz begiratu gero, aurreko testuek hurrengoan ernamuinak iradokitzen dizkigute. Eta Sisiforen mitoa, bereziki, oso aberatsa da horrelako ernamuietan.

Ateista baten aukera delarik, Camusen bideak ez du, halere, desesperantzarena izan nahi (bestalde, garrantzi handiko puntu hau azaltzen ikusiko dugu bera). Pozak etengabeko ahalegin guztia koroatzen du, gizakiak hori zolitasunaz onetsi eta berorrek dakarzkion eginbeharrak bere gain hartuz gero bederen. Estoizismoa bezala, eginbeharraren nozioa –ikertzailearen apaltasunean-- ez da bereziki azpimarratzen, baina bai praktikan jartzen, eta garrantzia horrexek du.

Eginbeharrak, ekintasunak eta argikusmenak gidatzen gaituzte, azken buruan, lurtar poztasunera, Camusek, sinbolikoki, “erresuma deitzen duenera.

Horrek konnotazio batzuk dauzka. “Esperantza izaten desikasi” duen gizakiarentzat zapore mingotsa ukan dezake. Beronek “oraingo infernu hau, azkenean, bere erresuma du”.

“Erresumaren” nozioak berak gizakia pazientzia eta borondate ona erakustera gonbidatzen du, berez. Ez al dira horiek bada, bata eta bestea, Sisiforen ezaugarri nabarienetako batzuk (Camusek hura irudikatu gogo duenez behintzat)?

Bere azken obretako batean, ordea, Erbestea eta erresuma-n, Camusek bereizketa bat jartzen du, “erresuma” eta “erbestea” bananduz, lehenbizikoari ukitu pozgarriagoa erantsiz.

Absurdua abolitzeko ahalmenik ezaz, Camusek argitsu bihurtzen du: absurduak argitu egiten nau”, diosku bere xalotasunean.

Camusen urratsen izateko arrazoi sakona askatasunerako joera besterik ez da. Izan ere, askatasunik gabe ezerk preziorik ez. Ezetz esateko askatasuna bera ere, hortaz, hobe da askatasunik ez izatea baino.

Askatasunaren alde batzuk aztertzen ditu: mistikoek “beren burua ematean” aurkitzen duten askatasuna, haiek “sekretuki aske bilakatzen direneko” erregelak, “erregela komunekiko askatasuna” bezalaxe. Aski biz horrekin.

Mallarmé sinetsiz gero, poeten egitekoa mintzaira berria asmatzea litzateke. Camusek ez zaigu bestela ari. Behin baino gehiagotan, hitzen adiera tradizional eta onartuaren aurka jokatzuz, nozio propioak aurkitzen ditu. Horrela geratzen da, adibidez, absurduaz, bere arrazoiketaren erdiguneko basapiztia bera, pultsu gogorraren ondoan azkenean etxekotua. Camusen absurduak askazi erakargarri hau besterik ez du argitan jarri. Honela diosku berak: “absurdutik hiru ondorio ateratzen ditut, neure jazarkuntza, neure askatasuna eta neure grina”. Zer besterik egin dezakegu, Camusen absurdua miresteaz landa?

Camusen arrazoiketaren alde konbentzionalaz ohitu ezean, haren asmoen ondotik pasatzeko arriskua dago. Noski, Camus hitzez hitz hartzeko eskubiderik ere bada. Hor ere hitz horiek harenak izan beharko lukete.

Inoiz, interesgarria izaten da baieztokoak alderantzizko zentzuan hartzea. Bestela nekez jarrai nakioke –ageri den bezalaxe-- Camusen arrazoiketari: “Gizakiari lan eragiten dion eta iharrosten duen guztiak esperantza darabil. Gezurrik ez duen pentsaera bakarra, hortaz, pentsaera antzua da. Mundu absurduan, nozio edo bizitza baten balioa haren antzutasunaz neurtzen da”.

Halere, beste baieztapen batzuk moral desengainatu honen bidetik doaz: “Don Juanek badaki eta ez du esperantzarik”. Edo hau ere bai: “Don Juanek ezer ez izatea aukeratu du”. Ikusi behar ote da hor, ia aldatzeke, errusiar nihilisten doktrinaren oihartzuna? Ezer ez? Zer ote da hori? Egiaz ba al dago ezerezerik, jadanik zerbait edo norbait izan eta gero? Dostoievski bezala, Camus ere azken muturren meneko geldituko ote da “nik dena nahi dut edo ezer ez” dioenean?



Don Juanen antzera, aktorearen bokazioa “bihotz-bihotzez ezer ez izaten edo anitz izaten saiatzea” dela ikasten diogunean, asmoaren heldu nahia argi gelditzen da. Ongi egon da bada, hortaz, duela gutxi iruditu zaidana. Izan ere, “ezer ez” eta “anitz” sinonimoak izan ahal badira, era berean, zerk galeraz dezake “ezer ez” eta “dena” halaxe izaten? Ikusazue pixka bat horrek zer lekarkeen, Camusen gainerako baiezen paradoxikoei aplikatuz gero.

Horrelako asmoek hondoaren eta formaren identitatea miresten uzten digute. Camusen perpausak gardenak dira, airezkoak, argiak. Horien zentzuaz, ordea, ezin da beste horrenbeste esan. Argitasuna urritzea erabateko iluntasuneraino hel daiteke. Camusen argiluna gorpuztu egiten da. Haren argitasuna ilun iruditzen baldin bazaizue, pentsa ezazue, kontsolagarri, ezin egon daitekeela hartan argitasun argiagorik.

Neure aldetik, aitor dezadan errazkiago narraiola Camusi, bereziki zentzuz kontrakoa dena alde batera utzita, haren pentsaerak hertsikor izatea aski duenean, jeinuaren definizio honetan bezalaxe: “bere mugak ezagutzen dituen adimena”. Definizio hanpatuak, abusuz, hain maiz erabili direnez gero, azkenean urritasunaren gara gose. Hortaz, mezua ez datza, mutur bietako balantzaren plater batean ez eta bestean ere. Gehiegikeriak egiatik urruntzen baldin bagaitu ere, urritasunak, horregatik, ez gaitu gehiago hartaratzen.

Zer esanik ez, atzetik garraizkion gorabide honen azken maila absurduaren nozioan kausitzen da.

Bai, Camus frantses tradizio nagusiko pentsalaria dugu. Hau da XVII mende klasikoaren eremuan kokatua. Molièrek Harpagonen zikoizkeria ahal diren ikuspegi guztietatik aztertzen duen bezala, Camusek absurduaren nozioari diratekeen argialdi guztiak jaurtitzen dizkio. Alderantziz esan, susmagabeko dimentsioa edireten dio. Absurduari epitetoak aurkitzen saiatu barik, hura epiteto bilakatzen du. Hortaz elkarren ondoan, hitz, espiritu, gizaki, mirari, pertsonaia, kontraesan, ondorio, ahalegin, jazarkuntza, poz, aurkikuntza, pentsaera, fenomeno, arrazoiketa, grina, obra, sortzaile, artista, jarrera, eskakizun, logika, baldintza, gai, egia, espiritu, irizpide, mundu, elabergile, problema, askesi, existentzia eta bai leherketa absurduak iragaten ikusiko ditugu betaurrean.

Beraz, Le Rochefoucaulden ikuspegian edo Dideroten Komediante baten Paradoxa-ren perspektiban bezala, paradoxak alde guztietara abiatzen dira: “jeinuak ez du deus desenkusutzen”, “sortzailearen bihotz lehorra”; “Esperantzaz gabeturik egotea ez da desesperatzea”; “argi pentsatzen duten eta gehiago espero ez duten gizakiak”; “indiferentzia argikuslea”.

Zorionean, azalpena ez da berankorra: “Mundua argi balitz, arterik ez”. Sisiforen mitoa-ren egileari buruz azalpenezko aipamenen bat egin behar izanez gero, honela dei geniezaioke: Camus edo paradoxa etengabea.

Absurduari begira, argia egin beharra dago. Argitasun osoa gainera. bihotz argikuslea, argi ikustea, bista egiazko eta argia, argitasuna, zolitasuna, argikusmena, tximistargia, irudi argia...

Horrela moldatzen dira buru argiko pentsalari zoliak eta zolitasunaren etika argitsua.

Camusen arrazoiketa logikoaren bukaeran, eta, batera, bere lexikoaren alorrean ere, kontraegia bat zoritzen ari izan da etengabeki, eta horren leherketa are ikusgarriagoa gertatu da, ongi heldu arteko beta izan duenez gero.

Sisiforen Mitoa-ren amaierako “esalditxoak” nahiko ongi laburbiltzen ditu gauzak Camusen arrazoiketan. Horrek ustegabearekin, itxura besterik ez du. Siyfogandik dator, baina Camusengandik ere bai. Camusen arrazoiketa borondatezkoa baita. Borondatezkoa eta ikasterraza. Argitasun metafisikoa argitasun fisikoaz indartzen da, eta begirada zorrozten du. Camusek Don Jan dakusa, eta Don Jaunek zenbaiti begiratzen dio.

Don Juani doakionez –geroxeago Sifyfoz bezala-- Camusek aginduetara jotzen du: hau edo beste hori behar da. Izan ere, “irudi malenkoniatsu eta distiratsu horretan gelditu beharra dugu”la diosku. Ondoren, “Sisiforen zoriontsu irudikatu beharra dago”ela ikasiko dugu.

Irudiak eta borondatea. Ba al da nota bortxatu beharrik? Konklusioa ez al litzateke arrazoiketatik berez etorriko? Hainbeste kostatuko litzaioke gure logikari hura onartzea?

Hobe da azalpen beste nonbait bilatzea. Argitasunik gabe, argirik gabe, Camusen mundua desesperantzaren mundua litzateke, eta egileak nekez kenduko lioke irakurleari bere burua hiltzeko asmoa. Beharrezkoa da argitasuna gauean egitea. Hortaz, fiat lux horrek jainkozko borondatea islatzen du. Jainkorik ez bada, Camusek --edo gizakiak-- argia egin behar du.

Lekualdaketaren zilegitasunaz eztabaidaka aritu barik, --eta hor Prometeoren itzala Sisiforenaren atzetik nabarituko litzateke-- gorde dezagun argiarekiko atxikimendu osasungarri hori.

Sisiforen arroka-aren antzera, Camusen irakaspena ere beherantz doa biraka, geldiezinik, haren testuaren irakurle bakoitzaganaino. Hurrengo irakurleari dagokio orain zama hori onartzea. Eta zoriontsua izan bedi hor bere zoriona aurkituko duena.

Gaston BUATXIDZE  
Tbilisiko Unibertsitateko  
Frantses Filologiaren  
Irakasle Katedraduna

## ARRAZOIKETA ABSURDUA

O arima enea, ez hadi lehia bizitze hilezinaren bila, baina agor ezak izan daitekeenaren arloa.

PINDARO,

3.

Pythikoa

Hurrengo orrialdeak halako sentiberatasun absurduaz ari dira, mende honetan barreiaturik aurki daitekeenaz -eta ez nolabaiteko filosofia absurduaz, holakorik, zehazki esateko, ez baitu gure garaiak ezagutu. Hortaz, eta hasteko, oinarrizko zintzotasunari dagokionez, azaldu beharra dago orriok izpiritu garaikideei zer zor dieten. Hori ezkutatzeko asmorik ez dudanez gero, idazlanean zehar haien aipamen eta iruzkinak agertuko dira.

Baina, aldi berean, azpimarratzekoa da, absurdua, orain arte konklusio gisa erabilia, saio honetan abiapuntutzat hartzen dela. Alde horretan, nire iruzkinean hura zerbait behin-behineko dela esan daiteke: eta, beraz, ezin aurretik esan hark duen jarrera. Hemen, izpirituaren gaitz baten deskribaketa, egoera garbian, aurkituko da, besterik ez. Ez da hor nahasirik aurkitzen metafisika edo sinesterik bat ere. Horiexek dira liburu honen mugak eta aukera bakarrak.

## ABSURDUA ETA SUIZIDIOA

Filosofi problema benetan serioa bakarra dago: suizidioa, hain zuzen. Bizitzak bizitzea merezi duen ala ez duen erabakitzea, horixe da filosofiaren funtsezko galderari erantzutea. Gainerakoa, munduak hiru dimentsio ote dituen, edo izpirituak bederatzi ala hamabi kategoria ote dituen, ondotik dator. Horiek guztiok jolasak dira; aurretik erantzun egin behar da. Eta egia baldin bada, Nietzschek uste bezala, filosofoak, kontutan hartua izateko, predikatu exenpluaren bidez egin behar duela, berehala ohartuko gara erantzueraren horren garrantziaz, bera izanen baita, hil baino lehen, behinbetiko jestuaren aitzindaria. Badira hor bihotzak sentinabari dituen aieruak, baina horietan sakondu beharra dago, horiek izpirituari garbi erakutsiko baldin bazaizkio.

Neure buruari galdetuko banio zergatik arazo bati beste bati baino premiazkoago eritziz behar zaion, haxe erantzunen nuke, hark aldean dakartzan ondorioengatik. Ez dut inoiz ikusi pertsona bat bere burua hiltzen argudio ontologikoaren alde. Galileok berak, egia zientifikoa zuen arren, ezin errazago egin zion uko hari, hark bizitza arriskutan jarri zionetik. Eta gisa batez, ongi egin zuen. Egia horrek ez zuen kondena-sumetarik balio. Lurra ala Eguzkia, zein ari den bestearen inguruan biraka, garrantzirik bat ere gabea da. Dena esateko, alferreko galdera da. Aldiz, jende asko ikusten dut burua hiltzen, bizitzak ez duela bizitzerik merezi uste duelako. Bestalde, beste batzu dakuskit hiltzeko prest, paradoxaz, bizitzeko arrazoia ematen dieten ideia edo ilusioengatik (bizitzeko arrazoia deitzen dena, bada, aldi berean, hiltzeko arrazoi bikaina ere). Hortaz, ene eritziz, arazorik premiazkoena bizitzaren zentzua da. Nola horri erantzun? Funtsezko problema guztiez -eta hiltzeko arriskua dakartenak edo bizitzeko grinari eragiten diotenak dauzkaten nik holakotzat- seguraski pentsatzeko bi metodo besterik ez dago, La Palisse-rena<sup>1</sup> eta Don Kixoterena. Aldi berean zirrara eta argitasunera eraman gaitzakeen bakarra nabaritasunaren eta lirismoaren arteko oreka da. Gai hain apal eta, batera, patetismoz hain beteari dagokionez, dialektika jakintsu eta klasikoak, bistan da, izpirituaren jarrera xumeagoari utzi behar dio lekua, zentzuz eta sinpatiaz jokatzeko duenari.

Suizidioa beti ere gizarte-fenomeno gisa ukitu da. Hemen, ordea, hasteko, gizabanakoaren pentsaera eta suizidioaren arteko harremana dugu aztergai. Honelako jestua bihotzaren ixiltasunean prestatzen da, gogo-lan nagusi baten gisa berean. Gizakiak berak ere ez daki. Arrats batez, buruari tiro edo amilduz ito egiten da. Bere buruaz beste egina zuen orubeen administrari batez, behin esan zidaten bere alaba bost urte lehenago galdua zuela, harez gero erabat aldatua zela eta jazoriko hark "barrutik zulatu" egin zuela. Nekez aurki daiteke hitz zehatzagorik. Pentsatzen hastea norbera zulatua izaten hastea da. Hasiera horietan gizarteak ez du zerikusi handirik. Harra gizakiaren bihotzean aurkitzen da. Eta bertan bilatu behar da. Jolas lurtar horrek existentziari buruzko adimenetik zolitasunik ezera<sup>2</sup> darama ihesiz, eta horrexerik behar zaio jarraiki, berberori ulertuz.

Suizidio batek anitz kausa ditu, eta, oro har, agerienak ez dira eraginkorrenak izan. Bakanka hiltzen du inork burua (hipotesia baztergarria ez den arren) gogoeta soilez. Krisia dakarrena ia beti kontrolagaitza izaten da. Egunkariek maiz "barne-tristurak" edo "gaixotasun sendaezinak" aipatzen dituzte. Azalpen horiek balio dute. Baina jakin beharko litzateke ea egun berean desesperatuaren lagun batek ez ote dion tonu arduragabeaz hitzik egin. Huraxe da erruduna. Izan ere, horrexek lauspearaz ditzake ordurarte zintzilik egondako arrangura eta gogaitasun guztiak<sup>3</sup>.

Baina, izpirituak herioaren aldeko apostua egin dueneko urrats mugagaitza eta une zehatz hori finkatzeko zaila den arren, halere, errazagoa da jestutik bertatik haren baitako ondorioak ateratzea. Halako zentzu batetan, eta melodraman bezala, burua hiltzea aitortzea da. Bizitzak norbera gainditu duela aitortzea da edo ezin daitekeela

hura uler. Ez gaitezen, ordea, analogia hauekin urrunegi joan, eta itzul gaitezen ohizko hitzetara. Horrek "ez duela merezi" aitortzea besterik ez da. Bizitzea, noski, ez da inoiz erraza izaten. Existentziak eskatzen dituen jestuak egiten segitzen dugu arrazoi askorengatik, horietako lehena ohitura delarik. Norbere burua nahitara hiltzeak aldean haxe dakar, ohitura horren izaera irigarriaz, bizitzeko arrazoi sakonik ezaz, eguneroko ihardunaren izaera zentzugabeaz eta sufrimenduaren alferrekotasunaz, instintuz bederen, konturatzea.

Zein da, hortaz, sentimendu neurgaitz hori, izpirituari bizitzeko behar den loa kentzen diona? Arrazoi txarrekin bada ere, azal daitekeen mundu hori mundu etxeko eta ezaguna da. Baina aitzitik, bat-batean ilusioz eta argitasunez gabeturiko unibertsoan, gizakia arrotz sentitzen da. Erbesteratze hori noraezekoa da, ez baitu galduriko sorterriaren oroitzapenik ez eta prometaturiko herrialdearen esperantzarik ere. Gizakiaren eta bere bizitzaren arteko dibortzio hori, aktorearen eta bere dekorazioaren artekoa, da, hain zuzen, absurdutasunaren sentimendua. Gizon sano guztiek beren burua hiltzea inoiz edo behin gogotan erabili dutenez gero, onartuko da, bestelako azalpenik gabe ere, lotura zuzena dela sentimendu horren eta ezerezerako joeraren artean.

Absurduaren eta suizidioaren arteko harremana da, hain zuzen, saio honen gaia suizidioa absurdurako irtenbide gertatzen deneko egoera zehatza. Oinarritz, hau onar daiteke, trankart egiten ez duen gizon batek bere iharduera bere ustez egia denaren arauera bideratu behar izatea. Beraz, existentziaren absurdutasunean sinesteak portaera gidatu behar dio. Bidezko jakinmina da, noski, argiro eta patetismo faltsurik gabe, haxe galdetzea, ea era honetako konklusio batek ez ote duen eskatzen horrelako egoera ulertezinetik lehenbailehen ateratzea. Kontutan izan, ni hemen mintzo naizeneko gizakiak beren buruekin bat etortzeko gertuak direla.

Era argiaz jarritz gero, problema honek, aldi berean, erraza eta konponezina irudi dezake. Baina uste okerra izaten da, galdera errazek ondotik berak bezain erantzun errazak dakartzatela, eta ebidentziak ebidentzia inplikatzeko duela pentsatzea. A priori, eta problema azaltzeko era alderantziz jarritz, burua hiltzea ala burua ez hiltzea dagoen bezala, badirudi bi irtenbide filosofiko besterik ez dagoela: baiezkoarena eta ezezkoarena. Hau ederregia litzateke. Baina, inoiz konkluditu gabe, beti ere galdezka ari direnak kontutan eduki beharra dago. Hemen, ia ez dut ironiarik behar: hori gehienek kasua da. Era berean, dakusadanez, ezetz erantzuten dutenak baietz pentsatzen balute bezala ari dira. De facto, Nietzschearen erizpidea onartzen baldin badut, horiek, nola edo hala, baietz pentsatzen dute. Alderantziz, burua hiltzen dutenen artean, maiz gertatzen da haiek bizitzaren zentzuaz segur izatea. Kontraesan hauek etengabeak dira. Era berean, esan liteke horiek ez direla inoiz puntu horretan bezain zorrotzak izan, logikak, aldiz, hain desiragarria lirudikeenean. Noraezeko topikoa da filosofi teoriak eta berorien aldekoen portaera elkarrekin gonbaratzea. Baina bizitzari zentzurik ukatu dioten pentsalarien artean, Kirilov, literaturari dagokiona, Peregrinos, legendatik sortua<sup>4</sup>, eta Jules Lequier, hipotesia nabarera zuena, izan ezik, inork ez du bere logika bizitza hau errefusatu arteraino eraman. Maiz aipatzen da, barre eragiteko, Schopenhauerrek, suizidioaren goraipamena mahai ongi hornituaren aurrean egiten zuela. Gaiak, ordea, ez du deus irri eragitekorik. Tragikoa serioski ez hartzeko era hau ez da oso larria, baina horrek azkenean gizonaren nolakoa erakusten du.

Kontraesan eta iluntasun hauen aurrean, sinetsi behar al da, hortaz, ez dagoela bat ere harremanik bizitzari buruzko eritziazen eta hura uzteko egiten den jestuaren artean? Alde horretan ez dezagun gehiegikeriarik esan. Gizonak bere bizitzarekin duen harremanean, bada munduko miseria guztiak baino gauza sendoagorik. Gorputzaren epaiak izpirituarenak beste balio du, eta gorputzak atzera egiten du ezereztearen aurrean. Bizitzeko ohitura hartzen dugu pentsatzekoa eskuratu baino lehenago.

Heriotzarantz egunero gehitxoago garamatzen lasterketa honetan, gorputzak harrapaezinezko lehentasun hori begiratzeko du. Azkenik, kontraesan horren mamia itzurketan datza, nik horrela deitzen baitut, berori, aldi berean, Pascalen zentzuko dibertimendua baino gehiago eta gutxiago delako. Saio honen hirugarren gaiak itzurketa etsigarriena aurkezten du, esperantza, alegia. "Merezi" behar den beste bizitza baten esperantza, hau da, bizitzagatik beragatik ez baina bera gainditzeko eta gurentzen duen ideia handiren batengatik bizi direnen segada, hari zentzu bat emanda, bera traditzen baitute.

Honela, orok endredarazten ditu kartak. Orain arte hitzekin jolastea, eta bizitzari zentzurik ukatzeak hura bizitzerik ez zuela merezi deklaratzera nahitaez garamatzala sinesten delako itxura egitea ez dira alferrekoak gertatu. Egia esan, bi eritzi horien artean ez dago derrigorrezko neurririk bat ere. Egin behar den gauza bakarra hau da, orain arte erakutsiriko nahaste, dibortzio eta inkontsekuentzien galbideari uko egitea. Beste guztia saihestu eta egiazko problemari zuzen ekin behar zaio. Ez da inor hiltzen bizitzak bizitzerik merezi ez duelako, hori egia da, dudarik ez, baina halere egia antzua, hori truisimo hutsa baita<sup>5</sup>. Baina existentziari egindako irain hori, egiten zaion uko hori ba al dator hark zentzurik ez izatetik? Haren absurdutasunak nahitaez hartatik ihes egitea eskatzen al du, esperantzaren ala suizidioaren bidez? Horixe da argitan jarri, jarraitu eta azaldu behar dena, gainerakoa baztertuz. Absurduak heriotza eskatzen al du? Problema honi besteen aurretik lehentasuna eskaini behar zaio, pentsabide guztien eta izpiritu desinteresatuaren jokoen gainetik. Ñabardurak, kontraesanak, izpiritu "objektiboak" problema guztietan sartzen dakien psikologiak ez du ikerketa eta grina honetan lekurik. Pentsaera injustua besterik ez da behar, hau da, logikoa. Eta hau ez da erraza. Aise izaten da logikoa izatea. Ia ezinezkoa da baina, azkenerarte logikoa izatea. Beren burua hiltzen duten gizakiak, horrela, beren sentimenduaren jauginari amaitu arte darrazkio. Suizidioari buruzko gogoetak, hortaz, aukera ematen dit interesatzen zaidan problema bakarra ipintzeko: ba al dago hil arterainoko logikarik? Ez dut nik hori jakiterik, hemen iturburua azaldua dudana arrazoiketari, grina desordenaturik gabe, eta ebidentziaren argi bakarraz jarraitzeaz ez bada. Hau da nik arrazoiketara absurdua deitua. Horretan hasiak asko dira. Ez dakit ordea horretan finko iraun ote duten.

Karl Jaspers-ek, mundua batasunean eratzeke ezintasuna aitortuz, honela zioen: "Muga honek neure baitara nakar, nik ordezkatu besterik egiten ez dudana ikuspuntu objektibo baten atzean jadanik gordetzen ez naizen lekura, ez neraz ez eta besteren existentzia niretzat jadanik objektua ezin bilaka daitekeen tokira". Eta hori berak, beste anitzen ondotik, urik gabeko leku desertu horiek iradokitzen ditu, hori pentsaera bere azken mugetara heltzen delarik. Beste anitzen ondotik, bai, eta zalantzarik ez, baina hortik irteteko nolako gogoaz! Pentsaera bera kili-kolo ari den azken bidagurutze horretara gizon asko heldu dira, eta apalenetakoak gainera. Haiek uko egiten zioten zuten preziatuenerari, beren bizitzari. Beste batzuk ere, izpirituaren arteko printzeek, abdikatu dute, baina beren pentsaeraren suizidioa eginez, berek egindako iraultzarik garbienean. Egiazko ahalegina alderantzizkoari eustea da, berau daitekeena den neurrian, eta ondondotik herrialde urrun horietako landaretza barrokoa aztertzea. Ekintasuna eta argikusmena aparteko ikusleak izaten dira joko krudel honetan, hori absurduak, esperantzak eta heriotzak beren argudioak elkar trukatzeko dituztelarik. Dantza oinarritzeko eta aldi berean sotil honetan, izpirituak figurak analiza ditzake, ondoko horiek ilustratu eta berberagan birbizitzeko.

## HORMA ABSURDUAK

### L

an handiek bezala, sentimendu sakonek beti adierazten dute gehiago haiek esan uste dutena baino. Arima baten mugimendu edo higuin baten iraunkortasuna hark egiteko edo pentsatzeko dituen ohituretan ere aurkitzen da, eta arimak berak ez dakizkien ondorioetan ere izaten du segida. Sentimendu haundiek aldean beren unibertsoa daramate, zoragarria zein miseriazkoa. Beren grinaz mundu eksklusiboa argitzen dute, hartan beren giroa ere aurkituz. Bada jeloskortasunaren unibertsoa, handinahiaarena, norberekoikeriarena edo eskuzabaltasunarena. Unibertso bat, hau da, izpirituaren jarrera eta metafisika bat. Sentimendu jadanik berezitzez egia dena, areago izanen da edertasunak dakarzkigun edo absurduak sorteraizten dituen emozioez ere, beren oinarrian hain mugagabe eta, batera, hain nahasiak eta hain "egiazkoak", hain urrunak eta hain "aurre-aurrekoak" direnez.

Absurdutasunaren sentimenduak edozein gizaki jo dezake aurrez aurre edonolako kale-ertzean. Hala delarik, bere biluztasun desolagarrian, bere errainurik gabeko argitasunean, ukiezina da. Baina zailtasun honek ere gogoeta egitea merezi du. Egia da, seguraski, gizon bat ezezagunik gerta dakigukeela sekulako, eta beti ere egon daitekeela beragan zer bait helezin, eta gugandik iheskor. Baina praktikan, nik gizakiak dazaguzkit, beren porteran, beren egikeren multzoan eta beren iragateak bizitzan sorteraizten dituen ondorioetan ezagutuz. Era berean, sentimendu irrazional hauek guztiok, analisiak ezin aztertuzkoak, nik neuk praktikan defini ditzaket, praktikan haiek nabaritu, adimenaren mailan haien ondorioen multzoa bildu, haiek hartu eta beren ikuspegi guztiez ohartu, bai eta haien unibertsoa trazatu ere. Egia da, itxuraz, aktorea bera ehun aldiz ikusi ondoren, pertsonalki ez dudala bera hobeki ezagutuko. Halere, berak haragituriko heroien bilduma egin eta hark jokaturiko ehungarren pertsonaiak hura ezaguntxeago dudala esanez gero, hor nolabaiteko egi puskarik dagoela pentsa daiteke. Izan ere, itxurazko paradoxa hau bada apologoa ere. Eta moralitatea ere bai. Horrek irakasten duenez, gizakia bere bultzada zintzoez bezain ongi, bere komediez ere defini daiteke. Badira halaber, maila beheragoan, sentimendu batzu, mamian harrapaezinak, baina berek sorteraiziriko ekintzetan eta suposatzen dituzten izpiritu-jarreretan zatiz bederen agerteraziak. Bistan da honela metodo bat definitzen dudala. Baina agerian dago, halaber, hau analizatzeko metodoa dela, eta ez ezagutzekoa. Metodoek metafisikak inplikitzen baitituzte, eta horiek batzutan, konturatu ere egin gabe, oraindik ez dakizkitela dioten konklusioei traizio egiten diete. Horrela, liburu baten azken orrialdeak jadanik lehenengoak dira. Korapilo hori noraezekoa da. Hemen definituriko metodoak egiazko ezaguera oro ezinezkoa delako sentimendua aitortzen du. Itxuraz dira kopuruz kontu daitezkeen bakarrak, eta giroa sentieraz.

Absurdutasunaren sentimendu ukiezin hori, beraz, baliteke adimenarenean, bizitzeko artearen edo arte soil-soilaren mundu ezberdin baina anaikorretan itxarotea. Absurdutasunaren giroa hasieran datza. Azken muturra unibertso absurdua da, bai eta horri dagokion egunaz mundua argitzen duen izpiritu-jarrera ere, ezagutzen dion aparteko aurpegi urrikigabea distirarazteko.

\* \* \*

Ekintza haundi guztiek eta pentsamendu haundi guztiek hasiera irigarria izaten dute. Lan nagusiak maiz kale-ertzean edo jatetxe baten atarian jaiotzen dira. Absurdutasuna berdin. Beste edozeinek baino gehiago, mundu absurduak miseriazko jaiotza horretatik ateratzen du bere noblezia. Egoera batzutan, norbere pentsamenduen izaerari buruzko galdera bati "ezer ez" erantzutea gizakiagan itxurakeria izan daiteke. Lagun maiteek ongi dakite hori. Baina erantzun hori zintzoa baldin bada, arrapostu horretan hustasuna eleder bilakatzen deneko arima-egoera berezia isladatzen bada, zeinetan eguneroko keinuen katea hausten baita, hor

bihotza hura lotzeko maila alferrik bila dabilelarik, orduan hori absurdutasunaren lehen zeinua bezalakoa dateke.

Inoiz dekoratuak behera amiltzen dira. Goizean jaiki, tranbea, lau ordu bulego edo lantegian, bazkaria, tranbea, lau lan-ordu, afaria, lotaldia eta astelehena asteartea asteazkena osteguna ostirala eta larunbata erritmo berean, eta ibilbide honi honela jarraitzen zaio gehienetan. Halako egun batez, sinple-sinpleki, "zergatia" zutitzen eta dena hasten da harriduraz tindaturiko gogaikeria honetan. "Hasten da", hauxe da garrantzizkoa. Gogaikeria bizitza makinalaren buruan da, baina, aldi berean, berak inauguratzen du kontzientziaren mugimendua. Iratzartu eta segida dakar. Segida katearako itzulera inkontzientea da, edo bestela behin-betiko itzarraldia. Itzartu eta gero, denboraz, ondorioa dator: suizidioa ala zuzpertzeta. Berez, gogaikeriak badu zerbait nazkagarriarik. Hemen ona delako konklusioa atera behar dut. Dena kontzientziatik hasten baita, eta ezerk ez du deus balio hargatik ez bada. Ohar hauek ez dira bat ere originalak. Baina begien bistakoak dira: hori aski da denbora zati baterako, absurduren jatorrietan, azaletik bederen, ezaguera egiterakoan. Guztiaren jatorrian "kezka" ximplea datza.

Era berean, eta leherketarik gabeko bizitzako egun guztietan, denborak garamatza. Baina beti heltzen da halako une bat, eta orduan geuk eraman behar izaten dugu bera. Etorkizunaren gainean bizi gara: "bihar", "geroago", "halako lanbidea ukanen duanean", "urteekin ulertuko duk". Inkontsekuentzia hauek miresgarriak dira, zeren, azken buruan, hil beharra baitago. Halere, halako egun bat dator, eta orduan gizonak konturatu edo esan egiten du hogeita hamar urte dituela. Horrela bere gaztetasuna baieztatzen du. Baina kolpe berean, burua denborarekiko harremanetan jartzen du. Han bere tokia hartzen du. Onartu egiten du halako unean dagoela, berak osorik ibili behar duela aitortzen duen kurba batetan. Denbora da haren jabe, eta bera orduan harrapatzen duen horrore horretan etsairik okerreana ezagutzen du. Bihar, berak bihar nahi zuen, alta haren izate osoak biharrari uko egin behar zionean. Haragiaren jazarkuntza hori<sup>6</sup>, horra hor absurdua<sup>7</sup>.

Maila are beheragoa, eta horra hor arrotzasuna: mundua "lotina" dela ohartzea, harri bat noraino gertatzen zaigun arrotz somatzea, noraino gertatzen zaigun ulertezin, nolako indarrak naturak edo paisaiak, uka gaitzakeen. Edertasun guztiek, sakonean, gizatiar ez den zerbait daukate, eta menditxoek, zeruaren gozotasunak, zuhaitzen irudi horiek, minutugarrenean bertan, ematen genien lilurazko zentzu hori galtzen dute, ondoren paradisu galdua baino urrunago geldituz. Munduaren hasierako etsaitasun zahar hura, milaka urteetan zehar, gureganatzen da. Segundu batez, ez dugu bera konprenitzen, guk, mendeetan zehar, aurretik han sarturiko figurak eta irudiak besterik konprenitu ez dugulako, eta harez gero, arterio horrez baliatzeko, indarrak falta ditugulako. Mundua ihesi doakigu, den bezalakatzen delako. Ohiturak mozturiko dekorazio horiek diren bezalakoa bilakatzen dira. Gugandik urrunduz doaz. Zenbait egunetan, emakume ezagun baten aurpegian norberak hilabete edo urte batzutan maitaturikoa arrotz gisa aurkitzen dugun bezala, era berean, gu bat-batean hain bakarrik uzten gaituena desiratuko dugu. Baina denbora ez da oraino heldu. Gauza bat besterik ez: munduaren lotintasun eta arrotzasun hori, horra hor absurdua.

Gizakiei ere gizatiartasunik eza darie. Zolitasun-ordu batzutan, haien keinuen itxura mekanikoek, haien zentzugabeko pantomimak haien inguruko guztia ergel bihurtzen du. Gizon bat telefonoz hizketan ari da beirazko itxitura baten atzean; ez zaio entzuten, baina haren ganoragabeko mimika ikus daiteke: galde egin daiteke ea zergatik bizi den. Gizonaren beraren gizatiartasunik ezaren aurreko ezinegon hori, guhauek garenaren irudiaren aurreko erorketa kalkulagaitz hori, "goragale" hori, gure egunotako autore batek deitzen dionez, horra hor, halaber, absurdua. Era berean, segundu batzutan ispilu



barrutik guregana datorren arrotza, geure buruen argazki propioetan aurkitzen dugun anaia ezagun eta halere kezagarria, horra hor, berriz ere, absurdua.

Azkenean, heriotzara eta hartaz dugun sentimendura natorkizue. Puntu honetaz jadanik dena esanik dago, eta gisa da hemen patetismorik ez erabiltzea. Halere, ez da inor inoiz gehiegi harrituko mundu guztia inork "hori ez baleki bezala" bizitzeaz. Eta egia esan, ez dago heriotzaren esperientziarik. Zentzu hertsian ez da esperientzatzen bizi izandakoa eta kontzientziapean jarri dena besterik. Oraingo honetan besteen heriotzaren esperientziak doi-doi mintza daiteke. Ordezko zerbait da, izpirituaren nolabaiteko asmakeria, barrutik inoiz erabat asebate ez gaituena. Konbentzio malenkoniatsu hori ezin izan daiteke gogobetagarria. Ikara, egia esan, gertakariaren matematika-aldetik dator. Denborak izutzen gaitu, berak frogak eskaintzen baitu, soluzioa atzean datorrelarik. Arimari buruzko hitzaldi eder guztiek hemen, zati baterako bederen, beren aurkakoaren bederatziaren frogak aritmetikoa jasan beharko dute. Gorpu hilotz horretatik, zafladek jadanik markatzen ez dutena, arima joana da. Abenturaren funtsezko eta behin-betiko alde honek sentimendu absurduen edukina osatzen du. Patu honen herio-argitasunean alferrekotasuna agertzen da. Ezein moral, ezein ahalegin ezin justifika daiteke a priori gure egoera gobernatzen duen matematika odoltsu horren aurrean.

Berriro ere, hau guztiau esana eta berresana izan da. Hemen, soilki, sailketa arina eta begien bistako gaiak aipatu besterik ez dut egiten. Horiek literatura eta filosofia guztietan zehar ibiltzen dira. Hortixek sortzen dira eguneroko elkarriketak. Ez da, beraz, horiek zertan asmatu behar. Baina ebidentzia horiez seguru egon beharra dago, ondoren galdera nagusiaz aritu ahal izateko. Interesatzen zaidana, berriz errepikatu nahi dut oraindik, ez dira, gehienbat, aurkikuntza absurduak, berorien ondorioak baizik. Egintza horiez seguru egonez gero, zer konkluditu behar da, noraino joan ezer ez ikertzeko? Nahitara hil beharko al da, ala, hala eta guztiz ere, itxaron? Beharrezkoa da, lehenik, adimenaren planaz kontaketa arin berbera egitea.

\* \* \*

Izpirituaren lehen urratsa egiazkoa eta gezurrezkoa elkarretarik bereiztea da. Halere, pentsaerak bere buruaz gogoeta egin bezain laster, lehenik edireiten duena kontraesana da. Alferrik da hemen komentzigarri izaten ahalegintzea. Mendeen buruan inork ez dio arazo honi frogak argiago eta dotoreagorik eskaini Aristotelek baino: "Eritzi hauen ondorio maiz irigarri utzia hauxe da, berez suntsitzen direla. Izan ere, dena egiazkoa dela esanez, guk aurkako baieztapenaren egiazkotasuna baieztatzen dugu, eta horren ondorioz, geure tesiaren faltsutasuna ere bai (aurkako baieztapenak ez baitu onartzen hura egiazkoa izan ahal izatea). Eta dena faltsua dela esaten bada, baieztapen hau bera ere faltsu gertatzen da. Esaten baldin badugu faltsua den bakarra gurearen aurkako baieztapena dela edo faltsua ez den bakarra gurea dela, halere, epai egiazko edo faltsuen kopuru infinitua onartu beharra dago. Izan ere, egiazko baieztapena dioenak, aldi berean bera egiazkoa dela dio, eta horrela beti jarraika, infinituraino".

Irtenbide gabeko gorpil zoro hau ez da halako segida baten hasiera besterik, hor bere buruari so jartzen den izpiritua zorabiozko biraketan galtzen delarik. Paradoxa hauek, beren sinpletasunean, konponezinak dira. Hitz-jokoak eta logikaren akrobaziak edonolakoak izanik ere, ulertzea, aurre-aurretik, bateratzea da. Izpirituaren gogorik sakonenak, bere ibilbide garatuenetan ere, gizakiak bere unibertsoaren aurrean duen sentimendu inkontzientea biltzen du: hau da, senidetasun-eskaria, argitasun-apeta. Gizakiak, mundua ulertzeko, gizatiar bihurtu behar du, bere zigiluaz markatu. Katuaren mundua ez da hartz inurrijalearena bera. "Pentsaera guztia antropomorfikoa da" delako truismoak ez du besterik esaten. Era berean, errealtatea ulertzen saiatzen den izpirituak, gogabeterik egoteko, pentsaera-mugetan sartu beharra dauka. Gizakia, unibertsoak

berak ere maita eta sufri dezakeela ezagutuko balu, baketurik legoke. Pentsaerak, fenomenoen ispilu aldakorretan haiek laburbil litzakeen harreman betikorak aurkituko balitu, beroriek ere beren baitan oinarri bakarrean laburbilduz, orduan izpirituaren zorionaz mintza gintezke, hor dohatsuen mitoa imitazio irrigarria besterik ez litzatekeelarik. Batasun-nostalgia horrek, absolutu-apeta horrek giza dramaren funtsezko mugimendua ilustratzen du. Baina nostalgia hori benetakoa izateak ez du inplikatzeko bera behingoan lasaitu beharra. Izan ere, gogoak konkistatzen banatzen duen amildegia zeharkatuz, guk, Parmenidesekin batera, Bata-ren errealitatea (dena delakoarena) baieztatu dugu, eta horrela batasun osoa baieztatzen duen izpiritu baten kontraesan irrigarria erortzen gara, baieztatzen horrexekin bere ezberdintasuna eta berak ustez konpondu nahi zuen berezitasuna frogatzen baititu. Irtenbide gabeko beste gorpil zoro hau aski da gure esperantzak itotzeko.

Horiek ebidentziak dira oraino. Behin eta berriz ere errepikatu dut horiek ez direla berenez interesagarri, baizik eta hortik atera daitezkeen ondorioengatik. Badazagut beste ebidentzia bat ere: eta horrek gizakia hilkorra dela diost. Kontutan har daitezke, ordea, hortik mutur-puntako konklusioak atera dituzten izpirituak ere. Betiereko erreferentziatzat hartu beharra dago, saio honetan, guk jakin uste dugunaren eta egiaz dakigunaren arteko tarte etengabea, kontsentimendu praktikoa eta ezjakintasun simulatua, gu halako ideiekin bizierazten gaituena, horiek egiaz praktikatu bagenitu geure bizitza errotik irauliko luketen arren. Izpirituaren kontraesan korapilatsu honen aurrean, ezin hobeki jabetuko gara gu geure sorkarieratik banatzen gaituen dibortzioaz. Izpiritua bere esperantzen mundu geldian ixiltzen den neurrian, dena isladatzen eta ordenatzen da bere nostalgiaren batasunean. Baina bere lehenbiziko mugimenduan, mundu hau arrakalatu eta goitik behera dator: ezaguerari orduan ispiluzko leherketa ezin ugariagoak agertzen zaizkio. Gure bihotzari bakea ekarriko liokeen ispilu-gainazal ezagun eta lasai hura berriz eratzeko esperantza erabat galdu behar da. Hainbat mendetako ikerkuntzak egin eta gero, pentsalarien artean hainbat abdikazio gertatu ondoan, jadanik ongi dakigu honek gure ezaguera osorako balio duela egiaz. Arrazionalista profesionalak salbu, gaur egiazko ezagueraz etsirik gaude. Giza pentsaeraren historia esanguratsu bakarra idaztekoan, elkarren ondoko damuena eta haren ezintasunena egin beharko genuke.

Nortaz eta zertaz esan dezaket: "Hau badakit!". Nigan dagoen bihotza sentitu eta bera badela deritzot. Mundu hau ere uki dezaket, eta horri ere badela deritzot. Hor gelditzen da ene zientzia guztia, gainerakoa eraikuntza da. Izan ere, ni seguru nagoeneko "ni" horri oratzen saiatzen banaiz, bera mugatzen eta laburbiltzen saiatuz gero, bera ez dateke nire hatz artetik isurtzen den ura besterik. Hark hartzen dituen aurpegi guztien irudiak banan-banan pinta ditzaket, eta eman zaizkionak ere bai, heziera hau, jatorri hori, suhertasun hau edo ixiltasun horiek, handitasun hau edo beheratasun hori. Baina ez da aurpegi batuketarik egiten. Ene den bihotz hau bera ere definiziozina geldituko zait betiko. Nire existentziaren dudaren segurtasunaren eta segurtasun horri ematen saiatzen naizeneko edukinaren arteko zuloa ez da behin ere beteko. Neure buruarentzat arrotz iraunen dut sekulako. Bai psikologian eta bai logikan ere badira egiak, baina egiazkotasunik ez. Sokratesen "Ezagut ezak heure burua" hark gure aitortzeak "Izan hadi bertutetsua" bezainbateko balio urria du. Biek nostalgia eta, aldi berean, ezjakintasuna nabari dute. Gai nagusiei buruzko jolas antzuak dira. Ez dira zilegi, gutxi gorabeherakoak diren neurri zehatzetan ezik.

Hona hemen, beraz, zuhaitzak, eta nik beren laztasuna dazagut, eta hona ura ere, eta beraren zaporea dastatzen dut. Belarren lurrin hori, eta izarrena, gaua, arrats batzu, bihotza lasaitzen dutenak, nola uka nezake nik mundu hau, berorren ahalmenaz eta indarrez jabeturik nagoelarik? Halere, lurbira honetako zientzia guztiak ez dit deus

emanen, mundu hau enea dela seguratu didanik. Zuek bera deskribatzen didazue eta sailkatzen irakasten ere bai. Zuek haren legeen zerrenda eskaini eta nik neure jakitegarriaz, haiek egiazkoak direla onartzen dut. Zuek haren mekanismoa xehetzen duzue, eta ene esperantza handitu egiten da. Azken buruan, unibertso prestigiotsu eta ñabar hau atomoa besterik ez dela erakutsi didazue, eta atomoa bera elektroiz osamamitua dela ere bai. Hau guztiau ona da eta zuek aurrera segitzea espero dut. Baina, zuek planeta-sistema ikustezinaz mintzo zatzaizkidate, hor elektroiak gunen baten inguruan biraka ari direlarik. Mundu hau irudi baten bidez azaltzen didazue. Aitortzen dut, hortaz, zuek poesiara etorriak zaretela: ez dut inoiz jakinen. Haserratzeko denborarik ukanen al dut? Honez gero beste teoriak ari zarete. Horrela, dena irakatsi behar zidan zientzia hori hipotesian amaitzen da, zolitasun hori metaforan zabuka ari da, ez bai hori artelan gisa burutzen da. Zertarako behar nuen nik horrenbeste ahalegin? Mendi-hegi horien lerro leunek eta arratsaren eskuak, bihotz urduri honen gainean jarrita, are gehiago irakasten didate. Neure hasierara itzulua naiz. Zientziari esker fenomenoak hartu eta zerrendatu ahal baditut ere, ulertu egiten dut ezin dudala, halere, mundua ulertu. Hatzez munduaren erliebea osoki aztertu ondoan, jadanik ez dakiket ezer gehiago horretaz. Eta zuek, deskribaketa segur baina deus irakasten ez didan baten, eta argitu nahi nauten baina inondik ere egiazkoak ez diren hipotesi batzuren arteko aukera ematen didazue. Neure buruarentzat eta mundu honentzat arrotz izanda, zerbait baiezten duen unean bere burua ukatzen duen pentsaeraren babes bakarraz hornitua naizelarik, nolakoa da egoera hau, non bakea ezin baitut ukan, jakiteari eta bizitzeari uko eginez ez bada, non konkista-apetak jotzen baitu erasoak meneratzen dituen harresien aurka? Nahi izatea paradoxak sortetzea besterik ez da. Dena ordenaturik dago arduragabekeriak, bihotzaren loak edo ukamen lurtarrek sortezten duten bake pozoitu hori jaio dadin.

Adimenak berak ere, hortaz, mundu hau absurdua dela diost. Horren aurkakoak, arrazoimenitsuak, dena argi dela dioten arren, ni frogan zain nengoen eta hark arrazoi izatea espero nuen. Baina hantusteko mende asko gora behera, eta hainbat gizon eleder, erakarkor eta limurtiren gainetik, nik badakit hori faltsua dela. Maila horretan behintzat, jakiteko erarik ez badut, ez dago inolako zorionik. Arrazoimen unibertsal praktikoa edo moral horrek, determinismo horrek, dena azaltzen duten kategoria horiek, gizon prestuari barregura ematen diote. Horiek izpirituarekin ez dute zerikusirik. Horiek hari dagokion egia sakona ukatzen dute, kateaturik egotea, alegia. Unibertso adiezin eta mugatu honetan gizakiaren patuak aurrerantzean bere zentzua hartzen du. Irrazionalen herria altxatu da eta inguraturik dauka bere azken finaraino. Haren argikusmen berretorri eta orain kontzertatuan absurduaren sentimendua argitu eta zehaztu egiten zaio. Mundua absurdua dela esan dut, baina arinegi ibili naiz. Mundu hau, bere baitan, ez da arrazoigarria, horixe da hartaz esan daitekeen guztia. Baina absurdua dena irrazionaltasun honen eta argitasunaz zoraturiko gura horren arteko aurkakotasuna da, argitasunaren deiak gizakiaren barren-barrenean durundi egiten duelarik. Absurdua gizonari dario, munduari bezainbat. Oraingo bera dute lotura bakarra. Bata bestearekin eratxekitzen ditu, gorrotoak ez bestek izakiak elkartzen dituen bezala. Ene abenturak oraino dirauen neurrigabeko unibertso honetan, hauxe da neronek garbi bereiz dezakedan guztia. Gaitezen hemen gelditu. Bizitzarekiko harremanak zuzentzen dizkidan absurdutasun hau egiaztat baldin badaukat, munduaren ikuskarien aurrean harrapatzen nauten sentimendu horretan blaitzen banaiz, zientzia bat ikertu behar gaitzen gainjartzen didan argikusmen horretan, segurtasun horiengatik dena sakrifikatu behar dut, eta aurrez aurre begiratu, beroriek mantentzeko. Batez ere, neure portaera egokitu behar diet, haien ondorio guztietan beraiei narraielerik. Hemen zintzotasunaz mintzo naiz. Baina alde aurrez jakin behar dut ba ote duen pentsaerak horrelako mortuetan bizitzerik.

Gutxienez, jakin badakit pentsaera sartua dela mortu horietan. Hor bere ogia aurkitu du. Bertan ulertu du ordurarte mamuz elikatzen zela. Berak giza gogoetaren gai larrienetako batzu ukitzeko atxakia eman du.

Ezaguna den unetik, absurdutasuna grina bilakatzen da, guztietarik urragarriena. Kontua da, ordea, ea nor bere grinekin bizi daitekeen, haien lege sakona onar ote dezakeen, bihotza erretzea alegia, berek aldi berean goraiatzuten dutena; horra hor galdera osoa. Halere, ez da hori guk orain jarriko duguna. Esperientzia horren erdian da bera. Horra itzultzeko garaia da. Ezagut ditzagun gehiago mortutik jaieriko gai eta bultzada horiek. Aski izanen da horien zerrenda egitea. Guztiek ezagutzen dituzte gaur egun. Beti izan dira gizon batzu irrazionaltasunaren eskubideen alde egiteko prest. Pentsaera umiliatua dei dezakegunaren tradizioak bizirik iraun du etenik gabe. Arrazionalismoaren kritika hainbat aldiz egin denez gero, badirudi ez dagoela jadanik berriz egiterik. Halere, geure garaian paradoxazko sistema horiek, arrazoimena trebeki behaztoparazten dutenak, birjaiotzen dakuskigu, hura beti ere aurretik ibili balitz bezala. Baina hori, arrazoimenaren efikaziarena baino gehiago, haren esperantzen bizitasunaren froga da. Historiaren planean, bi jarreraren konstantzia honek gizonaren funtsezko grina argitzen du, batasunaganako deiaren eta bera inguratzen duten paretez ukan dezakeen ikusmen garbiaren artean urraturik.

Ordea, sekula ez du, seguraski, arrazoimenak ukan gaurkoa baino eraso biziagorik bere aurka. Zaratustraren oihu handiaz gero: "Ausaz, hauxe duk munduko nobleziarik aintzinakoen, gauza guztiei bihurtu diedana, beraien gainetik eta zehar ez dagoela "betiereko nahirik" irakatsi dudanean". Kierkegaard-en eritasun hilgarriaz gero "heriotzara garamatza gaixotasun hori, bere atzean ezer ez duena" alegia, pentsaera absurduaren gai adierazkor eta torturagarriak heldu dira elkarri jarraika. Edo, gutxienez, eta ñabardura hori oso garrantzizkoa da, pentsaera irrazional eta erlijiosoaren gaiak. Jaspers-engandik Heidegger-engana, Kierkegaard-engandik Xestov-engana, fenomenologoengandik Scheler-engana<sup>8</sup>, izpiritu familia osoa bat, beren nostalgiagatik ahaide, beren metodo edo helburuetan aurkari, amorrutik lehiatu dira arrazoimenaren errepidea langatzen eta egiaren bide zuzenak berraurkitzen. Pentsaera horiek jakintzat eta bizi izandakotzat ematen ditut hemen. Haien xedeak diren edo izan diren bezalakoak direlarik, horiek guztiok unibertso adierazezin horretatik jalgiak dira, hor kontraesana, antinomia, herstura edo ezintasuna errege direlarik. Eta orain arte agerterazi ditudan gai horiek, hain zuzen, guztiek dituzte amankomunean. Haiez ere, esan beharra dago, azken buruan munta duena, beren aurkikuntzatik atera ahal ukan dituzten konklusioak direla. Horren garrantzia bereziagatik horiek aparte aztertu beharko dira. Baina, oraingoz bederen, aski biz haien hasierako esperientzia eta aurkikuntzez aritzea. Haien konkordantzia somatzea besterik ez. Haien filosofiez aritu nahi izatea harropuzkeria bailitzateke, egin daitekeena da, eta edonola ere nahikoa, guztiek amankomunean duten giroa sentieraztea.

Heideggerrek giza egoera hotzean kontsideratzen du, eta existentzia hau umiliaturik dagoela du aldarrikatzen. Izakien eskala osoan errealtate bakarra "kezka" da. Munduan eta bertoko jolasetan galduriko gizakiak, kezka hori beldur labur eta iheskorra du. Baina beldur hori, bere buruaren kontzientzia hartuta, herstura bilakatzen da, gizaki zolaren betiereko giroa, "hor existentzia berraurkitzen delarik". Filosofi irakasle horrek ikara gabe eta munduko lengoaiarik abstraktuenaz honela idazten du: "giza existentziaren izaera amaitu eta mugatuak, gizakiak berak baino garrantzi handiagoa du". Kant-ez interesaturik dago, baina haren "Arrazoimen Hutsa"ren izaera zedarritua aitortzeko besterik ez da. Analisi horien buruan honela konkluditzeko, "munduak ezin diezaiokeela deus gehiago eskain hersturapeko gizakiari". Kezka horrek arrazoiketaren kategoriak egiaz gainditzen dituela hain betean iruditzen zaionez gero, ez du beste

ametsik hura baino, ez eta hartaz besterik mintzatzen ere. Haren aurpegien zerrenda egiten du: gogaituarena, gizaki hutsala bere baitan mailaz berdintzen eta zorabiatzen saiatzen denean; ikaratuarena, izpirituak heriotzari behatzen dionean. Berak ere ez du kontzientzia absurdutik bereizten. Heriotzaren kontzientzia kezkaren deia da, eta "existentziak, orduan, bere buruari dei egiten dio kontzientziaren arartekotasunaz". Hura herusturaren boza bera da, eta erregutu egiten dio, "behin anonimotasunean galdu eta gero, berbera bihurtzeko" existentzian. Hark ere ez du lorik egin behar, eta ahitu arte itzarri egon beharra dauka. Egon, mundu absurdu honetan dago, haren izaera ahikorra salatzen duela. Kondarren artetik bere bidearen bila dabil.

Jaspers ontologia oroz desesperatzen da, guk "xalotasuna" galtzea nahi duelako. Badaki ezin hel gaitezkeela itxurakerien jolas lurtarra inola ere gaingitza. Badaki izpirituaren amaiera porrota dela. Historiak eskaintzen dizkigun abentura izpiritualetan zehar denbora-pasa ari da, eta sistema bakoitzaren arrakala erakusten du errugigabe, dena salbatu duen ilusioa, ezer ere ezkutatu ez duen predikua. Mundu errautsi honetan, non ezagutzeko ezintasuna frogatua den, irudiz, ezereza errealitate bakarra eta noraezeko desesperantza, jarrera bakarra, izanez, Ariadnaren haria berraurkitzen saiatzen da, jainkozko sekretuetara gidatzen duena.

Xestovek, bere aldetik, monotonia miresgarriko obra luzean zehar, betiko egia berberei etengabe so, gogorki frogatzen du sistemarik hertsiena, arrazionalismo unibertsalena bera ere, azken buruan beti amaitzen dela giza pentsaeraren irrazionaltasunaz oztopo egiten. Arrazoimena mespreziatzen duten ebidentzia ironikoetarik eta kontraesan barregarrietarik bat bera ere ez zaio galtzen. Interesatzen zaion gauza bakarra salbuespena da, bihotzaren zein izpirituaren historiarena. Hiltzera kondenatuaren esperientzia dostoievskiarren bitartez, nietzschetar izpirituaren abentura exasperatuen, Hamlet-en deitorean edo Ibsen baten aristokrazia mingotsaren bidez, berak usnatu, argitu eta handitzen du gizakiak gertatu behararen aurka darabilen jazarkuntza. Arrazoimenari bere arrazoiak errefusatzen dizkio, eta ez da hasten bere urratsak kemenez zuzentzen kolore gabeko mortu horren erdialdera heldu arte, segurtasun guztiak harri bihurtuak diren lekuan.

Guztietarik agian interesgarrienak, Kierkegaardek, bere bizitzaren zati batez behintzat, absurdua aurkitu baino zerbaite hobe egin zuen, hura bizi alegia. "Mututasunik segurua ez da ixiltzea, mintzatzea baizik" idatzi zuen gizonak, hasteko, argi uzten zuen, ezein egia ez dela absolutua eta ezin bihur dezakeela asebetegarri berez ezinezkoa den existentzia. Ezagueraren Don Juan gisa, pseudonimoak eta kontraesanak ugaltu eta Hitzaldi edifikagarriak idatzi zituen, izpiritualismo zinikoaren eskuliburua den Seduzitzaile baten egunkaria moldatzen zuen aldi berean. Kontsolamenduei, moralari, sosegu ororen oinarriei uko egiten die. Bere bihotzean sentitzen duen arantze horren mina loakartzen ere, ez da axolatzen. Aitzitik, iratzartu egiten du hura, eta, halaxe izateko kontentuz, gurutzean josiaren poz desesperatuan, atalez atal -zoltasuna, ukoa, komedia- demoniakoaren kategoria eraikitzen du. Aurpegiera bigun eta batera burlatia, pirueta horiek, ondok arimaren barnetik irtendako oihua darraielarik, izpiritu absurdua bera da, bera gaingitzen duen errealitatearekiko burrukan. Kierkegaard bere eskandalu maiteetara daraman abentua izpiritualak berak ere bere apaingarrietatik gabeturiko esperientzia baten anabasan du hasiera, bere lehenbiziko inkoherentziara abiatuan.

Beste alde batera joanda, metodoarenera alegia, bere gehiegikeriengatik Husserl-ek eta fenomenologok mundua bere askotarikotasunean berrezartzen dute eta arrazoimenaren botere transzendentea ukatzen. Haiekin unibertso izpirituala neurrigabeki aberasten da. Arrosa-orriak, kilometro-mugarriak edo giza eskuak, kasu, maitasunak, gurak edo grabitazio-legeek bezainbateko garrantzia dute. Pentsatzea, jadanik, ez da bateratzea, itxura, oinarri nagusi baten aupegiaren, ezagun bihurtzea. Pentsatzea, ikusten eta adi

egoten berrikastea, kontzientzia zuzentzea da, Proust-en antzera ideia bakoitza eta irudi bakoitza, leku pribilegiatu bilakatzea. Paradoxaz, ordea, dena da pribilegiatua. Pentsaera bere kontzientzia gehiegiak ez bestek justifikatzen du. Kierkegaarden edo Xestoven baitan baino positiboagoa izateko, Husserlen ibilbideak halere, jatorriz, arrazoimenaren metodo klasikoa ukatzen du, esperantza etsipenaz itzaltzen, intuizioari eta bihotzari fenomeno-multzo ugari irekitzen dizkie, berorien aberastasunak gizatiar ez den zerbait duelarik. Bide horiek zientzia guztietara daramate edo ezeinetara ere ez. Hau da, bideak hemen helburuak baino garrantzi handiagoa du. Funtsean "jakiteko jarrera bat besterik ez da" eta ez kontsolamendu bat. Berriro ere, hasieran behintzat<sup>9</sup>.

Nola ez dugu sentituko izpiritu horien ahaidetasun sakona? Nola ez dugu ikusiko leku pribilegiatu eta mingots baten inguruan elkarbiltzen direla, esperantzarik ez dagoen tokian? Nahi dut dena esplikatu dakidan, edo bestela ezer ez. Eta arrazoimenak ezin dezake deus egin bihotzaren garrasi horren aitzinean. Premia horrek iratzarturiko izpiritua bila ibili baina ez du kontraesanak eta desarrazoiak besterik aurkitzen. Nik ulertzen ez dudana arrazoirik gabea da. Mundua horrelako irrazionalenez bete da. Zerbaiten esangura bakarra ulertzen ez badut, horixe ere irrazional neurgaitza besterik ez da. "Hori argi dago" behin esan ahal izatea eta dena salbaturik legoke. Baina gizaki horiek lehiatuki aldarrikatzen dute deus ez dagoela argi, dena anabasa dela, gizakiak argikusmena eta bera inguratzen duten pareten ezaguera besterik ez duela gordetzen.

Esperientzia hauek guztiok akort datoz eta elkar ebakitzen dute. Azken mugetara helduriko izpirituak erizpide bat ukan behar du eta bere konklusioak aukeratu ere bai. Hortxe kokatzen dira suizidioa eta erantzuna. Nik baina, ikerketaren ordena alderantziz jarri nahi dut, eta abentura adimentsutik irten, eguneroko jestuetara itzultzeko. Hemen aipaturiko esperientziak gizakiak utzi behar ez duen basamortuan jaioak dira. Gutxienez, horiek noraino heldu diren jakin beharra dago. Bere ahaleginaren une horretan, gizakia irrazionaltasunaren aurrean aurkitzen da. Bere baitan zorion- eta rrazoimen-gura sentitzen du. Absurdua giza deiaren eta munduko desarrazoizko ixiltasunaren arteko elkarjotze honetatik sortzen da. Horixe da ahantzi behar ez duguna. Atxeki, horrexerri egin behar diogu, hortixek bizitza osoaren ondorioa sort daiteke eta. Irrazionaltasuna, giza nostalgia eta beren bakarkako buruz buru horretatik sortzen den absurdua, horra hor bukaeran nahitaez existentzia batek eduki dezakeen logika osoarekin amaitu behar duen drama horretako hiru pertsonaiak.

## SUIZIDIO FILOSOFIKOA

A

bsurduaren sentimendua ez da, ordea, absurduaren nozioa. Hau hartan oinarritzen da, eta kito, horixe da dena. Ez da hor laburbiltzen, unibertsoaz bere eritzia daraman une niminoan baizik. Ondoren urrunago joan behar du. Bizirik dago, hau da, hil behar du edo durundi egiten segi. Bildurik genituen gaien antzera. Baina hor ere, interesatzen zaizkidanak ez dira idazlanak edo izpirituak, horiek kritikatzek bestelako forma eta lekua eskatuko bailuke, haien konklusioek amankomunean ageri dutena aurkitzea baizik. Izpirituak ez dira inoiz hain bestelakoak izan, agian. Baina halere, haiek abiatzen direneko paisaia izpiritual horiek ezagun ditugu beren berdinkidetasunean. Era berean, zientzia hain ezberdinetan zehar, beren ibilbidearen amaierako oihuak era horretantxe durundatzen du. Ederki nabari da hor badela giro amankomunik, aipatu berri diren izpiritu horiei guztioi dagokiena. Giro hori hilgarria dela esatea, ez da inola hitz-joko hutsa. Zeru itogarri honen azpian bizitzeak bertatik irten edo bertan egotea dakar aldean. Jakin beharra dago, ordea, ea lehen kasuan nola irteten den, eta, bigarreanean, zergatik bertan egon nahi izaten den. Honela definitzen dut nik suizidioaren problema eta norberak filosofia existentzialaren konklusioetarako ukan dezakeen interesa.

Aurretik baina, bide zuzenetik saihestuko naiz unetxo batez. Honaino, kanpotik inguratua dugu absurdua. Edonola ere, galde egin dezakegu ea nozio horrek argirik zer duen, eta zuzeneko analisiaren bidez, alde batetik, haren esangura bilatu, bai eta, bestetik, hari darizkion ondorioak ere.

Errugabea krimen ikaragarriagatik salatzen badut, gizon bertutetsuak bere arreba gutiziatu duela esaten badut, hori absurdua dela erantzunen dit. Haserre horrek, ordea, bere alde irigarria du. Baina badauka, era berean, arrazoi sakona ere. Gizon bertutetsuak arrapostu horrekin nik leporatzen diodan egintzaren eta bere bizitza guztiko oinarrien arteko behin-betiko antinomia erakusten du. "Absurdua da" horrek "ezinezkoa da" esan nahi du, baina bai eta "kontraesankorra da" ere. Gizon bat arma zuriaz horniturik metrailadore-talde bati eraso egiten banekusa, bere egintzari absurdua neritzoke. Baina hori haren asmoaren eta aurkituko duen errealitatearen arteko desproporztioetik dator, hots, haren egiazko indarren eta berak lortu nahi duen helburuaren artean nik nabari dezakedan kontraesanetik. Halaber, epai bati absurdu eritziko genioke, horri egintzek itxuraz aginduko luketen beste epaia kontrajarriz. Era berean, absurduzko frogak honela ere egiten da, arrazoiketa horren ondorioak eta ezarri nahi den errealitate logikoa elkarrekin gonbaratuz. Kasu guztietan, xumeenetik korapilatsuenara, gonbaraketatan atalen arteko urruntasuna zenbat eta nabariagoa izan, are handiagoa izanen da absurduetasuna bera ere. Izan, badira ezkontza absurduak, erronkak, gorrotoak, ixiltasunak, gerrak eta bake absurduak ere bai. Horietako bakoitzean, absurduetasuna gonbaraketatik sortzen da. Hortaz, ongi esan dezaket absurduetasunaren sentimendua ez dela sortzen egintza baten edo inpresio baten azterketa soiletik, baizik eta egintza-egoera baten eta halako errealitatearen arteko gonbaraketatik jalgia dela, ekintza baten eta bera gaingiditzen duen munduaren artekotik. Absurdua, funtsean, dibortzioa da. Ez datza elementu gonbaratueta bategan ez bestean. Beren aurkakotasunetik sortzen da.

Adimenaren mailan, nik, hortaz, absurdua ez dela gizonarengan esan dezaket (gisa honetako metaforak zentzurik ukan ahal baleza bederen), ez eta munduan ere, beren elkarrekiko presentzian baizik. Horixe da, oraingoz, biak batzen dituen lotura bakarra. Ebidentzien arauera egoteko, nik badakit gizakiak nahi duena, eta badakit, halaber, munduak eskaintzen diona, eta beraz esan dezaket badakidala zer den biak elkartzen dituen ere. Ez dut zertan barrurago sakondu behar. Bila dabilenak aski du segurtasun bakarra. Hortik ondorio guztiak ateratzea besterik ez da.

Berehalako ondorioa, aldi berean, metodoaren erregela da. Horrela argitan ematen den hirutasun pitxiak ez du zerikusirik ustekabeen aurkituriko Amerikarekin. Baina badu kidetasunik esperientziaren emaitzekin, bera, izan, infinituki bakuna eta batera infinituki korapilatsua baita. Alde horretatik begiraturik, haren ezaugarrietarik lehena zatiezintasuna da. Haien osagaietako bat ezerezteak, bera osorik ezerezteak dakar. Ezin dagoke absurdurik giza izpiritutik kanpoan. Honela, absurdua, gainerako gauzen antzera, heriotzarekin amaitzen da. Baina, era berean, ezin daiteke absurdurik egon mundu honetatik kanpoan. Eta funtsezko erizpide honen arauera, absurduaren nozioa oinarritzotzat daukat, eta horrek nire lehen egia itxura dezake. Hementxe agertzen da gorago aipaturiko metodo-erregela hori. Gauza bati egia baderitzot, gorde behar dut. Problema bati bere soluzioa ematen hasten banaiz, soluzio horrekin ez dut, bederen, problemaren osagaietako bat ezkutatu behar. Absurdua dut datu bakarra. Problema hortik nola irten jakitea da, eta ea suizidioa ote den absurdu horretatik atera beharreko dedukzioa. Ene ikerketen lehen baldintza, eta azken buruan bakarra, lehertzen nauen hori gordetzea da, eta, ondorioz, hartan nik funtsezkotzat jotzen dudana errespetatzea. Aurkakotasun eta atergabeko burruka gisa definitu berri dut bera.

Eta logika absurdu hau bere azken muturreraino eramanez, burruka honek aldean erabateko esperantzarik eza dakarrela onartu behar dut (desesperantzarekin zerikusirik ez duen arren), etengabeko ukoa (etsipenaz nahasi behar ez dena) eta ezaskitasun kontzientea (gaztaroko urduritasuna ez bezalakoa bera). Eskakizun hauek birrindu, ezkutatu edo xehetzen dituen guztiek (eta lehenengo eta behin dibortzioa ezerezten duen onespena) absurdua hondatu eta orduan proposa daitekeen jarrera baliorik gabe uzten dute. Absurduak ez du zentzurik bera onesten ez den neurrian izan ezik.

\* \* \*

Ba da begien bistako gertakaria, erabat morala dirudiena: gizakia beti ere bere egiek harrapatutik daukate. Behin haiek aitorturik, ezin aska daiteke haietatik. Pixka bat ordaindu beharra dago. Behin gizakia absurduaz kontziente izanez gero, horrexerik atxekiko zaio betiko. Esperantza gabeko gizakia, horrela izateko kontzientzia badu, ez da gehiago etorkizunarena. Hori ordenan da. Baina ordenan da, halaber, berak sortua duen unibertsoetik eskapatzeko ahaleginak egin behar dituela. Aurreko guztiak ez du zentzurik, hain zuzen, paradoxa hau kontutan harturik izan ezik. Ikuspegi honetatik ez dago ezer argigarriagorik, arrazionalismoaren kritikatik abiatuz, giro absurdua ezagutu duten pertsonen beren ondorioak nola eramantzen dituzten orain ikustea baino.

Hortaz, filosofia existentzialetan gelditzeko, badakusat guztiek, salbuespenik gabe, ihesbidea proposatzen didatela. Arrazoiketa bereziaz, arrazoimenaren hondakinen gainean absurdutik abiatuz, unibertso itxi eta gizatiar mugatuan, haiek zapaltzen dituen jainkotzen dute eta beraiek indargabetzen dituenagan esperantza izateko arrazoia aurkitzen. Guztiek, funtsean, esperantza bortxatu hori erlijiozkoa dute. Merezi du hor gelditzeak.

Hemen, adibide gisa, Xestov eta Kierkegaarden gai berezi batzu aztertuko ditut. Baina Jaspersek eskainiko digu jarrera honen enxeplu eredu, karikaturaraino eramana. Gainerakoa argiago bilakatuko da. Transzendentea pentsatzeko ezinaz gelditzen da, esperientziaren sakontasuna zundatzeko ezgai eta porrotak itzulipurdikaturiko unibertso honez kontziente izanez. Aurrera egingen al du, edo, bederen, porrot horren konklusioak aterako? Ez dakar deus berririk. Esperientziatik, bere ezintasunaren aitortzeaz kanpo, ez du ezer atera, ez eta oinarri asebetegarriren bat inferitzeko atxakiarik ere. Halere, justifikaziorik gabe, berberak hori dio, kolpe batez bai transzendentea, bai esperientziako izatea eta bai bizitzak gizakiaz gain duen zentzua ere baieztatzean, honela idatziz: "Porrotak ez al du, hortaz, erakusten, edozein azalpen eta izan litezkeen interpretazio guztiez landa, ezereza ez baina, transzendentziako izatea?". Izate hori, giza



konfidantzaren egintza itsu batez, bat-batean dena azaltzen duena, berak "orokorraren eta bereziaren batasun pentsaezina" gisa definitzen du. Honela absurdua jainko bilakatzen da (hitz horren esangura zabalenean) eta dena argitzen duen izatea ulertzeko ezintasun hau. Ezerk ez du arrazoiketa hau logikaz gidatzen. Jauzia dei egin diezaioket. Eta paradoxaz, ulertu egiten da Jaspersen ekina, beraren pazientzia amaigabea transzendentearen esperientzia hori eginezina bihurtzeko. Izan ere, zenbat eta hurbilpen hau iheskorragoa izan, are hutsalagoa bilakatzen da definizioa, eta are errealagoa du transzendentea, berak baieztatzean darabilen grina beraren azaltzeko ahalmenaren eta munduaren eta esperientziaren irrazionaltasunaren arteko urruntasunarekiko proportzionala baita justuki. Honela ageri da, Jaspersek amorru handiagoa darabilela arrazoimenaren aurreritziak birrintzeko, mundua are era erradikalagoaz azaltzeko baino. Pentsaera umiliatuaren apostolu honek umiliazioaren muturrean bertan aurkituko du izakia bere sakontasun osoan nondik birsortu.

Pentsaera mistikoak prozedura hauetara ohitu gaitu. Bidezkoak dira horiek ere, izpirituaren beste edozein jarrera bezala. Baina oraingoz bederen, problemaren bat seriooki hartuko banu bezala ari naiz. Jarrera honen balio orokorrari edo beraren irakaste-ahalmenari aurreritzi gabe ere, neure buruari jarri dizkiodan baldintzei erantzuten ote dien ikusi nahi dut, interesatzen zaidan gatazkaren mailakoa ba ote den, besterik ez. Hortaz, Xestovengana nator berriro ere. Iruzkintzaile batek haren esaldi interesgarri hau aipatzen du: "Egiazko irtenbide bakarra, dio berak, hortxe da, giza erizmenak irtenbiderik ez duen lekuan. Bestela, Jainkoaren beharrik izanen al genuke? Inork ez du Jainkoagana jotzen, ezinezkoa lortzeko ez bada. Daitekeena lortzeko, aski dira gizakiak berak." Xestoviar filosofiari baldin bada, honela oso-osoan laburbildurik dagoela esan dezaket. Izan ere, bere analisi grinatsu guztien buruan, Xestovek existentzia guztiaren funtsezko absurdutasuna eriden arren, ez du halere behin ere esaten: "Hona hemen absurdua", baizik eta "Hona hemen Jainkoa: horrexengana jo behar dugu, bera gure kategoria arrazonaletan egokitzerik ez bada ere". Nahastea posible izan ez dadin, errusiar filosofoak iradokitzen duenez, Jainko hori seguraski arranguratsu eta gorrotagarria dateke, ulertezina eta kontraesankorra, baina haren aurpegia zenbat eta higuinagariagoa izan, hainbat duke ahalmena sendoago. Haren handitasuna, beraren inkontsekuentzia da. Haren froga, beraren gizatiartasunik eza. Haren baitan<sup>10</sup> jauzi egin eta salto horren bidez ilusio arrazonaletatik irten beharra dago. Horrela, Xestoven ustez absurdua onestea eta absurdua bera aldi berekoak dira. Hartaz konturatzea, bera onartzea da, eta haren pentsaeraren ahalegin logiko guztia hura argitan jartzea, aldi berean, bere baitan daraman esperantza neurrigabea barrutik isur dezan. Berriz ere, jarrera hau zilegi da. Baina, burugogorkeriaz, ni hemen problema bakar bat eta beronen ondorio guztiak kontsideratzera mugatzen naiz. Ez da nire zeregina pentsaera baten edo fede-egintza baten patetismoa aztertzea. Hori egiteko bizitza osoa dut. Jakin badakit arrazionalismoak haserregarri deritzola Xestoven jarrerari. Baina aldi berean nabaritu egiten dut Xestovek arrazoa ere baduela arrazionalismoaren aurka, eta jakin nahi dudana bakarra hau da, ea berak absurduaren aginduen pean zintzoki ba ote dirauen.

Hortaz, absurdua esperantzaren aurkakoa dela ontzat emanda, agerian dago pentsaera existentzialak, Xestoven aburuz, aurretik absurdua suposatzen duela, baina ez du hori frogatzen, haizatzeko ez bada. Pentsaeraren finezia hau txerpolari baten itzuli patetikoa da. Bestaldekik, Xestovek bere absurdua ohizko moralari eta arrazoimenari kontrajartzen dienean, egia eta erredentzioa deitzen dio. Beraz, absurduaren definizio honen oinarrian Xestovek eransten dion onespina nabari da. Nozio honen botere guztia berak gure oinarritzko esperantzak mintzeko moduan datzala onartuz gero, absurduak, irauteko, bera inondik ere ontzat ez hartzea beharrezkoa duela somatzen bada, orduan argi ageri

da egiazko aurpegia jadanik galdua duela, bere izaera gizatiar eta erlatiboa, horrez gero, betierekotasun ulertezin eta batera asebetegarrian sartuz. Absurdurik bada, gizakiaren unibertsoan besterik ez da. Haren nozioa betierekotasunerako saltagailu bihurtzen den unetik, bera ez dagoke gehiago giza adimenaren zolitasunari loturik. Absurdua ez da gehiago gizakiak onetsi gabe nabaritzen duen ebidentzia hori. Burruka saihestua da. Gizakiak absurdua integratu egiten du eta baterakidetasun horretan haren funtsezko izaera desagertarazten, hots, aurkakotasuna, urradura eta dibortzioa. Jauzi hau ihesaldia da. Xestovek, Hamleten *The time is out of joint*<sup>11</sup> esaldia hain atseginez aipatzen duenak, hori halako basa esperantzaz idazten du, berari oso bereziki egotz dakiokeenaz. Izan ere, Hamletek ez darabil adiera horretan, ez eta Shakespearek horrela idatzi ere. Irrazionaltasunaren horditasunak eta extasirako bokazioak izpiritu argikuslea absurdutik hastantzen dute. Xestoven eritziz arrazoimena hutsala da, baina bada zerbait arrazoimenaz bestaldetik. Izpiritu absurduaren ustez arrazoimena hutsala da eta ez dago ezer arrazoimenaz bestaldean.

Jauzi honek, behinik behin, absurduaren egiazko izaeraz argi handiagorik eskain diezaguke. Badakigu ez duela baliorik, orekan ez bada, eta berau, ororen gainetik, gonbaraketan dagoela, eta ez gonbaraketa horren osagaietan. Baina Xestovek, hain zuzen, pisu osoa osagai horietako baten gainean ezarri eta oreka birrintzen du. Ulertzeko dugun gosea eta gure absolutu-nostalgia ezin azal daitezke guk gauza asko ulertu eta azaldu ahal dezakegun neurrian izan ezik. Alferrik da arrazoimena absolutuki ukatzea. Berak bere arloa du, eta hor efikaza da. Eta hori, hain zuzen, giza esperientziaren arloa da. Eta horrexegatik guztia argi gelditzea nahi izaten dugu. Batzutan orde, hori egiterik ez dugu, eta okasio horretan absurdua sortzen da, baina arrazoimen efikaz baina mugatuaren bila eta irrazionaltasun beti ere birjaioaren atzetik joateko, hain zuzen. Hortaz, Xestov honelako hegeldar proposamenaren aurka sutan jartzen denean, "Eguzki-sistemaren mugimenduak lege aldaezinen arauaz ari dira, eta lege horiek haien arrazoimenak dira", bere grina guztia spinozar arrazionalismoa zatikatzen enplegatzen duenean, ateratzen duen konklusioa, hain zuzen, arrazoimen guztien hutsaltasuna da. Eta hortik, itzulera natural eta zilegi gabea eginez, irrazionalaren lehentasunera iragaten da<sup>12</sup>. Baina iragaitza hori ez da begien bistakoa. Izan ere, hor mugaren nozioa eta planarena ere sar daitezke. Naturaren legeak baliagarri izan daitezke nolabaiteko mugaraino, baina hori iraganda, lege horiek beren buruen aurka itzultzen dira, absurdua sortarazteko. Edo, bestela, gerta daiteke deskribaketaren mailan horiek zilegi izatea, horregatik baina, azalpenaren mailan egiak izan gabe. Hemen dena irrazionalari sakrifikatzen zaio, eta argitasun-beharra ezkutarazita, absurdua bera desagertu egiten da bere gonbaraketaren osagaietako batekin batera. Gizaki absurduak, orde, ez dihardu leunketa horretan. Berak burruka ezagutzen du, ez du arrazoimena erabat gaitzesten, eta irrazionaltasuna onartzen du. Horretara esperientziaren datu guztiak begipean jartzen ditu, eta ez dago oso prest, jakin baino lehen, salto egitera. Dakien bakarra hau da, kontzientzia adikor horretan ez duela esperantzak lekurik.

Lev Xestovengan nabari dena, are nabariago dateke, seguraski Kierkegaardengan. Noski, zaila da proposamen argietatik beti iheska dabilen halako autore batengan gauzak inguratzea. Baina, itxuraz elkarren aurka diren idazlanak gora behera, pseudonimoen, jokoen eta irribarreen azpitik, lan honetan guztian zehar egia baten aurrentimendua (eta batera nolabateko beldurra) nabaritzen da, azken idazlanetan finean lehertzen dena: Kierkegaardek berak ere jauzia egiten du. Bere haurtzaroan hain ikara handia ematen zion kristautasun hura, azken buruan bere aurpegi latzenera itzultzen da. Antinomia eta paradoxa, haren ustez ere, erlijioaren erizpide bilakatzen dira. Horrela, bizitza honen zentzu eta sakontasunaz desesperarazten zuen hark berak, orain, aldiz, egia eta argitasuna ematen dizkio. Kristautasuna eskandalua da, eta

Kierkegaardek eskatzen duen bakarra, Eneko Loiolakoak eskatzen zuen hirugarren sakrifizioa da, Jainkoari atseginik handiena ematen diona! "Adimenaren sakrifizioa"<sup>13</sup>. "Jauziaren" itxura hori pitxia da, baina ez gaitu harritu behar. Absurdua beste munduaren erizpide egiten du, mundu honetako esperientziaren hondakin bat besterik ez delarik. "Bere porrotean, dio Kierkegaardek, fededunak garaipena aurkitzen du".

Ez diot neure buruari galdetuko ea jarrera hau zer nolako aurrean hunkigarriari lotu behar zaion. Galdetzeko dudak bakarra haxe da, absurduaren ikusgarriak eta bere izaera bereziak hori zilegi egiten ote duten. Eta horretaz badakit hori ez dela horrela. Absurduaren mamia berriz kontsideratuz gero, hobeki ulertzen da zein metodok Kierkegaardi iradokitzen dion. Munduko irrazionaltasunaren eta absurduaren nostalgia jazarriaren artean, berak ez dio orekari eusten. Ez du hor errespetatzen absurdutasunaren sentimendu berezia sortertzuten duen harremana. Irrazionaltasunetik ihes egiterik ez duela jakinik, bere ustez inora ez daraman nostalgia antzu desesperatutik bederen salba daiteke. Baina bere erizpenean puntu honetan arrazoiak dukeen arren, hari ezetz esatean ezin daiteke gauza bera gerta. Bere jazarkuntza-oihuaren ordean atxekimendu amorratua jartzen balu, orduan bera orain arte argitzen zuen absurdua alde batera utzi behar luke, hortik aurrera ukanen duen segurtasun bakarra jainkotzera joanez, irrazionaltasuna hain zuzen. Garrantzizkoa, Galiani apezak Mme d'Épinay-ri ziotsonez, ez da sendatzea, norbere gaixotasunekin bizitzen jakitea baizik. Kierkegaardek sendatu nahi du. Sendatzea, horixe da bere botu amorratua, haren egunkari osoa zeharkatzen duena. Haren adimenaren ahalegin osoa giza egoeraren antinomialatik ihes egitea da. Ahalegin hau are desesperatuagoa da, berak hor, tximistargitan bezala, aldizka banitatea somatzen baitu, adibidez, Jainkoaganako beldurrak edota urrikiak bakerik ezin ekar balieziote bezala, bere buruaz mintzo denean. Honetara, oinazepeko ihespideaz irrazionaltasunari absurduaren begitartea ematen dio, eta bere Jainkoari haren ezaugarriak: bidegabea, inkontsekuentea eta ulertezina. Kierkegaarden baitan, adimena bakarrik, giza bihotzaren eskakizun sakona itotzen saiatzen da. Ezer frogaturik ez dagoenez gero, dena frogatu daiteke.

Kierkegaardek berak erakusten digu jarraituriko bidea. Ez dut hemen deus iradoki nahi, baina nola ez haren idazlanetan nabaritu arimaren mutilazio ia-ia borondatezkoaren zeinuak, absurduaz onarturiko mutilazioaren aitzinean? Horixe da haren Egunkariaren leitmotiv-a. "Falta ukan dudana basapiztia da, bera ere helbururantz doan gizateriaren osagarri baita... Baina emadazue, hortaz, gorputz bat". Eta geroago: "O! batez ere nire lehen gaztarroan, zer ez nukeen nik emanen gizona izateko, sei hilabetez bederen...falta zaidana, funtsean, gorputza da eta izatearen baldintza fisikoak ere bai". Halere, beste nonbait, gizon berberak bere egiten du esperantza-oihu hori, hainbat mendetan zehar hainbat bihotz iharrotsi dituen, gizaki absurduarena izan ezik. "Baina kristauarentzat, heriotza ez da inola ere ororen amaiera, eta berak esperantza infinituki handiagoa dakar aldean, guri bizitzak ematen diguna baino, osasunez eta indarrez asebetarik badugu ere". Eskandaluz abenitzea, halere, abeniko egiteko modua da. Horrek, ageri denez, aurkakotik, heriotzatik, esperantza ateratzeko era ematen du. Baina sinpatiak jarrera honetarantz makurrerazten badu ere, neurrigabekeriak ez duela ezer justifikatzen esan beharra dago. Horrek giza neurriak gainditzen omen ditu, hortaz, beharrezkoa da, hori gizagaineakoa izatea. Baina "hortaz" hori soberan dago. Hemen ez dago segurtasun logikorik bat ere. Eta ez dago inolako gertagarritasun esperimentialik ere. Esan dezakedan guztia haxe da, horrek, noski, nire neurria gainditzen duela. Hortik ezezkorik ateratzen ez badut, nik behintzat ez dut ezer oinarritu nahi ulertezinaren gainean. Jakin nahi dut ea dakidanarekin bizi naitekeen, eta horrexekin besterik ez. Oraindik esaten zait adimenak bere harrotasuna sakrifikatu behar duela, eta arrazoimenak burua makurtu. Baina arrazoimenaren mugak ezagutzen baditut, ez dut

horregatik ukatzen, eta haren ahalmen erlatiboak aitortzen ditut. Nik adimena argi egon daitekeen erdiko bide honetan gelditu nahi dut. Hor beraren harrotasuna baldin bada, ez dakusat nik aski arrazoirik hari uko egiteko. Ez da ezer sakonagorik, adibidez, Kierkegaarden ikuspegi hau baino, zeinen arauetz desesperantza, egintza ez baina, egoera den: bekatuaren egoera bera. Bekatua Jainkoagandik urruntzen duena baita. Absurduak, alegia, gizaki kontzientearen egoera metafisikoak, ez darama Jainkoagana<sup>14</sup>. Nozio hau argiago egin daiteke, beharbada, ni neurrigabekeria hau esatera ausartzen banaiz: absurdua Jainkogabeko bekatua da.

Absurduaren egoera horretan bizi beharra dago. Badakit izpiritu hau eta mundu hau zertan oinarrituak diren, bata besteari arbotantez datxezkiola, elkar besarka ezinean. Egoera horren bizi-erregela eskatzen dudanean, eskaintzen zaidana oinarriaz arduragabetzen da, oinazezko aurkaritza horren ataletako bat ukatzen du, amore ematea eskatzen dit. Enea dela ezagutzen dudana egoerak aldean zer dakarren galdetzen dut; badakit horrek iluntasuna eta ezjakintasuna inplikatzeko duela, eta seguratzeko zait ezjakintasun horrek dena azaltzen duela, eta gau hau argia dudala. Baina hemen ez zaio nire asmoari erantzuten, eta lirismo handipuztu horrek ezin niri paradoxa ezkuta. Beraz, bestetik abiatu beharra dago. Kierkegaardek garrasi eta abisu egin dezake: "Gizakiak betiereko kontzientziarik ez balu, gauza guztien barrenean ahalmen basati eta irakina besterik ez balego, grina ilunen zurrunbiloan, gauza guztien, handiaren eta niminoaren, sortzaile, ezerk ezin bete dezakeen hondo gabeko hutsa gauzen azpian ezkuta baledi, orduan zer litzateke bizitza, desesperantza besterik?". Oihu horrek ez du zertan geldierazi behar gizaki absurdua. Egiazkoa dena bilatzea ez da nahi denaren bila aritzea. "Orduan zer litzateke bizitza?" galdera larritik ihes egiteagatik, astoaren antzera, ilusiozko arrosez elikatzea beharrezkoa baldin bada, gezurra onestea baino, izpiritu absurduak nahiago du, ikara gabe, Kierkegaarden erantzuna onartu: "desesperantza".

Ongi begiratzuz gero, arima erabakiorra hartaz<sup>15</sup> beti konponduko da.

\* \* \*

Jarrera existentzialari suizidio filosofikoa deitzeko askatasuna hartzen dut hemen. Baina honek ez du juzkua inplikatzeko. Hau pentsaera batek bere burua ukatzen duen, eta ukoa egiten duen puntuan bere burua gainditzera jotzen duen mugimendua izendatzeko era eroso da. Existentzialek ukoa Jainkoa dute. Zehazki, jainko hori ez da mantentzen giza arrazoimenaren ukoaz ez bada<sup>16</sup>. Baina suizidioen antzera, jainkoak gizonen arauera aldatzen dira. Jauzi egiteko era asko dira, jauzi egitea garrantzizkoena izanda. Uko erredentoreok, oraindik saltatu gabeko behaztopoa ukatzen duten azken buruko kontraesan hauek, berdin sort daitezke (hau da arrazoiketaren honek xedean duen paradoxa) halako iradokizun erlijiosoren batetik zein ordena arrazionaletik. Horiek oro betierekotasunaren bila ari dira, eta jauzia hor bakarrik egiten dute.

Berriz ere esan beharra dago, saio honek darabilen arrazoiketak erabat uzten duela alde batera gure mende argitu honetan zabalduenik dagoen jarrera izpirituala: dena arrazoimena dela dioen oinarriaren gainean finkatua, munduaren azalpena emateko helburua baitu. Normala da argia eman nahi izatea, argia izan behar duela onartzen denean. Hori ere bidezkoa da, baina ez dagokio hemen darabilgun arrazoiketari. Izan ere, beronen helburua izpirituaren ibilbidea argitzea da, munduaren esangurarik ezaren filosofiatik abiatua, azkenean hari zentzua eta sakontasuna aurkitzen dizkionean. Ibilbide horietarik patetikoena funts erlijiosoa du; hori irrazionaltasunaren gaian argi erakusten da. Baina paradoxazkoena eta esanguratsuen bestea da, hasieran oinarri gidaririk gabetzat jotzen zen munduari arrazoi arrazoitsuak ematen dizkiona. Ez legoke, ordea, interesatzen zaizkigun ondorioetara heltzerik, aurretik nostalgi izpirituaren eskurapen berri honen ideiarik azaldu gabe.

"Intentzioaren" gaia besterik ez dut jorratuko, Husserlek eta fenomenologoek modan jarria. Aipatua dut jadanik. Hasieran husserldar metodoak arrazoimenaren ibilbide klasikoa ukatzen du. Derragun berriro ere. Pentsatzea ez da bateratzea, ez eta itxura, oinarri nagusi baten begipean, ezagun bihurtzea ere. Pentsatzea ikusten berrikastea da, nork bere kontzientzia zuzentzea, irudi bakoitza leku pribilegiatu bihurtzea. Bestela esan, fenomenologiak uko egiten dio mundua azaltzeari, bizi izandakoaren deskribaketa besterik ez du izan nahi. Bera eta pentsaera absurdua bere hasierako baieztapen honetan elkartzen dira, hots, ez dagoela egia, egiak baizik. Arratseko haizetik hasi eta nire lepo gaineko esku honetaraino, gauza bakoitzak bere egia dauka. Kontzientziak argitzen du hori, berorri jartzen dion arretari esker. Kontzientziak ez du bere ezagueraren objektua osatzen, berak finkatu besterik ez du egiten, arreta-egintza da, eta bergsondar irudia berreskuratuz, projekzio-aparatua dirudi, bat-batean irudi baten gainean finko gelditzen dena. Ezberdintasunez, ordea, hor gidoirik ez dago, etengabeko ilustrazio inkontsekuentea baizik. Linterna magiko honetan irudi guztiak pribilegiatuak dira. Kontzientziak bere ardurapeko gai guztiak esperientzian ezartzen ditu zintzilik. Bere mirakuluaz, isolatu egiten ditu. Orduandanik juzku guztietatik at daude. Intentzio hau da kontzientzia karakterizatzen duen ezaugarria. Baina hitz horrek ez dakar aldean helburuzko ideiarik bat ere; "norabide" adieran hartua da: topografi balioa besterik ez du.

Lehen ikuspegitik, badirudi horrela ezerk ere ez diola izpiritu absurduari kontraesaten. Pentsaeraren apaltasun itxurazko hau, berak azaldu nahi ez duena deskribatzera mugatzen dena, borondatezko diziplina hau, hortik, paradoxaz, esperientziaren aberaste sakona eta munduaren birjaiotzea, bere joritasunean, datozelarik, horra hor ibilbide absurduak. Lehen begiradaz behinik behin. Izan ere, pentsaeraren metodoek, bai kasu honetan eta bai bestelakoetan ere, bi ikuspegi izaten dituzte beti, psikologikoa bata eta metafisikoa bestea<sup>17</sup>. Horregatik bi egia ezkutatzen dituzte. Intentzionaltasunaren gaiak jarrera psikologiko bat besterik argitu nahi ez badu, horren bidez erreala, azaldu beharrean, agortzeko, halere deusek ez du izpiritu absurdutik urruntzen. Ezin iragan dezakeena zenbakitan zerrendatu nahi du. Esan, hauxe besterik ez dio, batasun-oinarri izpirik gabe ere, esperientziaren aurpegi bakoitza deskribatu eta ulertzean, pentsaerak oraindik bere poza lor dezakeela. Aurpegi horietako bakoitzari dagokion egia, hortaz, psikologi mailakoa da. Hori errealitateak erakuts dezakeen "interesaren" lekuko besterik ez da. Mundu erdiloakartua iratzartu eta gogoarentzat bizi jartzeko era da. Baina egiaren nozio hau hedatu eta arrazionalki oinarritu nahi baldin bada, ezagueraren objektu bakoitzaren "esentzia" honela aurkitu uste izanez gero, esperientziari bere sakontasuna itzultzen zaio. Izpiritu absurduarentzat hori ulertezina da. Halere, jarrera intentzionalean apaltasunetik segurtasunera nabari den kulunkaketa hori eta pentsaera fenomenologikoaren distiraketa izanen dira beste edozer baino hobeki arrazoiketa absurduaren exenpluak.

Izan ere, Husserl, halaber, "denboraz kanpoko esentziez" mintzo da, horiek intentzioak argitan ematen dituelarik, hor, ustez, Platon entzuten balitz bezala. Ez dira gauza guztiak gauza bakarraren bidez azaltzen, guztien bidez baizik. Ez dakusat hor ezberdintasunik bat ere. Jakina, deskribaketa bakoitzaren buruan kontzientziak "eginiko" ideia edo esentzia horiek inork ez du oraino esan ere du hobezinak direnik. Baina horiek somatze-datu guztietan zuzenik ageri direla, ordea, baieztan da. Ez dago jadanik dena azal dezakeen ideia bakarrik, baina bai kontaezineko esentziak, kontaezineko objektuei zentzu ematen dietenak. Mundua gelditu egiten da, baina argitu ere bai. Platonen errealismoa intuiziozkoa bilakatzen da, baina errealismo dirau halere. Kierkegaard bere Jainkoagana amiltzen zen, Parmenidesek pentsaera Batasunaganaino eraisten zuen. Hemen baina, pentsaerak bere burua politeismo abstraktura jaurtikitzen

du. Bada hoberik ere: lilurapenak eta fikzioak berak ere "denboraz kanpoko esentzien" atalak dira. Ideien mundu berrian, kentauroaren kategoria eta, apalagorik, metropolitarrarena elkarlanean ari dira.

Munduaren aurpegi guztiak pribilegiatuak direlako eritzi psikologiko huts honetan, gizaki absurduak bazuen egia bat, eta aldi berean mingostasun bat ere bai. Oro pribilegiatua dela esateak oro baliokidea dela esan nahi du. Baina egia honen ikuspegi metafisikoak hain urrun daramanez gero, oinarritzko barne-erreakzioaz, beharbada bera Platonengandik hurbilago sentitzen da. Irakasten zaionez, irudi orok, noski, esentzia halaber pribilegiatua nahi du aurretik. Hierarkia gabeko mundu ideal honetan, armada formalaren generalek ez bestek osatua da. Zalantzarik ez, transzendentzia bazterturik zegokeen. Baina pentsaeraren bira supitu batek txatalezko imanentzia moduko bat birsartu du munduan, unibertsoari lehenagoko sakontasuna emanez.

Beldur izanen al naiz gai hau urrunegi eramateaz, beraren sortzaileek zuhurtzia handiagoaz erabili eta gero? Husserlen baiezen hauek irakurri besterik ez dut eginen, paradoxa-itxurakoak, baina barruan logika hertsia sentierazten dutenak, aurretik doan hau onartuz gero behintzat: "Egiazkoa, absolutuki da egiazkoa, berez; egia bat da; bere burua bezalakoxea, bera somatzen duten izakiak direnak direlarik, gizakiak, munstroak, aingeruak zein jainkoak izan arren". Arrazoimena garaile da eta tronpetaz mintzo da boz honekin; ezin uka dezaket. Zer esan nahi ukan dezake haren baiezenak mundu absurduan? Aingeru edo jainko baten somaketak ez du enetzat zentzurik. Jainkoaren arrazoimenak enea berresten dueneko leku geometriko hori ulertezina egonen zait betiko. Berriz ere, hor jauzi bat nabari dut, eta abstraktuaren barruan egina izan arren, horrek, halere, haxe esan nahi du enetzat, prezeski ahanzi nahi ez dudana ahanzea. Husserlek geroago honela idazten duenean: "Erakarpenpeko masa guztiak desagertuko balira, erakarpenaren legea ez litzateke horregatik suntsituko, aitzitik, bera egonean iraunen luke, aplikazio posiblerik gabe", badakit kontsolatzeko metafisika bat dudala aurrean. Eta pentsaerak ebidentziaren bidea alde batera uzten duen bihurtzea aurkitu nahi izanez gero, orduan aski dut Husserlek izpirituari buruz duen arrazoiketara paraleloa berrirakurtzea: "Ihardupide psikikoen lege zehatzak argi ikusterik bagenu, horiek natur zientzia teorikoen oinarritzko legeak bezain betiereko eta aldaezinak agertuko litzazkiguke. Beraz, horiek baliagarri izanen lirateke, ihardupide psikikorik ez balego ere". Izpiritua ez balitz ere, beraren legeak izanen lirateke! Ulertzen dut, beraz, egia psikologiko batez Husserlek erregela arrazionala egin nahi izatea: giza arrazoimenaren integrazio-ahalmena ukatu eta gero, saihaspide honetatik betiereko Arrazoimenaren barrura egiten du jauzi.

"Unibertso konkretuaren" husserldar gaiak, beraz, ezin harrapa nazake ustekabeen. Esentzia guztiak ez direla formazkoak eta horien arteko batzu materialak, eta lehenak logikaren objektu eta bigarrenak zientzienak direla niri esatea definizio-kontua besterik ez da. Abstraktuak, seguratzin zaidanez, ez du izendatzen unibertsal konkretu baten atal bat besterik, berez materiari ez duena. Baina jadanik salatutako kulunkaketak hitz horien arteko nahaspidea argitzeko era ematen dit. Izan ere, horrek agian esan nahi du nire arduraren objektu konkretuak, zeruak, mantu honen hegaldaren gainean ur horrek egiten duen distirak, errealdaren prestigioa bakarrik gordetzen dutela, nire interesak munduan isolatzen duenarena. Ez nuke nik hori ukatuko. Baina agian horrek esan nahi du, era berean, mantu berberori berez unibertsala dela, bere esentzia berezia eta nahikoa duela, formen munduari dagokiola. Ulertu egiten dut, orduan, prozesioaren ordena besterik ez dela aldatu. Mundu honek ez du gehiago bere islada goiko unibertsoren batetan, aitzitik, formen zerua lur honetako irudien populaketaren baitan itxuratzen da. Horrek ez dit ezer aldatzen. Ez da jada konkretuaren gustua, giza egoeraren zentzua, nik

hemen aurkitzen dudana, intelektualismo bat baizik, konkretua bera orokortzeko nahiko desbridatua.

\* \* \*

Alferrik harri gintzake itxurazko paradoxa honek, arrazoimen umiliatuaren eta arrazoimen garailearen bide aurkakoen bidez pentsaera bere burua ukatzera daramanak. Husserlen jainko abstraktuagandik Kierkegaarden jainko tximist-jaurtitzailagana, ez dago hain alde handirik. Arrazoimenak eta irrazionaltasunak prediku berera daramate. Izan ere, bideak ez du ardura, ororen gainetik aski baita heltzeko borondatea. Filosofia abstraktua eta filosofia erlijiosoa nahasmendu beretik irteten dira, eta biak herstura berean mantentzen. Baina funtsezkoena azaltzea da. Nostalgia hemen bortitzagoa da zientzia baino. Asko esan nahi du garai honetako pentsaera munduaren esangurarik ezaren filosofiaz blaituenetakoa eta, batera, bere konklusioetan urratuenetakoa ere izateak. Etengabe ari da zabuka, errearen azken muturreko arrazionalizaziotik azken muturreko irrazionalizaziora, lehenak arrazoimen-tipotan zatikatzen bultzatzen duen bitartean, bigarrenak erreala jainkotzen bultzatzen duelarik. Baina dibortzio hau itxurazkoa besterik ez da. Abenikoa egin beharra dago, eta kasu bietan jauzia nahikoa da hor. Beti uste izaten da, oker, arrazoimenaren nozioak norabide bakarra duela. Egia esan, bere gogozko xede zorrotzena izanik ere, kontzeptu hau horregatik besteak bezain mugikorra da. Arrazoimenak aurpegi erabat gizatiarra du, baina badaki, halaber, jainkotasunerantz itzultzen. Plotinoz gero, arrazoimena betiereko giroaz abenitzen jakin zuen lehenengoa berau, berak ongi ikasia du bere oinarririk maiteenetik, kontraesantetik, saihesten, bere baitan arrotzena integratzeko, guztiz magikoa dena, partaidetasunarena, hain zuzen<sup>18</sup>. Pentsatzeko tresna da, eta ez pentsaera bera. Gizaki baten pentsaera, ororen aitzin, beraren nostalgia da.

Arrazoimenak plotindar malenkonian eztatzen jakin zuen moduan, oraingoan betierekotasunaren dekoratu ezagunetan aro berriko hersturari ere lasaitzeko bideak eskaintzen dizkio. Izpiritu absurduak ez du halako zoririk. Mundua ez zaio hain arrazionala, ez eta horrenbesterainoko irrazionala ere. Desarrazoizkoa da, horixe besterik ez. Husserlengan arrazoimena, azkenean, mugarik gabekoa egiten da. Absurduak, aitzitik, haren mugak finkatzen ditu, hark bere herstura ezin lasai diezaiokeenez gero. Kierkegaardek, bestaldetik, muga bakarra aski dela dio, hura ukatzeko. Baina absurdua ez doa hain urrun. Muga hori, haren eritziz, arrazoimenaren gogozko xedeari dagokio bakarrik. Irrazionalaren gaia, existentzialek buruan daukaten moduan, burua ukatuz iharrosten eta askatzen den arrazoimena da. Absurdua, aldiz, arrazoimen zolia da, bere mugez konturatzen dena.

Bide zail honen buruan aurkitzen ditu gizaki absurduak bere egiazko arrazoiak. Bere eskakizun sakona eta proposatzen zaiona gonbaratzean, aldaratuko dela sentitzen du bat-batean. Husserlen unibertsoan mundua argitu egiten da eta giza bihotzean dirauen ezagutze-gogo hori alferreko bilakatzen da. Kierkegaarden apokalipsian argitasun-gura horri uko egin behar zaio, asebate nahi bada. Bekatua ez da horrenbeste jakitea (alde horretatik mundu guztia errugabea baita), jakin nahi izatea baizik. Horixe da, hain zuzen ere, gizaki absurduak, errudun eta, aldi berean, errugabe dela, sentierazten dion bekatu bakarra. Proposatzen zaion irtenbidean iraganeko kontraesan guztiak polemika-jolasak besterik ez dira. Baina ez ditu berak horrela sentitu. Haien egia gorde beharra dago, asebateak ez izatean datzana. Predikurik ez du nahi.

Nire arrazoiak leial izan nahi du, bera iratzartu duen ebidentziarekin. Ebidentzia hori absurdua bera da. Gutizia duen izpirituaren eta zapuzten duen munduaren arteko dibortzioa da, nire batasun-nostalgia, unibertso sakabanatu hori eta biak elkarrekin kateatzen dituen kontraesana. Kierkegaardek ene nostalgia ezabatzen du eta Husserlek bildu egiten du unibertso hori. Ez da nik itxaroten nuena. Kontua urradura horiekin bizi

izan eta pentsatzea zen, onetsi ala uko egin behar ote zen jakitea. Ezinezkoa da ebidentzia mozarrotzea, beraren ekuazioaren osagai bat ukatu eta, absurdua ezabatzea. Jakin behar da ea horretaz bizi daitekeen ala logikak horretaz hiltzea agintzen duen. Ez naiz suizidio filosofikoaz interesatzen, suizidio soilaz baizik. Emoziozko edukinaz garbitu nahi dut, eta beraren logika eta prestutasuna ezagutu. Beste edozein jarrerak izpiritu absurduaren aburuz izpirituaren ezkutaketa eta atzerakada da, izpirituak argitan jartzen duenaren aurrean. Husserlek dioenez, "bizitzeko egoera jadanik aski jakin eta eroso batzutan bizi eta pentsatzen segitzeko aspaldiko ohitura zaharretik" ihes egiteko gogoari obeditzen dio, baina azken jauziak haren baitan<sup>19</sup> betierekoa eta beronen erosotasuna dakarzkigu. Jauziak ez du aldean arrisku larrik, Kierkegaardek bestela uste ukan arren. Aitzitik, arriskua jauziaren aurreko une sotilean datza. Ertz zorabiagarri horretan egoten jakitea, horra hor zintzotasuna, gainerakoa ihesbidea baita. Badakit halaber ezintasunak ez duela behin ere iradoki Kierkegaardenak bezain akorde hunkigarrik. Baina ezintasunak bere tokia Historiaren paisaia arduragabeetan baldin badu ere, ezin dezake toki hori orain ukan, zer nolako exigentzia duen dakigun arrazoiketan.



## ASKATASUN ABSURDUA

H

onez gero atal nagusia egina da. Badauzkat atxekirik ebidentzia batzu, eta ezin aska naiteke horietatik. Dakidana, segur dena, ezin uka dezakedana, atzera ezin jaurtiki dezakedana, horixe da kontua. Erabateko ukoa egin diezaioket zalantzazko nostalgiez bizi den neure atal horri, baina ez batasun-gura horri, soluzioa aurkitzeko gogo horri, argitasun- eta kohesio-eskari horri. Inguratzen, jotzen edo liluratzen nauen mundu honetan den-dena gaitzets dezaket, kaosa, azare erregea eta anarkiatik sortzen den jainkozko baliokidetzaz hori izan ezik. Nik ez dakit mundu honek bera gainditzeko duen zentzuren bat ba ote duen. Baina badakit nik ez dudala zentzu hori ezagutzen, eta oraingoz bederen ezinezkoa dudala ezagutzea. Zer esan nahi du enetzat nire egoeraz kanpoko esangura horrek? Ezin uler dezaket giza hitzez besterik. Ukitzen dudana, jarkitzen zaidana, horra hor nik ulertzen dudana. Eta ongi dakit segurtasun bi horiek, nire absolutu- eta batasun-gogoa eta mundu hau, oinarri arrazional eta arrazonagarriren baten menean jartzeko ezintasuna, ezin ditudala abenitu. Zein beste egiairik ezagut dezaket gezurrik esan gabe, eta esperantza, nik ez dudana eta ene egoeraren mugetan deus esan nahi ez duena, hor sartu gabe?

Zuhaitzen arteko zuhaitza banintz, edo animalien artean katua, bizitza honek zentzu bat ukanen luke, edo, hobeki esan, problema hau ez legoke, nerau munduaren partaide izanda. Mundu hau nintzateke ni, orain kontzientzia osoaz eta ezaguera-eskari osoaz erasotzen diodana. Hain arrazoi irigarri honek jartzen nau sorkuntza osoaren aurka. Ezin dut bera ukatu luma-kolpe batez. Egia deritzodana, beraz, mantendu behar dut. Hain begien bistako agertzen zaidanari eutsi behar diot. Eta zer da gatazka honen, munduaren eta nire izpirituaren arteko zirrikitu honen sakonean datzana, nik horrexek dudak kontzientzia besterik? Hortaz, bera mantendu nahi badut, hori etengabeko kontzientziari zor zaio, beti berriztatuari, beti teink dagoenari. Horra hor, oraingoz behintzat, gorde behar dudana. Une honetan, absurdua, hain begi-bistako eta lortzeko hain zaila, gizon baten bizitzan sartzen da eta bere sorterrira berraurkitzen du. Une honetan ere, izpirituak oraino alde egin dezake ahalegin zoliaren errepide latz eta idorretik. Oraingoan berak eguneroko bizitzara darama. Hor "jende"<sup>20</sup> anonimoaren mundua berraurkitzen du, baina honez gero gizona horra bere jazarkuntzaz eta argikusmenaz itzuli da. Esperantza izaten desikasi du. Oraingo infernu hau, azkenean, bere erresuma du. Problema guztiek lehenagoko zorrotasuna hartzen dute berriro. Ebidentzia abstraktua formen eta koloreen lirismoaren aurretik alde egiten du. Gatazka izpiritualak haragitzen dira eta giza bihotzaren aterpe miserable eta ederra berraurkitzen dute. Horietako bat ere ez da ebatzi. Baina guztiak itxuraldaturik daude. Hil beharko al da, jauziaz ihes egin, bere neurrira ideien eta formen etxea berreraikiko ote? Ala, aitzitik, eutsiko al zaio absurduaren apostu urrakor eta miragarriari? Alderdi honi dagokionez, dagigun azken ahalegina eta atera ditzagun ondorio guztiak. Gorputzak, samurtasunak, sorkuntzak, ekintzak, giza noblezasunak, hortaz, beren lekua hartuko dute berriro mundu zentzugabe honetan. Gizakia, azkenean, absurduaren ardoa eta arduragabetasunaren ogia birkausituko ditu han, zeinez bere handitasuna elikatzen duen. Ekin diezaiogun oraino metodoari: kontua tematzea da. Bere bidearen halako puntu batetan gizaki absurdua galdetua da. Historiak ez du falta erlijiorik, ez eta profetarik ere, jainko gabekoak badira ere. Jauzi egiteko eskatzen zaio. Erantzun dezakeen bakarra hauxe da, ez duela ongi ulertzen, hori ez dela begi-bistakoa. Ez du egin nahi, hain zuzen, berak ongi ulertzen duena. Hori harrokeriazko bekatua dela seguratzeko zaio, baina berak ez du bekatuaren nozioa aditzen; infernua izan daiteke azken buruan, baina berak ez du irudimenik asko etorkizun pitxi hori nolakoa datekeen somatzeko; bizitza hilezina gal dezakeela, baina hori hutsala iruditzen zaio. Errua aitorterazi nahi liokete.

Bera errugabe sentitzen da. Egia esan, horixe besterik ez du sentitzen, bere errugabetasun erremediaezina. Horrek permititzen dio dena. Beraz, bere buruari eskatzen diona, berak dakienaz bakarrik bizitzea da, bera denaz konpondu eta ezer egiazko ez denik tartean sartzen ez uztea. Ezer ez dela holakoa erantzuten zaio. Baina hori behintzat segurtasuna da. Horrexekin du arazoa: jakin nahi du ea, ezeri deirik egin gabe, bizitzerik ba ote den.

\* \* \*

Orain suizidioaren nozioari hel diezaioket. Sentitu izan da jadanik zer nolako irtenbidea eskain dakioken. Puntu honetan problema alderantziz jarria da. Lehenagoko kontua zen ea bizitzak, bizitua izateko, zentzuren bat ukan behar ote zuen. Hemen ageri denez, aitzitik, zentzurik ez dukeelarik, hainbat hobeki bizitua izanen da. Esperientzia bat, patu bat bizitzea, bera oso-osoan onartzea da. Beraz, ez dugu patu hori biziko, absurdua dela jakinda, absurdu hori, kontzientziak eguargitan jarria, norbere aurrean mantentzeko behar den guztia eginez ezik. Bizi deneko aurkaritzaren osagaietako bat ukatzea, hari ihes egitea da. Jazarkuntza kontzientea abolitzea, problematik ihes egitea da. Etengabeko iraultzaren gaia gizabanakoaren esperientziaren barrura iragaten da. Bizitzea absurdua bizieraztea da. Hura bizieraztea, ororen gain, hari begiratzea da. Eurydike ez bezala, absurdua ez da hiltzen gibela ematen zaionean baizik. Filosofi jarrera koherente bakarretako bat, honela, jazarkuntza da. Gizakiaren eta beraren iluntasunaren arteko gatazka etengabea da berau. Ezinezko gardentasunaren eskakizuna da. Horrek mundua galderapean jartzen du bere segundu guztietan. Arriskuak gizakiari horrexerri heltzeko aukera ordezkazina eskaintzen dion bezala, jazarkuntza metafisikoak, halaber, esperientzia osoan zehar hedatzen du kontzientzia. Gizakiak bere buruaren aurrean duen presentzia da berau. Ez da heldu-nahia, bera esperantzagabea baita. Jazarkuntza hau ez da patu txundigarriaren segurtasuna besterik, lagun ukan behar lukeen etsipena kenduta.

Hementxe ageri da zein puntutaraino absurduaren esperientzia suizidiotik urruntzen den. Suizidioa jazarkuntzari darraiola pentsa daiteke. Ez da ordea holakorik. Ez baitu berak bere ondorio logikoa itxuratzen. Haren kontrakoa da prezeski, aurretik nahi duen onespenagatik. Suizidioa, jauziaren antzera, muga-mugako onartzea da. Dena ahitu da, gizakia bere historia esentzialean barnebiltzen da. Etorkizuna, bere etorkizun bakar eta ikaragarria dakusa eta bertara amiltzen da. Bere erara, suizidioak absurdua konpontzen du. Heriotza berera darama herrestan. Baina badakit, irauteko, absurdua ezin dela konpondu. Heriotzaren kontzientzia eta, aldi berean, gaitzespena den neurrian, suizidiotik iheska doa. Hori, azken pentsamenduaren muturraren puntan, hiltzera kondenatuak, ororen despitez, bere amilera zorabiagarriaren bazterrean bertan, zenbait metrotara somatzen duen zapata-lokarria da<sup>21</sup>. Hiltzera kondenatua, hain zuzen ere, suizidaren aurkakoa dugu.

Jazarkuntza honek bizitzari bere saria ematen dio. Existentzia baten luzera osoan hedaturik, bere handitasuna itzultzen dio. Begi-estalkirik gabeko gizakiak ez du ikuskizun ederragorik bera gainditzen duen errealitatearekin adimena burrukan antzematea baino. Giza harrotasunaren ikuskizuna paregabea da. Ez dute hor gaitzespenek zereginik. Izpirituak bere buruari diktatzen dion diziplina honek, ezerezetik abiatuz landuriko borondate horrek, aurrez aurre horrek zerbait ahaltsu eta bakan dute. Errealitate hau urritzea, zeinen gizatiartasunik ezak gizakiaren handitasuna egiten baitu, gizakia bera urritzea da. Ongi ulertzen dut, beraz, zergatik dena azaltzen didaten doktrinek, aldi berean, ahultzen nauten. Horiek neure bizitzaren zamaz arintzen naute, eta hori, halere, neuk bakarrik eraman behar dut. Abagadune honetan, ezin ulertuzkoa dut metafisika eskeptiko bat etsipenaren moralarekin bat etortzea.

Gaitzespen biok, kontzientzia eta jazarkuntza, etsipenaren aurkakoak dira. Giza bihotzean meneraezin eta grinatsu dagoen guztiak bere bizitzak ez bezala animatzen ditu. Kontua da abenikorik gabe hiltzea, eta ez gogo onaz. Suizidioa ezjakite modu bat da. Gizaki absurduak ezin du dena amaitu egin besterik, bere burua ere ahituz. Absurdua beraren mutur-muturreko tentsioa da, bakarkako ahaleginaz etengabeki mantentzen duena, ongi baitaki kontzientzia honetan eta egunez eguneko jazarkuntza honetan, berak bere egia bakarra aitortzen duela, erronka alegia. Hau lehen ondorioetako bat da.

Jarrera akordatu honetan baldin banago, zeinetan eriden den nozio batek aldean dakartzan ondorio guztiak (eta ez beste) ateratzen baititu, orduan bigarren paradoxa batekin egiten dut topo. Metodo honekin zintzo irauteko, ez dut zereginik bat ere askatasun metafisikoaren problemarekin. Gizakia aske ote den jakiteak ez nau interesatzen. Nik ezin dezaket senti neure askatasuna besterik. Horretaz ezin dut nozio orokorrik ukan, zenbait somatze argi baizik. "Berezko askatasuna"ren problemak ez du zentzurik. Hura, oso beste era batez, Jainkoarenari loturik dagoelako. Gizakia aske ote den jakin-nahiak ea ugazabarik ukan dezakeen jakitea eskatzen du. Problema honek absurdutasun berezia dakar, askatasunaren problema posible bihurtzen duen nozioak berak, aldi berean, hari zentzu guztia kentzen diolako. Izan ere, Jainkoaren aitzinean, askatasunaren problema baino, handiagoa baita gaizkiaren problema. Hautabidea ezaguna da: edo gu ez gara askeak, eta gaizkiaren erantzulea Jainko guztiahalduna da, edo gu aske eta erantzuleak gara, baina Jainkoa ez da guztiahalduna. Eskolen xehetasun guztiek ez diote ezer gehitu ez kendu paradoxa honen zorrotzasunari.

Horrexegatik ezin gal naiteke, nire gizabanako-esperientziaren barrutia gainditzen duenez gero, itzuri egiten zaidan eta bere zentzua galtzen duen nozio baten gorespen edo definizio soilean. Nik ezin dut ulertu goi-izaki batek eman liezadakeen askatasun hori zer izan litekeen. Hierarkiaren zentzua galdua dut. Askatasunaz ezin dut beste kontzepziorik izan presoak edo gizabanako modernoak Estatuaren barruan izan dezakeena baizik. Nik dazagudan bakarra izpiritu- eta ekintza-askatasuna da. Beraz, absurduak askatasun eternalerako aukera guztiak ezerezten badizkit, bestetik, ene ekintza-askatasuna ematen eta goratzen du. Esperantza- eta etorkizun-gabetze honek gizakiaren eskukotasuna handitzea esan nahi du.

Absurdua aurkitu baino lehen, eguneroko gizon arrunta bere xedeekin bizi da, etorkizunaren edo justifikazioaren arduraz (zeri edo nori buruz ez da baina kontua). Bere aukerak neurtzen ditu, geroagokoaz fidatzen da, bere erretiroaz edo seme-alaben lanaz. Bere bizitzan zerbait gida daitekeela uste du oraino. Egia esan, aske balego bezala ari da, gertakari guztiek askatasun horri kontraesaten badiote ere. Absurduaren ondoren dena kordokatua da. "Ni banaiz"elako ideia hau, orok zentzua balu bezala aritzeko dudak modua (bai eta, kasurako, ezerk ez duela zentzurik esan baneza ere), hau guzti hau, gerta daitekeen heriotzaren absurdutasunak gezurtatzen du era zorabiagarriaz. Biharamunaz pentsatzea, helburu bat jartzea, hobespenak izatea, honek guztionek aurretik askatasunean sinestea esan nahi du, batzutan geure buruari hura ez dugula nabaritzen esaten badiogu ere. Baina une horretan nik ongi dakit goi mailako askatasun hori, bere bakarrean egia bat oinarri dezakeen izateko askatasun hori, ez dela halakorik. Heriotza hor da, errealitate bakarra. Haren ondoan, jokoa amaitu da. Ez naiz, halaber, neure burua betikotzeko aske, esklabu baizik, eta batez ere iraultza eternalik izateko esperantzarik gabeko esklabu, mesprezioaz baliatzerik izan gabe. Eta iraultzarik eta mespreziorik gabe nork iraun dezake esklabu? Zentzu osoan, nolako askatasunik izan daiteke betierekotasunik gabe?

Baina aldi berean, gizaki absurduak honaino askatasun postulatu horri loturik egon dela aditzen du, horrexen ilusioaren gainean bizi zelarik. Nolabaiteko zentzuan, horrek behaztopo egiten zion. Bere bizitzak halako helburua zuela iruditzen zitzaion neurrian,

lortu beharreko helburuak eskatzen dizkion betebeharretara makurtzen zen, eta bere askatasunaren esklabu bilakatzen. Hortaz, nik ez nekike besterik egiten, izateko prestatzen ari naizen aita-familiakoak (edo ingeniariak edo herrien gidariak edo P.T.T.ko supernumerariak) eginen lukeena baino<sup>22</sup>. Uste dut hori izatea aukera dezakedala, eta ez beste zerbait. Egia da, hori konturatu gabe uste dudala. Baina aldi berean, inguratzen nautenen sinesteez neure postulatuari ere eusten diot, neure giza inguruaren aurreritziei buruzkoari (besteak hain daude seguru aske direla, eta humore on hori hain da kutsakorra!). Aurreritzi moral edo sozial guztietatik oso urrun bagaude ere, partez haiek pairatu beharra dago, eta haietako onenei dagokienez (aurreritzi onak eta txarrak baitira) norbere bizitza haietara moldatzen da. Horrela gizaki absurduak bera ez zela egiaz aske ulertzen du. Argiro mintzatuz, zerbait espero dudan neurrian, edo propio dudan egia batez, izateko eraren batez edo sortzeko moduren batez kezkatzen naizen bitartean, neure bizitza ordenatzen dudan edo horrekin berak zentzu bat baduela frogatzen dudan neurrian, hesiak sortzen ditut, horien artean neure bizitza hertsatuz. Guztiz desgogarakoak ditudan izpiritu eta bihotzeko funtzionari horiek bezalaxe egiten dut nik ere, zeinek, garbi dakusat orain, giza askatasuna seriozki hartu besterik egiten ez baitute. Absurduak argitu egiten nau puntu honi buruz: biharamunik ez dago. Hona hemendik aurrera nire askatasun sakonaren arrazoa. Bi gonbaraketa hartuko ditut hemen. Mistikoek, lehenengo eta behin, askatasuna aurkitzen dute beren burua ematean. Beren jainkoagan murgiltzean, haren erregelak onartzean haiek, beren aldetik, sekretuki aske bilakatzen dira. Beren gogara onarturiko esklabutzan lortzen dute berek burujabetasun sakona. Zer esan nahi du askatasun honek baina? Oroz gain, esan daiteke haiek beren buruekiko aske sentitzen direla, eta askeak baino gehiago, askatuak. Era berean, heriotzara oso-osorik makurturik ere (beroni absurdutasunik nabariena eritzirik), gizaki absurdua desloturik sentitzen da beragan mamitzen den arreta suhar hau ez den orotik. Erregela komunetik askatasuna dastatzen du. Filosofia existentzialaren abiaburuko gaiak beren balio osoa gordetzen dutela ageri da hemen. Kontzientziara itzultzea, eguneroko lotatik ihes egitea askatasun absurduaren lehen urratsak dira. Baina xedetan hartua predikazio existentziala da, eta berarekin jauzi izpirital hori, sakonean kontzientziazatik eskapatzen dena. Era berean (hau da ene bigarren gonbaraketa) Aintzinaroko esklabuak ez ziren beren buruen jabeak. Baina haiek erantzunkizunik sentitzen ez denean mamitzen den askatasun hori ezagutzen zuten<sup>23</sup>. Ba ditu, Herioak ere birrintzen duten baina batera askatzen duten patrizio-eskuak.

Hondorik gabeko segurtasun honetan amiltzea, hortik aurrera nor bere bizitzarekiko aski arrotz sentitu, bera aberasteko eta maitalearen miopiarik gabe zeharkatzeko, horra hor askapen baterako oinarria. Independentzia berri honek bukaera du, ekintzarako askatasun guztiek bezala. Ez du txekerik egiten betierekotasunaz. Baina askatasunaren ilusioak ordezkatzeko ditut, hiltzean gelditzen zirenak. Halako egunsenti sortu berri batez presondegiko ateak ireki zaizkion hiltzera kondenatuaren jainkozko eskukotasuna, ororen, salbu bizitzaren gar garbiaren, heriotzaren eta absurduaren, aurreko arduragabetasun hori, dira hemen, ongi senti daitekeenez, arrazoizko askatasun bakarraren oinarriak; giza bihotzak frogatzen eta bizi dezakeena. Hau bigarren ondorioa da. Gizaki absurduak, honela, unibertso irakin eta izoztua erdikusten du, gardena eta mugatua, zeinetan ez baita deus posible, baina dena aurretik emana baita, hori iraganda amiltzea eta ezereza direlarik. Orduan horrelako unibertsoan bizitzea eta hortik bere indarrak ateratzea, esperantza izateko ukoa eta kontsolazio gaberik bizitzeko lekukotasun tematia ere onar ditzake.

Zer esan nahi du baina, horrelako unibertsoan bizitzeak? Oraingo etorkizunaren aurreko arduragabetasuna eta eskaintzen den guztia ahitzeko grina besterik ez. Bizitzaren zentzuan sinesteak halako balio-mailaketa erakusten du, aukera bat, gure

hobespenak. Absurduan sinesteak, gure definizioen arauera, alderantzizkoa irakasten du. Baina horrek hemen gelditzea merezi du.

Ezeri deirik egin gabe bizitzerik ba ote den jakitea, hauxe da interesatzen zaidan gauza bakarra. Ez dut inondik ere eremu honetatik irten nahi. Bizitzaren aurpegi hau aurretik eman zaidalarik, horretara molda al naiteke? Izan ere, ardura berezi horren aurka, absurduan sinestea esperientzien nolakotasunaren ordeztu, zenbatekotasuna ezartzera dator. Bizitza honek absurduarenaz beste aurpegiarik ez duela neure buruari sinestertzat badiot, haren oreka bakarra ene jazarkuntza kontzientearen eta berak ihardukitzeen dueneko iluntasunaren arteko aurkaritza etengabearen mantentzen dela sentitzen badut, ene askatasunak, bere patu mugatuarekiko besterik, ez duela zentzurik onartzen badut, orduan aitortu behar dut kontua ez dela ahalik eta ongien bizitzea, ahalik eta gehien bizitzea baizik. Ez diot neure buruari galdetu behar hori arrunta ala nazkagarria, dotorea ala deitoragarria ote den. Behingoz bederen, balio-epaiak baztertu dira hemendik egintza-epaien fabore. Ikus dezakedanetik ondorioak ateratzea besterik ez zait gelditzen, hipotesia izan daitekeen ezer esatera ausartu gabe. Honela bizitzea onestu ez litzatekeela uste izanez gero, orduan egiazko onestasunak desonestu izatea aginduko lidake.

Ahalik eta gehien bizitzea; zentzu zabalean, bizitzeko erregela honek ez du ezer esan nahi. Zehaztu beharra dago. Hasteko, badirudi ez dugula nahikorik sakondu zenbatasunaren nozio honetan. Izan ere, horrek giza esperientziaren zati ederra azal dezake. Gizaki baten moralak edo haren balio-mailaketak ez dute zentzurik, berak metatu ahal izan dituen esperientzien kopuru eta ezberdintasunei esker ez bada. Izan ere, gaur egungo bizimoduaren baldintzek gizaki gehienei esperientzi kopuru bera gainjartzen diete, eta beraz esperientzia sakon berbera. Egia esan, gizabanakoaren berezko ekarria ere kontutan hartu beharra dago, berak "bere baitan" daramana. Baina nik ezin diot horri ezer eritzi, eta berriro ere ene erregela hori hurbileko ebidentziaz konpontzea da. Hortaz, badakusat moral komunaren berezko izaera ez datzala horrenbeste bera animatzen duten oinarrien garrantzia idealean, neurt daitekeen esperientziaren arauetan baizik. Gauzak pixka bat bortxatuta, grekoek beren aisiaren moralak zuten, guk geure zortzi ordutako lanegunena dugun bezala. Baina jadanik gizon batzuk, eta zenbait tragikoenetarik, esperientzia luzeagoak balio-taula hori alda dezakeela susmarazten digute. Egunerokoaren abenturazale hori irudikarazten digute, bere esperientzia mordo hutsaz marka guztiak gainditu (kirol hitz hau berariaz darabilt) eta horrela bere moral berezia irabaz lezakeena<sup>24</sup>. Urrun gaitezen, ordea, erromantizismotik eta galde degiogun buruari, soilki, ea zer esan nahi ukan dezakeen jarrerak honek aurrera, zernahi kostarik ere aurrera segi eta berak joko-erregelatzen hartzen duena hertsiki errespetatzeko prest dagoen gizakiarentzat.

Marka guztiak gainditzea, hasteko eta bakar-bakarrik, munduaren aurrean ahalik eta maizenik izatea da. Nola egin daiteke hau baina, kontraesanik eta hitz-jokorik gabe? Izan ere, alde batetik, absurduak esperientzia guztiak indiferenteak direla erakusten du, eta, bestetik, berak ahalik eta esperientzia gehienetara bultzatzen du. Orduan, nola ez egin gorago aipatu ditudan horrelako beste hainbeste gizakien antzera, hots, giza materia honetatik ahalik eta gehien eskaintzen digun bizimodua hautatu, handik, bestaldetik egotzi nahi omen litzatekeen balio-mailaketa sartuz?

Baina oraindik absurdua eta haren bizitza kontraesankorra ditugu irakasle. Izan ere, esperientzi kopuru hori gure bizitzako gorabeheren arauetako delat pentsatzean datza okerra, hura gure arauetako besterik ez denean. Hemen sinplista izan behar da. Urte-zenbateko bera bizi duten bi gizakiri, munduak beti ere esperientzia kopuru berbera eskaintzen die. Gure eskuetan dago horiez kontziente izatea. Norbere bizitza, norbere jazarkuntza, norbere askatasuna ahalik eta gehien sentitzea, horixe da ahalik eta gehien bizitzea. Zolitasuna errege den lekuan, alfer da balioen mailaketa. Izan gaitezen are

sinplista goak. Derragun, beraz, oztopo bakarra, "galtzeko den gauza" bakarra heriotza goiztiarra dela. Hemen iradokiriko unibertso hau ez da bizi, salbuespen etengabea den heriotzarekiko oposizioan ez bada. Hori dela eta, ezein sakontasunek, ezein emozioek, ezein grinak ez sakrifizioek ezingo lituzke gizaki absurduaren begietan berdinkide agertu (berak hala nahiko balu ere) berrogei urtetako bizitza kontzientea eta hirurogei urteetaraino hedaturiko zolitasuna<sup>25</sup>. Erotasuna eta heriotza, horra hor gizon absurduarearentzat erremediogabe direnak. Gizakiak ez du hautatzen. Absurdua eta berak aldean dakarren bizi-gehipena ez dira, beraz, giza borondatearen meneko, haren aurkakoa den heriotzaren meneko baizik<sup>26</sup>. Hitzak ongi pisatuz gero, zorte-arazo hutsa da. Hori onartu beharra dago. Bizitzaz eta esperientziaz beteriko hogeitaz urtek ezingo dute inoiz ordezkorik ukan.

Arraza hain zuhurrean izandako inkontsekuentzia aski pitxiaz, grekoen ustez, gazterik hiltzen ziren gizakiak jainkoen maiteak ziren. Eta hori ez da egia, aurretik, hauxe onartzen ez bada, jainkoen mundu irrigarrian sartzeak aldean pozik handiena behinbetiko galtzea dakarrela, alegia, sentitzekoa eta mundu honetan sentitzekoa. Oraina eta arima etengabe kontzientearen aurreko orainen jarraipena da gizaki absurduaren ideala. Baina ideal hitzak hemen soinu faltsua gordetzen du. Hori ez da beraren bokazioa ere, gizaki absurduaren arrazoiketaren hirugarren ondorioa baizik. Gizatiartasunik ezaren kontzientzia heritutik abiatuta, absurduari buruzko gogoeta giza jazarkuntzaren grinazko garretara itzultzen da bere bidearen amaieran<sup>27</sup>.

Honela, absurdutik hiru ondorio ateratzen ditut, neure jazarkuntza, neure askatasuna eta neure grina. Kontzientziaren joko bakarraz bizitzako erregela bihurtzen dut heriotzarako inbitazioa zena - eta suizidioari uko egiten. Dударik gabe, badakit egun hauetan zehar dabilen durundi gorra. Baina ez dut esatekorik, hitz bat baizik: hori beharrezkoa da. Nietzschek hauxe idaztean: "Argi ageri da zeruan eta lurlean den gauza nagusia obeditzea dela, luzaro eta norabide berean obeditzea: epe luzean zerbait aurkitzen da beragatik lur honen gainean bizitzea merezi duenik, adibidez bertutea, artea, musika, dantza, izpiritua, arrazoimena, itxuraldatzen duen zerbait, zerbait fin, zoro edo jainkotiar", berak taiu handiko moralaren erregela ilustratzen du. Baina, era berean, gizaki absurduaren bidea erakusten du. Sugarrari obeditzea, aldi berean, den gauzarik errazena eta zailena da. On da baina, gizakiak, eragozpenetan bere burua neurtuz, noizik behin burua juzka dezan. Hori egin dezakeen bakarra bera da.

"Otoitza, dio Alain-ek, pentsaeraren gaineko gaua da. -Baina izpirituak gaua aurkitu behar du" ihardesten dute mistikoek eta existentzialak. Noski, baina ez begi itxien pean eta giza borondate hutsez jaiotzen den gau hori- gau ilun eta hertsia, izpirituak, bertan galtzeko, sortua. Gau bat aurkitu behar badu, biz zolitasuna gordetzen duen desesperantzararena, gau polarra, izpiritua beilan duena, hortik, seguraski, klartasun zuri eta oso hori altxa dadin, adimenaren argitan gauza bakoitza marratzen duena. Orobatasunak ulermen suharra aurkitzen du. Kontua, beraz, ez da jauzi existentziala epaitzea. Mendez mende giza jarrerak egindako freskoaren erdian berak bere maila berreskuratzen du. Ikuslearentzat, kontzientea baldin bada behintzat, jauzi hori ere absurdua da. Paradoxa hau konpondu uste duen neurrian, osorik berreraikitzen du bera. Alde horretatik hunkigarria da. Alde horretatik gauza bakoitzak bere lekua hartzen du berriro, eta mundu absurdua bere oparotasun eta ugaritasunean birsortzen da.

Baina gelditzea txarra da, ikusteko era bakarraz kontentu izatea eta kontraesanik gabe gelditzea zaila, hauxe baita, beharbada, era izpiritual guztietarik sotilena. Aurrekoak pentsatzeko modu bat definitu besterik ez du egin. Orain, bizi egin behar da.

GIZAKIA

ABSURDUA

Stavroginek sinesten badu, ez du uste sinesten duela. Sinesten ez badu, ez du uste ez duela sinesten.

Deabruak.

E

ne arloa, dio Goethek, denbora da". Hona hemen hitz absurdua. Zer da, beraz, gizaki absurdua? Betierekoa ukatu gabe, horren alde ezer egiten ez duena. Ez du arrotz nostalgia, ez. Baina kuraia eta arrazoiketa ditu nahiago. Lehenak ezeri dei egin gabe bizitzen eta duena askiesten irakasten dio, eta bigarrenak bere mugen berri ematen dio. Bere azken askatasunaz jabeturik, etorkizunik gabeko jazarkuntzaz eta kontzientzia ahikorrak konturaturik, bizitzeko duen denboran bere abenturari darraio. Han du arloa, han bere ekintza, beretik kanpoko epaiketa guztietatik ateratzen duena. Haren aburuz, bizitza luzeagoak ezin esan dezake beste bizitza bat. Hori desonestua litzateke. Ez naiz hemen mintzo betierekotasun irigarri horretaz ere, ondorengotasuna deituz. Madame Roland horretaz fidatzen zen. Zuhurtziarik ez horrek bere lekzioa izan du. Ondorengotasunak gogoz aipatzen du hitz hori, baina epaitzea aherentz. Ondorengotasunak ardurarik ez Madame Roland-ez.

Ezinezkoa da moralaz luzeki mintzatzea. Ikusiak ditut jende batzu gaizki aritzen moral handiarekin, eta egunero konturatzen naiz onestutasunak ez duela erregelarik behar. Gizaki absurduak onar dezakeen morala bat besterik ez da, Jainkoagandik bereizten ez dena: diktatzen dena. Baina berau Jainko horrengandik kanpoan bizi da, hain zuzen. Gainerako moralei doakienez (eta inmoralismoa ere hemen sartzen dut) gizaki absurduak ez dakuski hor justifikazioak besterik, eta berak ez du ezer justifikatu behar. Hemen haren errugabetasunaren oinarritik abiatzen naiz.

Errugabetasun hori beldurgarria da. "Dena da zilegi" oihu egiten zuen Ivan Karamazov. Horrek ere absurdu-usaina du. Baina era arruntaz ulertzen ez bada. Ez dakit ongi azpimarratua ote den: ez da askapen edo alaitasun-oihua, konturatze mingotsa baizik. Bizitzari bere zentzua emanen liokeen Jainko bat badelako segurtasunak erakargarritasunean aise gaintitzen du gaizki egitearen botere zigorgabea. Aukera, hortaz, ez litzateke zaila izanen. Baina ez dago aukerarik eta, beraz, mingostasuna hasten da. Absurduak ez du askatzen, lotzen baizik. Berak ez du egintza guztietarako baimenik ematen. Dena zilegi izateak ez du esan nahi, ez dagoela ezer galerazirik. Absurduak egiten duen gauza bakarra, bere egintzen ondorioei baliokidetasuna ematea da. Ez du krimena gomendatzen, hori umekeria bailsateke, baina bai damuari bere alferrekotasuna bihurtzen. Era berean, esperientzia guztiak indiferenteak baldin badira, eginbidearena beste edozein bezain zilegi da. Bertutetsua apeta ere izan daiteke.

Moral guztiak egintza batek dituzkeen ondorioek bera zilegiztatzen edo ezabatzen dutelako ideian oinarritzen dira. Absurduak blaituriko izpirituak segida horiek lasaitasunaz kontsideratu beharra dagoela besterik ez du juzkatzen. Bera ordaintzeko prest dago. Bestela esan, bere ustez erantzulerik baldin bada, ez dagoke errudunik. Gehienik ere, etorkizuneko egintzak oinarritzerakoan, bere esperientzia iraganaz baliatuko da. Denborak denbora bizieraziko du, eta bizitzak bizitza du zerbitzatuko. Arlo mugatu eta batera ahalbidez asebate horretan, guztia berez, beraren zolitasuna salbu, ustegabekoa iruditzen zaio. Zein erregela irten liteke, hortaz, desarrazoizko ordenu honetatik? Ikasgarri irudi dakioken egia bakarra ez da inondik ere formala: gizakiengan mamitzen eta garatzen da. Izpiritu absurduak bere arrazoiketaren azken muturrean bila ditzakeenak, hortaz, ez dira erregela etikoak, giza bizitzen ilustrazioak eta arnasa baizik. Ondoko imajinak horietarikoak dira. Horiek arrazoiketa absurduari darraizkio, beroni bere jarrera eta beren berotasuna emanaz.

Beharrezkoa al dut ideia hau garatzea, hots, eredu bat ez dela nahitaez jarraitu beharreko eredu (are gutxiago mundu absurduan kokatua baldin bada), eta, beraz, ilustrazio horiek ez direla ereduagarriak? Horretarako bokazioa izanik ere, irigarria da, proportzio guztiak gordeta, Rousseau-ren eskribuetatik lau hankaz ibili behar dela, edo eta



Nietzschegandik norbere ama basaki tratatu behar delako ondorioa ateratzea. "Absurdu izan behar da", idazten du autore moderno batek, "ez da inozoa izan behar". Agertuko diren jarrerak, hortaz, ezin eskura dezakete beren zentzu osoa, berorien aurkakoak kontutan hartzean izan ezik. Postako supernumerari bat eta konkistatzaile bat berdinak dira kontzientzia bera baldin badute. Ikuspegi honetatik esperientzia guztiak indiferenteak dira. Badira, horietan, gizakia zerbitzatzen dutenak eta kalte egiten diotenak ere. Zerbitzatu egiten dute, bera kontzientea baldin bada. Bestela, horrek ez du ardura: gizaki baten porrotek ez dituzte zirkunstantziak epaitzen, bera baizik.

Soilki beren ahitzea eta ez beste helbururik duten gizakiak aukeratzen ditut, edo nik, haien orde, ahitzen direlako kontzientzia dudak kasuan direnak. Hori ez doa urrunago. Oraingoz ez dut mintzatu nahi honetaz ez bada, hots, pentsaerak bezala, bizitzak ere etorkizunez gabeturik dauden munduaz. Gizakiari lan eragiten dion eta iharrosten duen guztiak esperantza darabil. Gezurrik ez darabilen pentsaera bakarra, hortaz, pentsaera antzua da. Mundu absurduan, nozio edo bizitza baten balioa haren antzutasunaz neurtzen da.

## DON JUANISMOA

M

aitatzea aski balitz, gauzak errazegiak lirateke. Zenbat eta maiteago, absurdua are sendoago. Don Juan ez da emakumez emakume joaten, maitasunik falta duelako. Irrigarria da bera maitasun osoaren eske ari den iluminatu baten antzera aurkeztea. Baina berak guztiak barnebultzada berberaz eta aldi bakoitzean bere izaera osoaz maite ditu, eta horrexegatik, emaitza eta berretze hori behin eta berriro errepikatu behar du. Hori dela eta, emakume bakoitzak espero du hari beste inork inoiz eman ez diona berak ekartzea. Aldi bakoitzean haiek oker daude erabat, eta lortzen duten bakarra errepikatu beharra hari sentieraztea besterik ez da. "Azkenean, diotso haietako batek, maitasuna eman dizut". Harritzekoa al da, hortaz, Don Juanek horri barre egitea?: "Azkenean? ez, dio berak, aldi bat gehiago baizik". Ala gutxitan maitatu beharra al dago, maitasun handia izateko?

Triste al dago Don Juan? Hori ez da sinestekoa. Kronikara doi-doia joko dut. Irribarre hori, garaipenaren ozarkeria, pinpatze hori eta teatrozaletasuna, hori argi eta alaia da. Izaki osasuntsu orok ugaltzera jotzen du. Halaxe Don Juan ere. Baina, gainera, tristeek hala izateko bi arrazoi izaten dituzte: ez dakite edo esperoan daude. Don Juanek badaki eta ez du esperantzarik. Gogora dakarzkigu berak beren mugak ezagutzen dituzten artista horiek, haiek sekula gainditu gabe, beren izpiritua kokatzen den behin-behineko tarte horretan maisuen trebetasun miresgarria dutenak. Horrexetan da jeinua, izan ere: bere mugak ezagutzen dituen adimena izatean. Heriotza fisikoaren mugaraino, Don Juanek ez daki tristuraren berri. Dakien unetik, haren irribarre lehertu eta dena barkarazten du. Tristeia espero zuen garaian izan zen. Gaur, emakume honen ahoan zientzia bakarraren zapore mingots eta sendagarria aurkitzen du. Mingotsa? Ozta-ozta: beharrezko akats hori, zoriona sentikor bihurtzen duena!

Inozakeria handia da, Don Juanengan Ekklesiastesaz elikaturiko gizona ikusten saiatzea. Izan ere, harentzat ezer ez da banalaria, beste bizitza baten esperantza izan ezik. Frogatu ere egiten du hori, bizitza hori zeruaren beraren aurka jokutzen duenez gero. Gozamenean galduriko nahikundearen dolua, ezintasunaren topiko hori ez du bere. Hori on du Faust-ek, Jainkoagan deabruari burua saltzeko adina sinesten baitzuen. Don Juanen aburuz arazoa errazagoa da. Molinaren "Burladoreak" infernuko mahatxuei beti honela erantzuten zien: "Epe aski luzea ematen didazu!". Heriotzaren ondotik datorkeena ezteusa da, eta a zer nolako egun-segida luzea bizirik egoten dakienarentzat! Faustek mundu honetako ondasunak eskatzen zituen: zorigaitzeko hark ez zuen eskua luzatzea besterik. Hori jadanik bere arima saltzea zen, bera alaitzen ez zekielako. Alderantziz, asetasuna agintzen du Don Juanek. Emakume bat uzten badu, hori ez da inondik ere bera jadanik nahi ez duelako. Emakume eder bat beti izaten da nahigarria. Baina berak beste bat nahi du, eta hori ez da gauza bera.

Bizitza honek barrua asebetetzen dionez gero, ezer ez txarragorik berau galtzea baino. Ero hori jakintsu handia da. Baina esperantzatik bizi diren gizakiak gaizki moldatzen dira unibertso honetan, non ontasunak eskuzabaltasunari, gozotasunak gizon-ixiltasunari eta komunioak zolitasun bakartiari lekua uzten dieten. Eta guztiak, hauxe esateko: "Ahula, idealista edo saindua zen". Iraintzen duen handitasuna gutxietsi beharra dago.

\* \* \*

Don Juanen mintzaldiak nahikoa haserre sorterazen du (edo irri gaizkide hori, berak miretsia beheratzen duena) eta emakume guztientzat balio duen esaldi berberorrek ere bai. Baina pozaldien kopuruaren bila dabilenarentzat, efikazia besterik ez da kontutan hartu behar. Zertarako gehiago nahas kontrazeinuko hitzak, behin beren balioa erakutsi eta gero? Inork, ez gizonak ez emakumeak ez ditu entzuten; haiek esaten dituen boza da entzuten dena. Horiek erregelak dira, konbentzioa eta gizabidea. Esaten dira, eta

ondoren garrantzizkoena egiteko dago. Don Juan jadanik horretarako prestatzen da. Zergatik jarriko dio bere buruari moral-problema bat? Hau ez da Milosz-en Mañara bezala, ez du bere burua galbidean jarriko saildu izateko xedeaz. Infernua, haren ustez, probokatzen den zerbait da. Jainkoaren haserreari ez dagokio erantzun bat besterik, giza ohorea alegia: "Nik ohorea dut, diotso komendadoreari, eta neure promesa betetzen dut, zalduna naizelako". Baina hartaz inmoralista bat egin nahi izatea ere errakuntza handia litzateke. Ikuspegi honetatik bera "mundu guztia bezalakoa" da: bere sinpatiarene edo antipatiaren moralak du. Ez dago Don Juan ongi ulertzerik, berak arruntki sinbolizatzen duenarenari erreferentzia egiten ez bazaio: ohizko seduzitzailea eta gizon emakoaia.

Ohizko seduzitzailea da bera<sup>28</sup>. Alde honetatik izan ezik, bera kontzientea da, eta horrexegatik absurdua. Zoli bilakaturiko seduzitzailea, ordea, ez litzateke horregatik aldatuko. Seduzitzea du bere egoera. Elaberrietan baino ez da inor aldatzen edo hobera egiten. Baina esan daiteke ez dela ezer mutatu eta aldi berean dena eraldatu dela. Don Juanek eskenatokian sartzen duena zenbatasunaren etika da, sailduak ez bezala, beronek nolakotasunari hoberizten baitio. Gauzen zentzu sakonean ez sinestea, horixe da gizaki absurduari bereziki doakiona. Aurpegi bero edo miretsi horiek banan-banan aztertzen, biltzen eta erre egiten ditu. Berarekin doa denbora. Gizaki absurdua denboratik urruntzen ez dena dugu. Don Juanek ez du pentsatzen emakumeak "bildumatzea". Haien kopurua agortu egiten du eta haiekin batera bere bizitzeko aukerak ere. Bildumatzea norbere iraganetik bizitzeko gai izatea da. Baina berak dolua baztertzen du, esperantza izateko beste era hori. Ez daki erretratuei begiratzen.

Hortaz, berekoia al da? Bere erara, zalantzarik ez. Baina hor ere, ulertu beharra dago. Badira bizitzeko eginak eta maitatzeko egin direnak ere bai. Don Juanek, bederen, horixe esanen luke gogoz. Baina hori lasterbide bat izanen da, berak aukera dezakeenez. Izan ere, hemen aipatzen den maitasuna betierekotasunaren ilusioez paratua da. Grinaren berezilari guztiek irakasten digutenez, ez da betiereko maitasunik, gaitzetsia ez bada. Burrugarik ez den lekuan ez da grina handirik. Horrelako maitasunak amairik ez, azken kontraesanean izan ezik, heriotzan hain zuzen. Werther izan behar da, ala ezer ez. Hor ere, suizidatzeko anitz modu dago, eta horietako bat buru-emate osoa da, eta norbere pertsonaz ahanzteak. Don Juanek, beste edozeinek bezala, badaki hori zirraragarria izan daitekeela. Baina garrantzitsuena han ez dagoela dakiten bakarretakoa da bera. Ongisko daki: baliteke maitasunak beren bizitza pertsonaletik erabat desbideratzen dituen pertsonak aberastuak izatea, baina, inolako zalantzarik gabe, ez die onik ekartzen horien maitasunak aukeratu dituenen. Ama batek edo emakume grinatsu batek nahitaez bihotz idorra daukate, mundutik desbideratua delako. Sentimendu bakarra, izaki bakarra, aurpegi bakarra, baina dena irentsia da. Bestelakoa da Don Juan astintzen duen maitasuna, eta berori askatzailea. Aldean munduko aurpegiera guztiak dakartza, eta bere dardara burua hilkorra duela ezagutzetik datorkio. Don Juanek ezer ez izatea aukeratu du.

Harentzat, kontua argi ikustea da. Guk maitasuna deritzogu halako izaki batzurekin lotzen gaituenari, talde-ikuskeraren erreferentziaz, hor liburuek eta legendek erantzunkizuna dutelarik. Baina maitasunaz, nik ez dazagut nahikundez, gozotasunez eta adimenez eginiko nahaste hori besterik, halako izakiarekin lotzen nauena. Osagai hori ez da berdina beste batengan. Ez dut eskubiderik esperientzia horiek guztiok izen berberaz estaltzeko. Horrela guztiak jestu berekin erabiltzeko beharrik ez dut. Gizaki absurduak hemen ere aniztu egiten du bateratzerik ez duena. Horrela izateko era berria erideten du, bera askatzen duena, gutxienez inguratzen zaizkionak ere askatzen dituen neurrian. Ez dago maitasun eskuzabalik, aldi berean, bere burua iragankor eta bakarria dela dakiena ez bada. Horra hor heriotza eta birpizte horiek guztiok, Don Juani

bizitzaren azaua moldatzen diotenak. Horixe da berak emateko eta bizierazteko duen era. Epaikizun uzten dut berekoikeriaz mintzatzerik ba ote den hor.

\* \* \*

Pentsatzen ari naiz orain Don Juan gaztigatua izatea nahi duten guztiengan. Beste bizitza batetan ez eze, hemengo honetan ere bai. Burura datozkit Don Juan zahartuari buruzko kontu, legenda eta irri horiek guztiok. Baina Don Juan prest dago horretarako. Gizaki kontzienteak zahartzaroa eta beronek iragartzen duena ez ditu ustegabeak. Zehazki, kontziente da, baina soilki haren izugarrikeria bere buruari ezkutatzen ez dion neurrian. Ba omen zen Athenasen tenplu bat, zahartzaroari kontsokratua. Hartara haurrak eramaten omen ziren. Don Juani dagokionez, zenbat eta haren lepotik irri gehiago egin, are nabarmenagoa du figura. Horrekin erromantikoek prestatu zioten itxurari uko egiten dio. Don Juan nahigabetu eta urrikgarri horren lepotik ez du inork barre egin nahi. Gupida zaio, zeruak berak berrerosiko al du? Baina ez da hori. Don Juanek erdikusten duen unibertsoan, irrigarri izatea ere sarturik dago. Berak normalizat lekuske gaztigatua izatea. Jokoaren erregela da. Eta hortxe datza bere eskuzabaltasuna, jokoaren erregela osorik onestean. Baina berak ba daki arrazoia duela eta kontua ezin daitekeela gaztigatua izan. Patua ez da zigorra.

Horixe du krimena, eta zein ongi ulertzen den nola betierekoaren gizonak beraren aurka gaztigatua eskatzen duten! Ilusio gabeko zientziaren zain dago, haiek profesatzen duten guztia ukatuko duena. Maitatu eta eduki, konkistatu eta agortu, horra hor ezagutzeko duen modua. (Ba du zentzurik Eskrituraren gogoko hitz horrek, maitatzeko egintzari "ezagutzea" deitzen diona). Bera da, besteren esanei kasu egiten ez dien neurrian, haien etsairik gaiztoena<sup>29</sup>. Kronikari batek kontatzen duenez, egiazko "Burladorea" frantziskotarren eskuetan asasinaturik hil omen zen, horrela "Don Juanen inpietate eta gehiegikeriei akabua eman nahiz, hark jaiotzez zuen goi-mailak zigorgabe uzten zituen z gero". Ondoren zeruak tximistaz kiskali zuela esan omen zuten. Inork ez du amaiera xelege horren frogarik agertu. Inork ez du, ordea, alderantzizkorik ere frogatu. Baina hori egiantzekoa ote den galdetu ere egin gabe, hori logikoa dela erantzun dezaket behinik behin. Hemen "jaiotze" berba azpimarratu nahi dut, eta hitzekin jolastu: bizi izanez seguratzten zuen bere errugabetasuna. Heriotzatik heldu zaio, hortaz, errua, honez gero legendazkoa.

Zer besterik esan nahi du harrizko komendadore horrek, estatua hotz horrek, pentsatzera ausartu den odola eta zolitasuna zigortzeko mugimenduan jarriak? Betiereko Arrazoimenaren botere guztiak, ordenarenak, moral unibertsalarenak, Jainko haserrekor baten handitasun arrotz guztia, harengan laburbilduak dira. Harri erraldoi eta arimagabe horrek Don Juanek betiko ukatu dituen ahalmenak sinbolizatzen ditu, besterik ez. Baina komendadorearen misioa hantxe gelditzen da. Tximist-ostotsak deituak izan direneko zeru faltsura bihur daitezke berriro ere. Egiazko tragedia haiez landa jokatzen ari da. Ez, Don Juan ez da harrizko esku baten pean hil. Gogoz sinesten dut legendako balentrian, zentzu gabeko barre-algara horretan, izaterik ez duen jainko bat probokatzen duen gizon sano batek egindakoan. Baina, batez ere, uste dut arrats horretan, Don Juan Anaren etxean zain zegoenean, komendadorea ez zela etorri, eta fedegabeak, gauerdia pasa eta gero, arrazoia dutenen mingostasun lazgarria sentitu behar izan zuela. Are gogo handiagoz onesten dut haren bizitzaren beste kontakizun hori, erretiraturik, komentuan amaitu zuela dioena. Kontua ez da, bere alderdi lekzio-emaileak egiantza duelakoan, istorio hori onartzea. Nolako babesa eskatu behar Jainkoari baina? Horrek gehiago dirudi absurduaz erabat blaituriko bizitza baten ondorio logikoa, biharamunik gabeko bozkarioetarantz makurturiko existentziaren biluztasun basatia. Gozamina hor asketismoan bukatzen da. Ulertu behar da, horiek biluztasun beraren aurpegi biak bezala izan daitezkeela. Zein irudi opa daiteke izugarriagorik: bere gorputzak traditzen duen

gizon batena, eta garaiz hila ez delako, bukaerari itxaronez komedia ahitzen duena, aurrez aurre berak adoratzeko ez duen jainko horrekin, hura zerbitzatuz bizitza zerbitzatu duen bezala, hutsaren aurrean belaunik, bokantzarik gabeko zerurantz besoak zabalik, zeru horrek sakontasunik ere ez duela jakinda.

Hortxe dakusat nik Don Juan, mendiska baten gainean galduriko monastegi espainol horietako baten gelan sartua. Eta ezeri behatzekotan, ez die ihesiz joandako maitasun iheskorren mamuei behatzen, baina, agian so egiten dio, leihaska kiskalgarri batetik, arima gabeko herri zoragarri den Espainia horretako lautada ixilen bati, hartan bere burua ezagutuz. Bai, irudi malenkoniatsu eta distirant honetan gelditu beharra dugu. Azken amaiera, haren zain egon arren sekula desiratzen ez duguna, azken amaiera hori, mespreziagarria da.

## KOMEDIA

"I

kuskizuna, dio Hamletek, harrapagailu horrexekin atzemanen dut nik erregeren kontzientzia". Atzeman ongi esana da. Izan ere kontzientzia arin doa edo atzera egiten du. Airean harrapatu beharra dago, bere buruari begirada iheskor bat egiten dion une bereizgaitz horretan. Eguneroko gizakiak ez du atzeraturik ibiltzeko gogo handirik. Orok bestetara bultzatzen du. Baina aldi berean, ezer ez zaio gehiago interesatzen bere burua baino, batez ere bera izan litekeenari dagokionean. Hortixek datorkio teatrozaletasuna, ikuskizunetarako gogoa, hor anitz patu proposatzen zaizkiolako, horietatik poesia eskuratuz, horregatik mingostasuna sufritu gabe. Han, bederen, gizaki inkontzientea ezagutzen da, eta berak presaka segitzen du ez daki zer nolako esperantzarantz. Gizaki absurdua hori amaitzen den lekuan hasten da, jokoa miresteari utzita, izpirituak horra sartu nahi duen tokian. Bide horietan guztiotan barna abiatzea, beren ezberdintasunean sentitzea, horiek jokatzeko da bereziki. Ez diot nik aktoreak, oro har, dei horri obeditzen diotenik, ez eta gizaki absurduak direnik ere, baina beren patua patu absurdua da, bihotz argikuslea seduzi eta erakar lezakeena. Hau azaldu beharra dago, honi darraiona kontrazentzurik gabe ulertu ahal izateko.

Aktorea iraungikorraren gaineko erregea da. Gloria guztietarik, harena da, dakigunez, iragankorrena. Elkarriketan behintzat, horixe esaten da. Baina gloria guztiak dira iragankorrak. Siriusen ikuspuntutik<sup>30</sup> Goetheren obrak hamar mila urte barru hautsetan izanen dira eta haren izena ahantzirik. Arkeologo batzuk, beharbada, gure garaiko "lekukotasunak" aztertuko dituzte. Ideia hau beti izan da aberasgarri. Ongi hausnartuz gero, horrek arduragabetasunean aurkitzen den noblezia sakonean biltzen ditu gure ihardukeriak. Horrek gure kezak batez ere segurenera gidatzen ditu, hots, berehalakora. Gloria guztietarik gutxienik engainatzen gaituena bizi duguna da.

Hortaz, aktoreak zenbatu ezineko gloria hautatu du, kontsokratzen eta sentitzen dena. Egunen batez gauza guztiek hil behar dutenez gero, bera da ondoriorik onena ateratzen duena. Aktoreak arrakasta lortzen du edo ez du lortzen. Idazleak esperantza gordetzen du, haintzat hartua ez bada ere. Uste du bere obrak bera izan zenaren lekuko izanen direla. Aktoreak, onenean ere, bera izan zenetik, argazki bat utziko digu eta ez besterik; haren keinu eta ixiltasunak, haren hats laburra edo haren maitasunezko arnasa ez dira gureganaino helduko<sup>31</sup>. Haren ezaguna ez izatea, ez jokatzeko da, eta ez jokatzeko ehun aldiz hiltzea da, hark bizieraz edo birpiz zitzakeen izaki guztiekin batera.

Zer du harrigarririk gloria iraungikorra, sorkaririk iragankorrenen gainean eraikia, aurkitzeak? Aktoreak hiru ordu ditu Iago, Alceste, Phedro edo Gloucester izateko. Iraganbide labur horretan, jaio eta hilerazten ditu berrogeita hamar metro koadrotako taulatuaren gainean. Ez da inoiz absurdua hain ongi eta hain luzaro azaldu. Bizitza miresgarri horiek, patu bakar eta oso horiek, paretartean eta zenbait ordutan hazi eta amaitzen direnak, zein nolako laburpena izan daiteke argigarriagoa? Behin eskena bukatu ondoren, Segismundo ez da gehiago ezer. Bi ordu geroago, hirian afaltzen ikusten dugu. Gerta daiteke, hortaz, bizitza ametsa izatea. Baina Segismundoren ondoren beste bat dator. Zalantzaz minduriko heroiak bere mendekuaren atzetik orroaka ari den gizonaren lekua hartzen du. Honela mendeak eta izpirituak zeharkatuz, gizakia, izan daitekeen bezala eta den bezala, imitatzean, aktorea beste pertsonaia absurdu horrekin elkartzen da, bidaiariarekin alegia. Haren antzera, horrek zerbait agortu eta gelditu gabe ibiltzen da. Denboran zeharko bidaiaria da eta, onenen kasuan, arimek ehizaturiko bidaiaria. Zenbatasunaren moralak elikadurarik aurkitzekotan, aparteko eskena honetan ukan dezake. Zaila da aktoreak bere pertsonaietatik onura zein neurritan hartzen duen esatea. Baina garrantzia ez datza hor. Jakin behar dena, soilki, hau da, ea bera zein puntutaraino identifikatzen den bizitza ordezkazekin horiekin. Izan ere, inoiz

gertatzen denez, berak aldean daramatza, eta haiek jaio ziren denbora eta tokia pixka bat gainditzen dute. Aktorea laguntzen dute, berau ez baita oso erraz urruntzen bera izan den izakitik. Batzutan, bere edalontzia hartu behar duenean, Hamletek kopa altxatzean eginiko jestua bera egiten du. Ez, urruntasuna ez da hain handia, berak bizierazten dituen izakietatik aldentzeko. Hortaz, argi eta oparo erakusten du, hilerio eta egunero, egia emankor hori, hots, ez dela mugarik gizakiak izan nahi duenaren eta benetan denaren artean. Itxurak izakia zenbatetaraino egiten duen, horixe da berak erakusten duena, beti ere ahal den ongienik antzaldatur. Izan ere, hori bere artea du, besterik gabe plantak eta itxurak egitea, bereak ez dituen bizitzetan ahalik eta gehien sartzea. Bere ahalegina amaitzean, bokazioa argitzen zaio: bihotz-bihotzez ezer ez izaten edo anitz izaten saiatzea. Bere pertsonaia sortzeko aurretik jartzen zaizkion mugak zenbat eta hertsiago, eta hainbat du talentua beharrezkoago. Hiru ordutan bere gaurko aurpegipean hilko da. Hiru ordutan ezohizko patua sentitu eta adierazi beharra dauka. Horri burua galdu burua berraurkitzeko esaten zaio. Hiru ordu horietan irteerarik gabeko bidearen azkeneraino heltzen da, besaulkietako gizakiak, hartan ibiltzeko, bizitza osoa ematen duen artean.

Iraungikorraren mimoa delarik, aktorea ez da aritzen, ez eta hobatzen ere, itxuran ez bada. Teatroaren konbentzioaren arauera bihotza ez da agertzen eta adierazten, keinuez eta gorputzaz besterik -edo ahotsaz, berau gorputzarena bezainbat arimarena izanik. Arte honen legeak dena haunditzea eta haragitan mamitzea eskatzen du. Eskenaren gainean maitatu behar balitz, maitatzen den bezala, bihotzaren ahots ordezkazekin horrekin baliatu, eta begiratu, behatzen den bezala, gure mintzaira zifraturik legoke. Hor ixiluneak ulertetarako behar dira. Maitasunak boza goratzen du eta gelditasuna bera ere ikusgarri bilakatzen da. Gorputza errege da. Horretarako gogoa duen guztia ez da "teatral" izaten eta hitz horrek, okerki gaitzetsiak, estetika eta moral oso bat estaltzen ditu. Gizakiaren bizitzaren erdia hitz-erdika mintzatzen pasatzen da, burua alboratzen eta ixilik egoten. Aktorea hor nahi ez den sarkina da. Arima kateatu horren lilura altxatzen du berak, eta grinek, azkenik, beren eskenaren gainera laster egiten dute. Keinu guztietan mintzo dira, eta ez dira bizi oihuen bitartez baizik. Horretara, aktoreak bere pertsonaiak erakusketarako moldatzen ditu. Haien irudia edo haien eskultura egiten du, haien irudimenezko itxuran sartu eta haien fantasiei bere odola ematen die. Esan beharrik ez, teatro nagusiaz mintzo naiz, aktoreari bere xede erabat fisikoa betetzeko aukera ematen dionaz. Ikusazue Shakespeare. Teatro horretan lehenbiziko mugimendutik gorputzaren furfuriek gidatzen dute dantza. Horiek dena azaltzen dute. Horiek gabe, guztia eroriko litzateke. Lear erregea ez litzateke inoiz zorotasunak ematen dion elkarrikuste horretara joanen, Cordelia atzerriratzen eta Edgar kondenatzen duen jestu basatia aurretik izan ez balitz. Zuzen da, beraz, tragedia hau erotasunaren zeinupean garatzea. Arimak deabrua eta berauen biribilketari eskainiak dira. Lau ero baino gutxiago ez behintzat, bata lanbidez, bestea borondatez, azken biak oinazez: lau gorputz desordenatu, lau begitarte esanezin, egoera berekoak.

Giza gorputzaren eskala bera ez da aski. Maskara eta koturnoak, makilaia, aurpegia bere oinarritzko elementutan urritzen eta nabarerazten duena, jantzia, gehitzeko eta sinpletzeko, unibertso horrek oro sakrifikatzen dio itxurari, eta begirako besterik ez da egin. Mirari absurdu batez, jakintza gorputzak dakar oraindik. Ez nuke behin ere Iago<sup>32</sup> ulertuko, haren papera jokatzuk baizik. Entzun arren, ez dut, halere, bera hartzen, dakusadan unean izan ezik. Pertsonaia absurdutik, ondorioz, aktoreak monotonia du, zilueta bakar eta burugogor hori, arrotz eta batera etxetiarra, bere heroi guztietan zehar pasearazten duena. Hor ere teatro-lan nagusiak tonu-batasun hau zerbitzatzen du<sup>33</sup>. Aktoreak baina, hortxe du kontraesana: berbera eta, halere, hain ugari eta ezberdin, hainbeste arima, gorputz bakarrean laburbildurik. Baina hori kontraesan absurdua bera

da, dena erdietsi eta dena bizi nahi duen gizabanako hori, alferreko saio hori, inora gabeko setakeria hori. Beti kontraesaten dena, ordea, bere baitan batu egiten da. Gorputza eta izpiritua biltzen eta elkar besarkatzen duten tokian da bera, hor bigarrena, bere porrotez nekaturik, bere aliaturik zintzoenagana itzultzen delarik. "Eta bedeinkatuak izan bitez, dio Hamletek, odola eta zentzua hain kurioski nahasiak dituztenak, non ez diren, fortunaren erhiak, laketa duen zuloan, kantaraz ditzakeen txirulak".

\* \* \*

Nola ez zuen Elizak kondenatuko aktorearengan horrelako iharduera? Hark arte honetan arimen ugaltze heretikoa arbuiazen zuen, emozioen nabarikeria, patu bakarra bizitzeari uko egiten dion izpirituaren nahikunde harro eta eskandalagarria, neurrigabekeria guztietara amiltzen dena. Haiengan orainaldiaren gustua eta Proteoren garaipen hori gaitzesten zituen, berak irakasten duen guztiaren ukoa izanez. Betierekotasuna ez da jokoa. Horren lekuan komedia hobesteko aski zentzugabea den izpirituak salbamendua galdua du. "Edonon" eta "beti" artean ez dagoke akordiorik. Horrexegatik sortu ahal ukan du hain lanbide mespreziatu horrek halako istilu izpiritual demasa. "Ardura duena, dio Nietzschek, ez da betiereko bizitza, betiereko bizitasuna baizik". Drama osoa, etzan, aukera honetan datza.

Adrienne Lecouvreur-ek, hil-ohetan zetzala, aitortu eta jaun hartzeko gogoia ukan zuen, baina ez zion bere lanbideari uko egin nahi izan. Hori dela eta, aktoreak, aitorpenaren hobaria galdu zuen. Izan ere, zer ote zen hura Jainkoaren aurka bere grina sakonaren aldea hartzea besterik? Eta hiltzeari ari zen emakume honek, negarrez berak bere artea deitzen zuenari uko egiten errefusatzeko, agertokian sekula ukan ez zuen handitasuna erakusten zuen. Horixe izan zen haren jokagairik ederrena eta itxuratzeko zailena. Zeruaren eta fideltasun irrigarriaren artean aukeratzea, bere buruari betierekotasunari baino hoberiztea ala Jainkoagan amiltzea, horixe da norberak bere lekuan jokatu behar duen mendez mendeko tragedia.

Garai hartako komediantek bazekiten eskomikaturik zeudela. Lanbide horretan sartzea Infernua hautatzea zen. Eta Elizak haiengan etsairik okerrenak zekuskien. Literatu batzu haserre daude: "Baina, Molièreri azken olioak ukatzea ere!". Baina hori zuzena zen, eta batez ere eskenan hil eta maskarapean dispertsioari eskainiriko bizitza osoa amaitu zuen batentzat. Hari buruz jeinua aipatzen da, dena desenkusutzen duena. Baina jeinuak ez du deus desenkusutzen, berak holakorik egin nahi ez duelako, hain zuzen.

Aktoreak, beraz, ongisko zekien zer nolako zigorra zegokion. Baina zer nolako zentzua izan zezaketen mehatxu zehaztugabe horiek, bizitzak berak gordetzen zion azken gaztiguarekin gonbaraturik? Horixe zen berak alde aurretik frogatzen zuena, bere osoan onetsiz. Aktorearentzat, gizaki absurduarentzat bezala, heriotza goiztiarra erremediagabea da. Ezerk ezin konpentsa dezake berak, hori gabe, ibiliko lituzkeen aurpegi eta mendeen metaketa. Baina, edonola ere, kontua hiltzea da. Izan, aktorea nonnahi da, zalantzarik gabe, baina denborak ere hura darabil, eta harengan bere eragina uzten.

Aktorearen patuak zer esan nahi duen ulertzeko, nahikoa da irudimen pixka bat izatea. Bere pertsonaiak denboran moldatzen eta zerrendatzen ditu. Eta horiek meneratzen ere denboran ikasten du. Zenbat eta bizitza ezberdin gehiago bizi, are hobeki bereizten da haiengandik. Eskenarentzat eta munduarentzat hil behar deneko denbora heldu da. Berak bizi izandakoa aurre-aurrean du. Argiro dakusa. Abentura honek urragarri eta ordezkazekin zer duen sentitzen du. Badaki, jakin, eta honez gero hil daiteke. Eta komedianta zaharrentzat badira erretiro-etxeak.



## KONKISTA

E

z, dio konkistatzaileak, ez uste ekintza maitatzeko pentsatzen desikasi behar izan dudarik. Aitzitik, sinesten dudana ezin hobeki defini dezaket. Izan ere, hori indarrak sinesten dut, eta ikusi, bista egiazko eta argiaz dakusat nik. Mesfida zaitezte hauxe diotenez: "Hori ongiegi dakit, adierazi ahal izateko". Hori ezin badute egin, ez dakitelako besterik ez da, edo, bestela, nagikeriaz, azalean gelditu direlako.

Ez dut eritzi askorik. Bizitzaren azkenean gizakia konturatzen da urteak eman dituela egia bakarra seguratzeko. Baina bat bakarra, begien bistakoa baldin bada, aski da existentzia bat gidatzeko. Nik neuk, gizabanakoari buruz zerbait esan beharra dut benetan. Horretaz garrazki mintzatu behar da, eta, behar izanez gero, mesprezio komenigarriaz ere bai.

Gizakia gehiago da gizaki ixiltzen dituen gauzengatik esaten dituenengatik baino. Bada anitz gauza nik ixilduko dudarik. Baina zinez uste dut gizabanakoari eritzi dioten guztiek guk baino askoz ere esperientzia txikiagoa ukan dutela beren erizpena oinarritzeko. Adimenak, adimen hunkigarriak, beharbada igarri egin du konstatatu behar zena. Baina garaiak, beroren hondakinek eta odolak ebidentziez betetzen gaituzte. Aintzinateko herriek, eta oraintsukoek ere bai, gure makina-arorarte, gizartearen eta gizabanakoaren bertuteen balantzea egitea zuten, ea zeinek zein zerbitzatu behar zuen bilatuz. Hori horrela izan zitekeen, aurrenik, giza bihotzaren aberrazio euskor horri esker, zeinen arauera gizakiak mundura zerbitzariak edo zerbitzatuak izateko jaio baitira. Hori oraino horrela izan zitekeen, ez gizarteak ez eta gizabanakoak ere, gauzak egiten beren jakite osoa oraindik erakutsi ez zutelako.

Flandriako gerra odoltsuen bihotzean jaieriko holandar pintatzaileen maisulanen aurrean, izpiritu onak ikusi ditut miretsirik, eta Hogeita Hamar Urteetako Gerra ikaragarriaren baitan heziriko Silesiar mistikoen otoitzekin hunkituak ere bai. Haien begien harriurarako, betiereko balioek igeri egiten dute mendeetako nahasteen gainetik. Baina harez gero denbora joan da. Gaurko pintatzaileak lasaitasun hura gabe geldituak dira. Sortzaileak behar duen bihotz hori barruan badute ere, bihotz lehorra esan nahi dut, horrek ez du ezertarako balio, mundu guztia, eta saildua bera ere bai, mobilizaturik dagoelako. Horra hor beharbada sakonenik sentitu dudana. Luebaketan abortaturiko forma bakoitzeko, burdinapean birrinduriko marra bakoitzeko, berau metafora zein otoitza izan, betierekoak partida bat galtzen du. Neure denboratik ezin bereiz naitekeela kontziente naizelarik, harekin gorputz bat egitea erabaki dut. Horrexegatik egiten diot nik horrenbeste kasu gizabanakoari, irrigarri eta umiliatua deritzodalako. Kausa garaitiarrik ez dela jakinda, kausa galduak ditut nik gogoko: horiek arima osoa nahi dute, bai bere porrotean eta bai bere garaipen iragankorretan ere berdina. Mundu honen patuarekin elkarkide sentitzen denarentzat, zibilizazioen elkarjotzeak badu zerbait herustazkorik. Herustura hori neuretu egin dut, hor neure partida jokatu nahi izan dudana denbora berean. Historia eta betierekoaren artean historia hautatu dut, segurtasunak maite ditudalako. Horretaz behintzat seguru nago, eta nola ukorik egin lehertzen nauen indar horri?

Beti etorri ohi da kontenplazioaren eta ekintzaren artean aukeratu behar deneko denbora. Horri gizontzea esaten zaio. Urraketa horiek izugarriak dira. Baina bihotz harroak ezin dezake hor erdibiderik har. Jainkoa edo denbora dago, gurutze hau edo ezpata hori. Mundu honek zentzu goragoa du, iharrospen horiek gaintitzen dituen, edo bestela ez dago ezer iharrospen horiez kanpo egia denik. Denborarekin bizi eta berarekin hil behar da, edo hartatik ihesi joan, bizitza handiagoaren bila. Badakit hautsi-mautsi bat egin daitekeela, eta, betierekoan sinetsita ere, mendeen bizi daitekeela. Horri onestea deitzen zaio. Baina hitz horrek higuina ematen dit, eta nik guztia nahi dut edo

ezer ez. Ekintza hautatzen badut, ez uste kontenplazioa herrialde ezezaguna bezalakoa dudanik. Baina horrek ezin eman diezadake guztia, eta, betierekoaz gabeturik, denborarekin aliatu nahi dut. Ez dut neure kontuan nostalgia ez mingostasunik eduki nahi; nahi dudan gauza bakarra horretan argi ikustea da. Badiotsut, bihar mobilizatu izanen zara. Zuretzat eta niretzat hori liberazioa da. Gizabanakoak ezin egin dezake ezer eta halere dena egin ahal dezake. Egoera libre miresgarri honetan ongi ulertuko duzue zergatik goستن eta batera zapaltzen dudan. Munduak du hura birrintzen eta nik, aldiz, askatzen. Eskubide guztiez hornitzen dut.

\* \* \*

Konkistatzaileek badakite ekintza, berez, alferrekoa izaten dela. Ekintza baliagarri bakarra dago, gizakia eta lurra berreginen litzukeena. Ez ditut nik gizakiak behin ere berreginen. Baina "hala balitz bezala" egin behar da. Burrukarako bideak haragia aurkierazi baitit. Umiliatua delarik ere, haragia dut nik segurtasun bakarra. Ezin bizi naiteke hari esker baizik. Kreatura dut nik sorteri. Horra hor zergatik ahalegin absurdu eta ondorio gabe hau aukeratu dudan. Horra zergatik burrukaren alde nagoen. Garaia egokia da horretarako, esana dut. Honaino konkistatzaile baten handitasuna geografiazkoa zen. Garaituriko herrialdeen hedaduraz neurtzen zen. Hitzak ez du alferrik bere esangura aldatu, eta ez du gehiago general garaitzailea adierazten. Handitasuna beste alderdira pasatua da. Orain protestan eta etorkizunik gabeko sakrifizioan da. Eta hor ere, ez dago inola ere porrotaren atseginagatik. Garaipena nahigarria litzateke. Baina garaipen bat besterik ez da, eta bera betierekoa. Behin ere ukanen ez dudana. Horra non behaztopatzen naizen eta zeri lotzen natzaion. Iraultza, beti ere, jainkoen aurka egiten da, Prometheorenarekin hasita, berau era berriko lehen konkistatzailea izaki. Gizakiak bere patuaren aurka egindako erreibindikazioa da: behartsuaren erreibindikazioa ez da atxakia bat besterik. Baina nik ezin diot izpiritu horri eutsi bere ekintza historikoan izan ezik, eta hortxe elkartzen naiz harekin. Ez uste, ordea, hor pozten naizenik. Funtsezko kontraesanaren aurrean, nik neure giza kontraesanari eusten diot. Neure adimenaren zolitasuna beroni uko egiten dionaren erdian ezartzen dut. Gizakia goستن dut, bera zapaltzen duenaren aurka, eta ene askatasuna, ene jazarkuntza eta ene grina, beraz, tentsio honetan, argikusmen eta neurrigabeko errepikatze honetan elkartzen dira.

Bai, gizakiak bere burua du helburu. Eta helburu bakarra. Zerbait izan nahi badu, bizitza honetan izanen da. Orain ongiegi dakit. Konkistatzaileak inoiz garaitzeaz eta gainditzeaz mintzatzen dira. Baina beti ere "nork bere burua gainditzea" adierazi nahi dute. Ongi dakizue horrek zer esan nahi duen. Gizaki oro noizbait jainko baten pare sentitu omen da. Horrela diote behintzat. Baina hori gertatu da, tximistargi batez giza izpirituaren handitasun harrigarria sentitu duelako. Gizakien artean, konkistatzaileek ez bestek sentitzen dute aski beren indarra, goratasun horietan etengabe eta handitasun horren kontzientzia osoaz segur bizitzeko. Aritmetika-kontua da, gehiago ala gutxiagokoa. Gehienik konkistatzaileek egin dezakete. Baina ezin dute gehiago egin gizakiak berak baino, beronek nahi duenean. Horrexegatik ez dute behin ere giza arragoa uzten, iraultzen arimaren barrukougarrik bizienean murgilduz.

Hor kreatura aurkitzen dute hebaundurik, baina hortxe kausitzen dituzte, halaber, berek maite eta miresten dituzten balio bakarrak, alegia, gizakia eta beronen ixiltasuna. Hori haien gabezia da, eta, aldi berean, haien aberastasuna. Luxu bakarra dute, giza harremanena, hain zuzen. Nola ez aditu, unibertso ahul honetan, gizatiar den eta hori besterik ez den guztiak zentzu sutsuagoa hartzen duela? Aurpegi teinkatuak, anaitasun mehatxatua, gizakien arteko adiskidetasun hain sendoa eta hain pudikoa, horra egiazko aberastasunak, galkorrak direlako. Horien erdian sentitzen ditu izpirituak ongienik bere ahalmenak eta mugak. Bere efikazia hain zuzen. Batzu jeinuaz mintzatu izan dira. Baina

jeinuaz errazkiegi hitz egiten da, eta nik adimena nahiago. Berau orduan zoragarria izan daitekeela esan behar da. Berak desertu hori argitu eta menperatu egiten du. Haren eginbeharrak ezagutu eta ilustratu egiten ditu. Gorputz honekin batera hilko da, denbora berean. Baina hori jakitea, horraxa beraren askatasuna.

\* \* \*

Ongi jabetzen gara; Eliza guztiak aurka ditugu. Hain bihotz teinkatuak ihes egiten dio betierekoari eta Eliza guztiak, jainkozkoak zein politikoak, betierekoaren atzetik ari dira. Zoriona eta kuraia, alokairua edo justizia, haientzat bigarren mailako helburuak dira. Haiek doktrina bat dakarte eta hartara suskribatu beharra dago. Baina nik ez dut ezer egin behar ideiez edo betierekoaz. Nire neurrirako egiak eskuaz ukitzeko moduan ditut. Ezin naiteke haietatik urrun joan. Horrexegatik ez dutue nire gainean ezer oinarritzerik: konkistatzailearenetik ezerk ez dirau, ez eta haren doktrinek berek ere.

Honen guztionen buruan, halere, herioa dago. Badakigu hori. Eta badakigu, halaber, horrek dena amaitzen duela. Horra hor zergatik Europa estaltzen duten hilerri horiek, gutariko batzuren obsesioa direnak, hain itsusiak diren. Ez du inork edertzen, maite duena besterik, eta heriotzak nazka ematen digu eta nekatzen. Bera ere konkistatzekoa da. Azken Carrara, izurriteak hustu eta veneziarrek setiaturiko Paduako hirian presoak, bere jauregi bakartiaren aretoetan zehar korrika ibiltzen omen zen oihuz: deabruari egiten zion dei eta heriotza eskatzen. Hura gainditzeko era bat zen. Eta hori ere Mendebaldeak oso berea duen kuraiaren marka da, herioak ohoratua dela uste duen lekuak hain itsusiak bihurtuz. Jazarriaren unibertsoan herioak injustizia goresten du. Berau da abusu nagusia.

Beste zenbaitzuk, amore eman gabe ere, betierekoa hautatu eta mundu honetako lilura salatu dute. Haien hilerriek irribarre egiten dute lore- eta txori-multzoen artean. Hau ongi doakio konkistatzaileari, eta gaitzetsi duenaren irudi argia eskaintzen dio. Berak, ordea, burdina beltzezko hesia aukeratu du edo izenik gabeko hobia. Batzutan, heriotza propioaz halako irudia izanda bizi daitezkeen izpirituen aurrean, betierekoaren gizakietarik onenak kontsiderazioz eta urrikiz beteriko ikarak astintzen ditu. Baina, halere, izpiritu horiek hortik beren indarra eta justifikazioa ateratzen dute. Geure patua aurrean dugu, eta berori da guk sorterakartzen duguna. Hor harrokeriak munta txikiagoa du gure nora gabeko egoerak baino. Geu ere, inoiz geure buruaz urrikaltzen gara. Hauxe da onesgarria iruditzen zaigun gupida bakarra: agian zuek ia-ia ulertzen ez duzuen sentimendua dateke, eta kuraiarik gabea irudi dakizueke. Halere, hori beren baitan frogatzen dutenak gutariko ausartenak dira. Baina zoliei kuraios deitzen diegu, eta argikusmenetik aldentzen gaituen indarrak ez dugu nahi.

B

ehin eta berriro ere, irudi hauek ez dute moralik proposatzen, ez eta epaiketarik harrerazten ere: diseinuak dira. Bizitzeko tankera bat besterik ez dute itxuratzen. Maitatzailea, komediantea edo abenturaria absurduaren jokoan ari dira. Baina, era berean, nahi ukanez gero, kastuak, funtzionariak edo errepublikako lehendakariak ere gauza bera egin dezakete. Horretarako nahikoa da jakitea eta ezertxo ere ez maskaratzea. Italiako museoetan batzutan pantaila pintatu txikiak aurkitzen dira, apezek kondenatuen aurpegien aurrean, urkamendia ezkutatzeko, jartzen zituztenak. Jauziak, bere forma guztietan, jainkotasun edo betierekoagana amiltzeak, egunerokoaren edo ideiarene liluretara abandonatzeak, pantaila horiek guztiok absurdua ezkutatzeko dute. Badira baina, pantailarik gabeko funtzionariak ere, eta horiexez nahi dut mintzatu.

Puntarengoena hautatu ditut. Maila horretan absurduak errege-boterea ematen die. Egia da printze horiek erresumarik gabeak direla. Baina abantaila hau dute beste batzuen gainean, hots, badakitela erregetza guztiak lilurazkoak direla. Badakite, jakin, horra haien handitasun osoa, eta alferrik da zoritxar ezkutuaz edo desilusioaren errautsez mintzatu nahi izatea. Esperantzaz gabeturik egotea ez da desesperatzea. Lurreko garrek zeruko lurrinek beste balio dute. Ez nik ez inork ahal ditzakegu haiek hemen juzka. Ez dute hobeak izan nahi, kontsekuente izaten ahalegintzen dira. Jakintsu hitza, duenaz bizi den eta ez duenaz espekulatzen ez dabilen gizakiari baldin badagokio, orduan horiek jakintsuak dira. Haietako batek, -konkistatzaile, baina izpirituaren mundukoa, Don Juan, baina jakintzarena, komedianta, baina adimenarena izanez- beste edozeinek baino hobeki daki: "Ez da inola ere pribilegiarik merezi izaten ez lur gainean ez eta zeruan ere, norbere ardi-goxotasun kuttuna hobe zintasuneraino eramanez: horrela, kasurik onenean ere, berdin-berdin segitzen da arditxo irigarria izaten, bere adarrekin eta ezer besterik gabe -bere harrokeriak ez duela leherreraizten eta bere epaile-jarrerak ez dutela eskandalurik sorteraizten onarturik ere".

Edonola ere, arrazoiketa absurduari aurpegiera arraitsuagoak itzuli beharra zegoen. Irudimenak beste anitz ere erants diezazkioke, denborari eta erbesteatzeari gogorki atxekiak, etorkizunari eta ahulezia gabeko unibertso baten neurriari bizitzen dakitenak, berauek ere. Mundu absurdu eta jainko gabe hau, orduan, argi pentsatzen duten eta gehiago espero ez duten gizakiek populatzen da. Eta ez naiz oraindik pertsonaiairik absurduenaz mintzatu, sortzaileaz alegia.

SORKUNTZA  
ABSURDUA

## FILOSOFIA ETA ELABERRIA

A

bsurduaren aire zikoitzean mantenduriko bizitza hauek guztiok ez lukete hor iraunen, pentsaera sakon eta etengaberen batek bere indarraz eutsiko ez balie. Hemen ere, hori ezin izan daiteke fideltasunezko sentimendu berezi bat besterik. Ikusi izan dira gizaki kontzienteak beren egitekoa gerrarik zentzugabeenean betetzen, kontraesanetan zeudela uste izan gabe. Kontua zen ezertatik ere ez itzurtzea. Bada, honetara, munduaren absurdutasunari eusteko zorion metafisikoa. Konkista edo jokoa, kontaezineko maitasuna, jazarkuntza absurdua, horiexek dira gizaki horrek bere duintasunari egiten dizkion omenaldiak, gizakia aldezturik garaitua den kanpainan.

Kontua, burrukaren erregelarekiko leial izatea besterik ez da. Pentsaera hori nahikoa izan daiteke izpiritu bat elikatzeke: horrek zibilizazio osoei eutsi die, eta orain ere eusten. Ez zaio gerrari uko egiten. Hartatik hil edo bizi egin behar da. Gauza bera absurduaz ere: kontua da harekin arnasa egitea; haren lekzioak ezagutu eta haien mamia berraurkitzea. Ikuspegi horretatik poz absurdu bikainena sorkuntza da. "Artea eta artea besterik ez, dio Nietzschek, artea dugu egiatik ez hiltzeko".

Deskribatzen eta modu askotan sentierazten saiatzen naizen esperientzian, segurua da oinaze bat sortzen dela beste bat hil den lekuan. Ahanzturaren umekeriazko bilaketa, asebetetzearen deia honez gero oihartzunik gabeak dira. Baina gizakiak munduaren aurrean mantentzen duen tentsio etengabeak, dena hartzerantz bultzatzen duen zorabio ordenatuak bestelako sukarra uzten diote. Unibertso horretan, hortaz, obra da norbere kontzientzia gorde eta hor abenturak finkatzeko aukera bakarra. Sortzea, bi aldiz bizitzea da. Prousten haztamukako bilaketa antsiatsuak, haren lore, tapiz eta hersturen bilduma zehatzak ez dute besterik esan nahi. Aldi berean, horrek ez du ondorio handiagorik sortze etengabe eta estimagaitzak baino, hor beren bizitzako egun guztietan komediantea, konkistatzailea eta gizaki absurdu guztiak enplegatzen direlarik. Guztiak berena duten errealitatea antzeztzen, errepikatzen eta birstortzen saiatzen dira. Azkenean geure egien aurpegia edukitzen dugu beti. Existentzia oso-oso, betierekotik aldenduriko gizakiarentzat, ez da absurduaren maskarapeko mimo neurgaitza besterik. Sorkuntza mimo nagusia da.

Gizaki horiek, aurretik, badakite, eta ondoren haien ahalegin guztia aboratu berri duten etorkizunik gabeko irla hori zeharkatu, hedatu eta aberastean datza. Baina aurrenik jakin egin behar da. Aurkikuntza absurdua gelditze-une batekin batera baitator, hor etorkizuneko grinak zilegitzen direlarik. Ebangelio gabeko gizakiek berek ere badute beren Olibondoen Mendia. Eta horren gainean ere ez da loakartu behar. Gizaki absurduarentzat, arazoa ez da azaltzea edo konpontzea, norberak frogatzea eta deskribatzea baizik. Dena indiferentzia argikusleaz hasten da.

Deskribatzea, horixe da pentsaera absurduaren azken xedea. Zientziak berak ere, bere paradoxen muturrera helduta, ez du gehiago proposatzen, eta fenomenoaren paisaia beti birjina ederresten eta diseinatzen gelditzen da. Horrela, bihotzak irakasten duenez, munduaren aurpegi horien aurrean gorantz garabiltzan zirrara hori, ez datorkigu haren sakontasunetik, haien ugaritasunetik baizik. Azalpena alferrekoa da, baina zentzualak gelditzen da eta, berarekin batera, unibertso zenbatasunez agortezinaren dei etengabeak ere bai. Ulergarria da hemen artelanak duen lekua.

Horrek, aldi berean, esperientzia baten heriotza eta beraren ugaltza markatzen du. Munduak jadanik orkestratu dituen gaien errepikatzeko monotono eta grinatsua bezalakoa da: gorputza, tenpluen frontoiko irudi agortezina dena, formak eta koloreak, kopurua edo trebetasuna. Amaitzeko, ez da, beraz, indiferentzia sortzailearen zoragarritzko eta umekeriazko unibertsoan saio honen gai nagusiak aurkitzea. Oker geundek, ordea, hor

sinbolo bat ikusi eta artelana, azken buruan, absurduaren aurkako babesa dela uste izanez gero. Berbera ere fenomeno absurdua da, eta kontua da bera deskribatzea, besterik ez. Artelanak ez dio izpirituaren gaitzari irtenbiderik eskaintzen. Aitzitik, gizakiaren pentsaera osoari eragiten dion gaitzaren zeinuetako bat da. Baina, lehenbiziko aldiz, izpiritua bere baitatik ateratzen du, beste baten aurrean jarritz, ez, ordea, hor gal dadin, baina hatz zehatzaz guztiak abiatu daudeneko bide irteera gabea erakusteko. Arrazoiketa absurduaren denboran, sorkuntza indiferentziari eta aurkikuntzari darraie. Hark markatzen du grina absurduak oldarrean abiatzen edo arrazoiketa gelditzen deneko puntua. Saio honetan duen lekua horrelaxe justifikatzen da. Aski izanen da sortzailearen eta pentsalariaren gai amankomun batzu argitan ematea, artelanean absurduarekin loturiko pentsaeraren kontraesan guztiak berriro aurki ditzagun. Izan ere, konklusio berdinek adimenak gutxiago kideritzen dituzte, amankomunean dituzten kontraesanez baino. Bai, halaber, pentsaeraren eta sorkuntzaren ere. Esan beharrik ere ez dut, gizakia jarrera horietara bultzatzen duena tormentu berbera dela. Horrexegatik datoz batera haiek irtenburuan. Baina absurdutik jalgitzen diren pentsaera guztien artean, hartan oso gutxi irauten dutela ikusi dut nik. Eta desbideratze eta infidelitasun horietan konturatu naiz hobekienik, hain zuzen, zer zen absurduari besterik ez zegokiona. Paraleloki, neure buruari hau galdetu behar diot: izan al daiteke obra absurduak?

Ez da inoiz gehiegi azpimarratuko artearen eta filosofiaren arteko aintzinako aurkaritzaren arbitrariotasuna. Hori adiera zehatzegian ulertu behar bada, zalantzarik gabe, faltsua da. Aldiz, esan nahi den gauza bakarra diziplina biok giro berezi bana dutela izanez gero, hori, noski, egia da, baina zehaztasunik gabe. Argudio onargarri bakarra honako hau zen, hots, bere sistemaren erdian itxiriko filosofoaren eta bere obraren aurrean jarritako artistaren artean nabarituriko kontraesana. Baina horrek guk hemen bigarren mailakotzat jotzen dugun halako arte- eta filosofi moeta baterako balio zuen. Bere sortzaileagandik askaturiko artearen ideia modatik pasatua baino gehiago da. Faltsua ere bada. Inoiz azpimarratu izan da, artistak ez bezala, ezein filosofok ez duela inoiz sistema asko egin. Baina hori egia da, ezein artistak gauza bat baino gehiago aurpegi ezberdinetatik inoiz ez duela adierazi egia den neurri berean. Artearen bat-bateko hobeintasuna, haren berriztatu beharra, hori guztiori ez da egia, aurreritzez ez bada. Artelana ere eraikuntza baita, eta batbederak badaki sortzaile haundiak ere monotonoak noraino izan daitezkeen. Artistak, pentsalariak bezalaxe, bere burua obran sartzen du, eta hartan garatzen da. Osmosi honek estetika-problemarik garrantzizkoena nabarera erazten du. Bestela ere, izpirituaren helburu-batasunaz sinetsirik dagoenak ezer ez du alferragorik metodoen eta objektuen arauetako ezberdintasun horiek baino. Ulertzeko eta maitatzeko, gizakiak proposaturiko diziplinen artean ez dago mugarik. Horiek guztiok elkarren barrura sartzen dira eta heretura berak dituzte elkarrekin nahasten. Hasteko hau esan behar da. Obra absurdua posible izan dadin, pentsaera, bere erarik zolienaz, bertan nahasi beharra dago. Baina, aldi berean, ez du hain agertu behar, dena ordenatzen duen adimen gisa ez bada. Paradoxa hau absurduaren arauera azaltzen da. Artelana adimenak konkretua arrazonatzeari egiten dion ukotik sortzen da. Berak haragizkoaren garaipena markatzen du. Pentsaera zolia dakar bera, baina egintza horietan uko egiten dio bere buruari. Deskribatuari adiera ere sakonagoren bat gehitzeko tentazioari ez dio amorarik emanen, hari zilegi ez baiteritzo. Artelanak barruan adimenaren drama darama, baina ez du horren frogarik ematen, zeharbidez izan ezik. Obra absurduak muga horien jabe den artista behar du eta honelako artea ere bai, zeinetan konkretuak berori baino ezer gehiago esan nahi ez duen. Artelana ezin izan daiteke bizitza baten helburu, zentzu eta kontsolamendua. Sortzea ala ez sortzea, horrek

ez du ardura. Sortzaile absurduak ez dio bere obrari eusten. Hura bertan behera utz dezake; eta inoiz utzi ere egiten du. Abyssinia bat aski da.

Hor, aldi berean, estetika-erregela bat ikus daiteke. Egiazko artelana beti ere giza neurrira egina da. Funtsean bera da "gutxiago" dioena. Egon, badago harremanik artista baten esperientzia orokorraren eta berori isladatzen duen obraren artean, Wilhelm Meister-en eta Goetheren heldutasunaren artean. Obrak, azalpenezko literaturaren farfaileri paperean, esperientzia osoa eskaini nahi duenean, harreman hori txarra da. Harremana, ordea, ona da obra esperientziaren zati landu bat besterik ez denean, hots, barruko distira laburbiltzen duen diamante baten fazeta, hura mugatu gabe baina. Lehen kasuan, gainkarga dago eta betierekoaren pretentsioa. Bigarrenean, esperientzia gainulertuari esker, obra emankorra dugu, barne aberastasuna asma dakioke eta. Artista absurduaren problema bizitzen jakite hori lortzea da, egiten jakitea gaindi dezakeena. Bukatzeko, giro horretan, artista haundia, aurrenik, bizitzaile haundia da, hor bizitzea bai sentitzea eta bai gogoeta egitea dela kontutan harturik. Obrak, hortaz, drama intelektuala darama barruan. Pentsaerak bere prestigioei eginiko ukoa eta haren etsipena ilustratzen ditu obra absurduak, bere adimenak itxurak obran jarri eta arrazoirik gabea irudiz estali besterik egiten ez duelako. Mundua argi balitz, arterik ez.

Ez naiz hemen formaren edo kolorearen arteez mintzo, non deskribaketa errege den, bere apaltasun ederrean<sup>54</sup>. Adierazpena pentsaera amaitzen den lekuan hasten da. Tenpluak eta museoak betetzen dituzten begi hustuko nerabe horiek beren filosofia keinuetan ezarria dute. Gizaki absurduari filosofia horrek gehiago irakasten dio biblioteca guztiek baino. Beste alde batetik, gauza bera gertatzen da musikarekin ere. Irakaskuntzaz gabeturiko arterik baldin bada, horixe dugu. Kidetasun handiegia du matematikarekin, haren dohaintasuna ere mailegatua ez izateko. Izpirituak bere buruarekin, lege akordatuena eta neurtuen arauera, darabilen jolas hori gurea den soinu-espazioan garatzen da, hortik bestaldean, bibradurak gizatiarra ez den unibertsoan aurkitzen direlarik. Ez dago zentzatzio garbiagorik. Exenpluok errazegiak dira. Gizaki absurduak harmonia eta forma hauek bereak bezala dazaguzki.

Nik baina, bestelako obraz hitz egin nahi nuke hemen, eta hor azaltzeko tentazioak handienik dirau, hor ilusioa bere baitatik proposatzen da, konklusioa hor ia ezinbestekoa delarik. Elaberrien sorkuntza esan nahi dut. Eta neure buruari galde eginen diot ea absurduak hor ere iraun ote dezakeen.

Pentsatzea, aurrenik, halako mundu bat sortu nahi izatea da (edo norberarena mugatzea, funtsean gauza bera dena). Gizakia bere esperientziatik aldentzen duen oinarritzko deskordiotik abiatzea da bere nostalgiaren arauera entente-alorra aurkitzeko, arrazoiz hertsiriko edo analogiaz argituriko unibertsoa alegia, dibortzio jasanezin hori konpon dezakeena. Filosofoa, Kant izanik ere, sortzailea da. Horrek bere pertsonaiak, bere sinboloak eta bere ekintza ezkutua dauzka. Baditu bere askabideak ere. Alderantziz, elaberriak poesiaren eta saioaren gainetik egin duen aurrerapausoak, itxurak gora behera, artearen intelektualizazio handiagoa adierazten du. Utz ditzagun gauzak argi: handienez ari gara, batez ere. Genero baten emankortasun eta handitasuna, maiz, bertan aurkitzen den zaborraz neurtzen da. Elaberri txarren kopuruak ez digu ahanterazi behar onenen handitasuna. Hauexek daramate aldean, hain zuzen, beren unibertsoa. Elaberriak bere logika, bere arrazoiketak, bere intuizioa eta bere postulatuak dauzka. Eta baditu, era berean, bere argitasun-eskakizunak ere<sup>35</sup>.

Aurkaritza klasikoa, nik gorago aipatua, are gutxiago azaltzen da zilegi kasu berezi honetan. Balio zuen filosofia eta beraren autorearen banatzea erraza zen denboran. Gaur egun, pentsaerak helburutzat unibertsaltasuna ez duenean, haren istoriorik onena beraren damuena litzatekeenean, badakigu sistema, baliagarria denean, ez dela bere autoregandik aldentzen. Etika bera, bere ikuspegi batetik, konfidentzia luze eta hertsia



besterik ez da. Pentsaera abstraktua, azkenik, bere haragizko euskarriarekin elkartzen da. Eta, era berean, gorputzaren eta grinen elaberrizko jolasak pixka bat gehiago ordenatzen dira munduikuskera baten eskakizunei jarraikiz. Ez da gehiago "istoriorik" kontatzen, norbere unibertsoa sortzen baizik. Elaberrigile nagusiak elaberrigile filosofoak dira, hau da, tesi-idazleen aurkakoak. Honetara, Balzac, Sade, Melville, Stendhal, Dostoievski, Proust, Malraux, Kafka, zenbaitzu besterik ez aipatzearren.

Baina horiek egin duten aukerak, arrazoiketan baino gehiago irudietan idazteak, hain zuzen, aski garbi erakusten du guztiek amankomunean duten pentsaera berezia, azalpen-oinarri oro alfer dela eta itxura sentikorraren mezua irakasbide delako uste sendoan. Idazlana helburutzat eta batera hasieratzat hartzen dute. Hura filosofia maiz adierazi gabearen ondorioa da, beraren adibidea eta koroapena. Bera baina, ez da osatzen, filosofia horren gainulertuen bidez izan ezik. Azken buruan berorrek aintzinako gai baten aldaki hau zilegiztatzen du, hots, pentsaera pixka batek bizitzatik urruntzen duela, baina pentsaera askok, aldiz, bizitzara erakartzen. Errealitatea sublimatu ezinean, pentsaera hura antzezten gelditzen da. Aipatu dugun elaberria ezagutza honen instrumentua da, erlatiboa eta, batera, agortezina, maitasunaren ezagutzarekin antz handia duena. Elaberri-sorkuntzak, maitasunak bezala, hasierako harridura eta hausnarketa emankorra ditu.

\* \* \*

Hasteko, bederen, horiek dira onartzen dizkiodan prestigioak. Baina nik pentsaera umiliatuaren printze horiei ere, zeinen suizidioak ondoan ikusteko era izan baitut, gauza bera aitortzen diet. Horiek guztiok ilusioaren bide amankomunera biltzen dituen indarra ezagutu eta deskribatzea interesatzen zait bereziki. Hemen ere metodo berberaz baliatuko naiz. Lehenago ere erabilia dudanez, horrek neure arrazoiketa arintzen eta bera luzatu gabe, adibide zehatz batez laburbiltzen utziko dit. Jakin nahi dut ea, inorako deirik gabe bizi izatea onartuz gero, inorako deirik gabe lan egin eta sortzea ere onartzea ba ote dagoen, eta ea zein den, halaber, askatasun horietara daraman bidea. Neure unibertsoa bere mamu horietatik askatu nahi dut, eta nik ezin ukatuzko presentzia duten haragizko egia soilez hornitu. Obra absurdua egin dezaket, eta sorkuntza-jarrera beste bat baino hobetsi. Baina jarrera absurduak, halaxe irauteko, bere dohainekotasunaz kontziente izan behar du. Gauza bera obraz ere. Absurduaren aginduak hartan errespetatzen ez badira, hark dibortzioa eta jazarkuntza ilustratzen ez baditu, ilusiopean sakrifikatzen bada eta esperantza sorterazten badu, ez da gehiago dohainekoa. Ezin naiteke jadanik harengandik aska. Nire bizitzak hartan halako zentzu bat aurki dezake: hori irrigarria da. Ez da jadanik askatze- eta grina-ariketa hori, giza bizitza baten distira eta alferrekotasuna ahitzen dituen.

Azaltzeko tentazioa sendoenik duen sorkuntzan, gaindi ahal daiteke tentazio hori? Mundu errealaaren kontzientzia sendoenik duen fikziozko munduan, zintzo iraun ahal dezaket absurduarekin bat, osamaitzeko nahipean sakrifikatu gabe? Beste horrenbeste galdera daude azterkizun azken ahaleginean ere. Ulerturik dago jada haiek esan nahi dutena. Azken ilusioaren prezioan bere irakaspenik lehena eta zailena abandonatzeko beldur den kontzientziaren azken eskrupuluak dira horiek. Sorkuntzarako balio duenak, berau absurduaz kontziente den gizakiak izan dezakeen jarreretako bat balitz bezala harturik, gizakiari eskaintzen zaizkion bizi-tankera guztietarako ere balio du. Konkistatzaileak zein aktoreak, sortzaileak zein Don Juanek, beren bizitzeko ariketa bere zentzugabe-izaeraren kontzientzia gabe ez legokeela ahanztu dezakete. Berehalakoan ohitzen gara. Zoriontsu bizitzeko dirua irabazi nahi da, eta bizitza baten ahalegin guztia eta zatirik hoberena diru hori irabaztearren biltzen dira. Zoriona ahanzturik gelditzen da, bidea helburutzat harturik. Era berean, konkistatzaile horren eginahal osoak bere helburura jotzen du, are bizitza hoberako bide bat besterik ez

zenera. Bere aldetik, Don Juanek ere bere patuari amore ematen dio, existentzia hau askietsiz, beronen handitasunak jazarkuntzagatik besterik balio ez duelarik. Batarentzat kontzientzia dago, bestearentzat jazarkuntza, eta kasu bietan absurdua desagertua da. Horrenbestekoa da giza bihotzak atxekerik daukan esperantza. Gizakirik biluztuenak ere, noizbait, ilusioari amore ematen hasten zaizkio. Bake-premiak eskaturiko ontzat emate hau onespén existentzialaren barne-anaia da. Badira, horrela, argitasunezko jainkoak eta lurrezko idoloak ere. Baina aurkitu behar dena erdiko bidea da, giza aurpegi-tara daramana.

Honaino, eskakizun absurduaren porrotak izan dira berori zerik den ongienik erakutsi digunak. Era berean, aski ukanen dugu, abisatuak izateko, elaberrigintzak filosofia batzuren anbigutasun berbera eskain dezakeela. Hortaz, neure adibiderako, dena bildurik daukan obra bat aukera dezaket, absurduaren kontzientzia marka dezakeena, abiapuntua argi eta giroa garbi dauzkana. Haren ondorioek irakatsiko digute. Hor absurdua errespetatua ez bada, jakinen dugu ilusioa zer nolako itzulinguruaz sartua den. Adibide zehatz bat, gai bat, sortzailearen leialtasun bat nahikoa izanen dira orduan. Jadanik luzaroago egin den analisisa bera besterik ez da.

Dostoievskiren gai maiteenetako bat aztertuko dut. Beste obra batzu ere berdin azter nitzakeen<sup>36</sup>. Baina horrekin, problema zuzenka ukitzen da, handitasunaren eta emozioaren zentzuan, lehen aipaturiko pentsaera existentzialen kasuan bezalaxe. Eta paralelismo horrek nire helbururako balio du.

## KIRILOV

D

ostoievskiren heroi guztiek beren buruari bizitzaren zentzuaz galde egiten diote. Horrexetan era berrikoak dira: ez dira beldur irrigarri izateko. Era berriko sentikortasuna sentikortasun klasikotik bereizten duena haxe da, oraingoa problema moralez elikatzen da eta ordukoa problema metafisikoez. Dostoievskiren elaberrietan, arazoa jarririk dagoeneko intentsitateak ezin eraman dezake muturreko irtenbideetara besterik. Existentzia gezurrezkoa ala betierekoa da. Dostoievskik examina horri aski eritzi balio, filosofoa zatekeen. Baina berak izpirituaren jolas horiek giza bizitzan ukan ditzaketen ondorioak ilustratzen ditu, eta horrexetan artista dugu. Ondorioen artean, azkenak geldierazten du, berak Idazle baten Egunkaria-n suizidio logikoa deitzen duenak. 1876.eko Abenduko argitaraldietan, hain zuzen, "suizidio logikoa"ren arrazoiketa darabil gogoan. Hilezintasunean federik ez duenarentzat giza existentzia erabateko absurdutasuna delako uste sendoan, pertsona desesperatua ondorio hauetara heltzen da:

"Zorionari buruzko nire galderei, nire kontzientziaren bitartez, erantzun gisa haxe adierazi zaidanez gero, ni ezin naitekeela zoriontsu izan harmonia horretan ez bada, hots, osotasun haundiarekikoan, eta nik hori ezin irudika dezakedala eta bera irudikatzeko inoiz ezin izanen naizela gai, kontutan harturik, hortaz, bistakoa da...

"...Izan ere, gauzen ordena honetan nik batera demandariaren eta demandatuaren lana, akusatuaren eta epailearena, neure gain hartu behar dudanez gero, eta naturaren aldetiko komedia honi guztiz zentzugabe deritzodanez gero, eta, neure aldetik ere, hor jokatzeari umiliagarritzat jotzen dudalarik...

"Demandari eta demandatua, epaile eta akusatua naizeneko egoera dudagabe honetan, nik, halako kopeta lotsagabeaz ni sufritzeko jaoierazi nauen natura hori kondenatzen dut neurekin ezereztua izatera".

Ba da humore pittin bat jarrera horretan. Suizida horrek burua hiltzen du, metafisika-mailan gaitzitua delako. Nolabait, mendekua hartzen du. Horixe da bera "ez dutela engainatuko" frogatzeko era. Halere, gauza jakina da, gai berbera, eta are zabalera miresgarriagoaz, Kirilov-engan gorpuzturik ageri dela, Deabruak elaberriko pertsonaiagan, berau ere suizidio logikoaren aldekoa. Kirilov ingeniariak nonbait buruari bizia kendu nahi diola aldarrikatzen du, hori "bere ideia delako". Ongi ulertzen da, noski, hitz hori bere jatorrizko zentzuan hartu beharra dagoela. Ideia batengatik, pentsaera batengatik dago bera hiltzeko prest. Goi-mailako suizidioa da. Piskanaka, Kiriloven maskara argitzen ari deneko agerraldietan zehar, bera animatzen duen herio-pentsaera nabari zaigu. Ingeniariak, hortaz, Egunkari -ko arrazoiketak berrartzen ditu. Jainkoa beharrezkoa dela sentitzen du, eta hura izatea ere beharrezkoa dela. Baina badaki ez dela, eta ezin izan daitekeela jainkorik. "Nola ez duk ulertzen, dio oihuz, badela hor burua hiltzeko arrazoi nahikorik?". Jarrera horrek, halaber, ondorio absurduetako batzu dakarzkio. Arduragabekeriagatik, berak mespreziatzen duen kausa baten fabore, bere suizidioaz baliatzen uztea onartzen du. "Gaur gauean dena berdin zaidala erabaki dut". Azkenik bere jestua gertatzen du, jazarkuntzaz eta askatasunaz nahasiriko sentimenduaz. "Burua hilko dut, neure menpekotasunik eza, neure askatasun berri eta ikaragarria tinko aitortzeko". Ez da hor mendekurik, jazarkuntza baizik. Kirilov, beraz, pertsonaia absurdua da -ordea, funtsezko erreserba horrekin, bere burua hiltzen duela. Baina kontraesan hori berberak azaltzen du, aldi berean sekretu absurdua bere garbitasun osoan aitortzen duelarik. Izan ere, bere herio-logikari ezohizko xedea gaineratzen dio, pertsonaiari bere perspektiba osoa ematen diona: burua hil nahi du, horrela jainko bilaka dadin.

Arrazoiketak argitasun klasikoa du. Jainkorik ez bada, Kirilov da jainkoa. Jainkorik ez bada, Kirilovek burua hil behar du. Kirilovek, beraz, burua hil behar du bera jainkoa

izateko. Logika hau absurdua da, baina behar dena. Interesgarriena baina, lur gainetik bilduriko jainkotasun horri zentzuren bat ematea da. Hori premisa hau argitzera dator: "Jainkorik ez bada, neu naiz jainkoa", oraindik nahiko ilunik dagoena. Garrantzizkoa da, hasteko, hantuste zentzugabe hau nabariki aldarrikatzen duen gizona erabat mundu honetakoa dela azpimarratzea. Osasuna begiratzeko, goizero bere gimnasia egiten du. Emaztea berraurkitzean Xatov-ek izandako pozak bihotza hunkitzen dio. Haren heriotzaren ondoan aurkituriko paper batetan irudi bat egin nahi du, mihia aterako "diena". Ume antzekoa da eta koleratua, grinatsu, metodikoa eta sentibera. Gaingizakiarenik, ez du deus, logika eta ideia beti-bera besterik, gizakiarenik, erregistro osoa. Berau dugu, ordea, bere jainkotasunaz lasai mintzo dena. Eroa ez da, edo bestela Dostoievski ere halaxe da. Ez du bera, hortaz, megalomano-liluraren batek iharrosten. Eta hitzak jatorrizko zentzuan hartzea, oraingo honetan, irrigarria litzateke.

Kirilovek berak laguntzen gaitu hobeki ulertzen. Stavrogin-ek eginiko galderaz, bera ez dela jainko-gizon batez mintzo zehazten du. Kristorengandik bereizteko arduragatik dela pentsa liteke. Baina, egiaz, berori bereganatzearen egiten du. Izan ere, Kirilovek Kristok, hiltzean, ez duela bere burua paradisuan aurkitzen irudikatzen du une batez. Orduan, bere oinazea alferrekoa izan dela konturatzen da. "Naturaren legeek, dio ingeniariak, Kristo gezurraren erdian bizierazi eta gezur baterako hilerazi dute". Zentzu bakar honetan gorpuzten du Jesusek giza drama osoa. Gizon hobezina da bera, baldintzarik absurduena bete duenez gero. Ez da Jainko-gizona, giza-jainkoa baizik. Eta haren antzera, gutariko bakoitza gurutzean josia eta engainatua izan daiteke - eta halaxe da nolabaiteko neurrian.

Hemen aipatzen den jainkotasuna, hortaz, erabat mundutarra da. "Hiru urtetan aritu naiz, dio Kirilovek, neure jainkotasunaren bereizgarria bilatzen, eta aurkitua dut. Neure jainkotasunaren bereizgarria burujabetasuna dut". Argi nabari da aurrerantzean kiriloviar premisaren zentzua: "Jainkorik ez bada, neu naiz jainkoa". Jainko bilakatzea, mundu honen gainean libre izatea besterik ez da, izaki hilezin bat ez zerbitzatzea. Eta batez ere, noski, burujabetasun mingarri horren ondorio guztiak ateratzea. Jainkoa baldin bada, dena haren eskupean dago, eta guk ezin dugu ezer egin haren borondatearen aurka. Jainkorik ez bada, geuk dugu dena eskupean. Bai Kiriloven eta bai Nietzscheren aburuz, Jainkoa hiltzea norbera jainko bilakatzea da - Ebangelioak aipatzen duen betiereko bizitza mundu honetan betetzea hain zuzen<sup>37</sup>.

Baina, gizakia osabetetzeko, krimen metafisiko hori aski baldin bada, zergatik gehitu behar ote zaio suizidioa? Zer dela eta burua hil beharra, mundu honetatik joatea, behin askatasuna eskuratu eta gero? Hori kontraesanean dago. Ongisko daki hori Kirilovek ere, hau gehitzen duenean: "Hori sentitzen baduk, hi tsarra haiz, eta burua hil barik, gloriar aseberetik biziko haiz". Baina gizakiek ez dakite hori. Ez dute "hori" sentitzen.

Prometheoren garaietan bezala, beren baitan esperantzaitsuak hazten dituzte<sup>38</sup>. Bidea erakutsi behar zaie eta ezin daudeke predikurik entzun gabe. Hortaz, Kirilovek, gizateriaganako maitasunaz, bere burua hil behar du. Bere anaiarrebei errege-bide zaila erakutsi behar die, horretan bera lehenbizikoa izanen delarik. Suizidio pedagogikoa da. Kirilov, hortaz, sakrifikatu egiten da. Baina gurutzean josia baldin bada, ez da engainatua izanen. Giza-jainko dirau berak, etorkizunik gabeko heriotza ukanen duelako uste osoan, ebangelioaren malenkoniatan blai. "Ni, dio berak, zoritxarrekoa naiz, neure askatasunari tinko aitortzera beharturik nagoelako. Baina bera hil ondoren, gizakiak, azkenean, argitu eta gero, mundu hau tsarrez jendeztatu eta giza gloriar izetik da. Kiriloven pistola-tiroa azken iraultzaren seinalea izanen da. Beraz, herioagana bultzatzen duena ez da desesperantza, lagun-hurkoak bere buruaganako duen maitasuna baizik. Izpirituzko abentura esanezin hori odoletan amaitu aurretik, Kirilovek esaldi hau dio, gizakien oinazea bezain zaharra: "Dena ongi da".

Dostoievskiren baitan, suizidioaren gai hau, beraz, gai absurdua da. Urrunago abiatu baino lehen, azpimarra dezagun, soilki, Kirilov beste pertsonaia batzutan ere berragertzen dela, horiek ere, berriro, beste gai absurdu batzuri lotuak. Stavrogin eta Ivan Karamazov bizitza praktikoan egia absurduen ihardueran ari dira. Horiexek dira Kiriloven heriotzak askatzen dituenak. Tsarrak izaten saiatzen dira. Stavroginetik bizimodu "ironikoa" darabil, aski ezaguna nolakoa. Bere inguruan gorrotoa sortezten du. Eta halere, pertsonaia honen hitz-giltza bere azken agurreko gutunean aurkitzen da: "Ezin izan dut ezer hastiatu". Bera arduragabetasunean tsar izan da. Ivan ere halakoxe da, izpirituairen errege-ahalmenak abdikatzeari uko egitean. Bere anaiairen antzera, sinesteko burua umiliatu behar dela beren bizitzaz frogatu dutenei, baldintza hori lotsagarria dela erantzun liezaieke berak. Haren hitz-giltza "dena da zilegi" da, horri ongi doakion tristura-ñabardurarekin. Noski, Nietzsche, Jainkoaren asasinorik ospetsuena bezala, bera ere azkenean erotu egiten da. Baina hori jasan beharreko arriskua da eta amaiera tragiko horien aurrean, izpiritu absurduaren mugimendu esentzialak haxe galdetzen du: "Eta horrek zer frogatzen du?".

\* \* \*

Honela elaberriek, Egunkaria-k bezala, galdera absurdua egiten dute. Horiak logika heriotzaraino ezartzen dute, gorespena, askatasun "ikaragarria", tsarren gloria gizatiar bilakatua. Dena ongi da, dena da zilegi eta ezer ez da arbuiagarri: horiek eritzi absurduak dira. Baina a zer nolako sorkuntza mirezgarria da hori, suzko eta elurrezko izaki horiek hain ezagun irudierazten dizkiguna! Arduragabekeriaren mundu grinatsu hori, beren bihotzean orro egiten duena, ez zaigu inondik ere munstrokeria iruditzen. Guk hortxe berraurkitzen ditugu geure eguneroko hersturak. Eta zalantzarik gabe, inork ez du jakin, Dostoievskik bezala, mundu absurduari ematen prestigio hain hurbil eta hain oinazegarriak.

Zer da, beraz, hark ateratako konklusioa? Aipamen bik erakutsiko dute idazlea bestelako errebelazioetara daraman iraulketa metafisiko osoa zein den. Suizida logikoaren arrazoiketarik kritikariaren protesta batzu sorterazi zituela eta, Dostoievskik, Egunkaria-ren hurrengo argitaraldietan bere jarrera garatu zuen, honela konkludituz: "Gizakiak hilezintasunaz fedea izatea hain beharrezkoa baldin badu (berori gabe burua hiltzen duenez gero), hortaz, gizateriaren egoera normala horixe da. Hori horrela izanez, giza arimak ere hilezintasuna du, inolako dudarik gabe". Beste alde batetik, bere azken elaberriaren azken orrialdeetan, Jainkoarekiko burrukaldi erraldoiaren bukaeran, haurrek honela galdetzen diote Alioxari: "Karamazov, egia al da erlijioak dioena, hilen artetik birbiztuko garela, eta elkar berriro ikusiko dugula?". Eta Alioxak erantzun: "Hala da, elkar berrikusiko dugu, eta gertatu den guztia poz-pozik kontatuko diogu elkarri".

Honela, Kirilov, Stavrogin eta Ivan garaiturik gelditzen dira. Karamazov-tarrek Deabruei erantzuten diete. Hori, noski, konklusioa da. Alioxaren kasua ez da baliobikoa, Muixkin printzearena bezala. Gaixorik, berau etengabeko orainaldian bizi da, irribarrez eta arduragabetasunaz ñabartua, eta zorioneko egoera hori printzeak aipatzen zuen betiereko bizitza izan liteke. Alioxak, aitzitik, ongi diotso: "Berriz ere elkar aurkituko dugu". Ez da hor gehiago suizidio eta erokeria konturik. Zertarako, hilezintasunaz eta beronen alaitasunez seguru dagoenarentzat? Gizakiak bere jainkotasuna uzten du zorionaren truke. "Gertatu den guztia poz-pozik kontatuko diogu elkarri". Halaber, Kiriloven pistolak kliskatu du nonbait Errusian, baina munduak segitu egin du bere esperantzaitsuak hausnartzen. Gizakiek ez dute "hori" ulertu.

Horrela mintzo zaiguna baina, ez da elabergile absurdua, elabergile existentziala baizik. Hemen ere jauzia zirrarakorra da, eta berak iradokitzen duen arteari handitasuna ematen dio. Atxekimendu hunkigarria da, ezbaiez oretua, zalantzakor eta sutsua. Karamazov-

tarrez mintzatuz, Dostoievskik honela idazten zuen: "Arazo nagusia, liburu honetako atal guztietan jarraituko zaiona, bat bera da, nik neure bizitza osoan kontzienteki zein inkontzienteki pairatu dudana: Jainkoaren existentzia". Sinesgaitza da elaberri bat bizitza osoko pairua segurtasun pozgarri bihurtzeko aski izatea. Iruzkintzaile batek<sup>39</sup> egokiro azpimarratua du: Dostoievskik badu Ivanekin loturarik, eta Karamazov- tarren baiezkoko kapituluek, ahaleginetan, hiru hilabete eraman zizkioten, berak "blasfemoak" deitzen zituenak, bero-berotan, hiru astetan konposatu ziren artean. Ez dago bere pertsonaietarik bat ere bere haragitan arantze latz hori ez daramanik, haserrarazten ez duen, edo, zentzazioan edo hilezintasunean, arantze horretan erremediorik bat bilatzen ez duenik<sup>40</sup>. Gauden, edonola ere, zalantza honetan. Hona hemen obra bat, zeinetan, eguargia bera baino argitzal zoragarriagoan, gizakiak bere esperantzen aurka darabilen burruka atzeman dezakegun. Azken finera helduta, sortzaileak bere pertsonaien aurka aukera egiten du. Kontraesan horrek, horrela, ñabardura bat sartzen uzten digu. Hementxe duguna ez da, hortaz, obra absurdua, problema absurdua jartzen duen idazlana baizik.

Dostoievskiren erantzuna umiliazioa da, "lotsa" Stavroginen hitzetan. Idazlan absurduak, ordea, ez du erantzunik eskaintzen, horra hor ezberdintasun osoa. Bukatzeko, oharteraz dezagun ongi: obra horretan absurdutasunari kontraesaten diona, ez da beraren kristau-izaera, geroko bizitzaz egiten duen iragarpena baizik. Kristau eta absurdua aldi berean izan daiteke. Izan, badira geroko bizitzaz sinesten ez duten kristauen adibideak. Artelana dela eta, posible litzateke aurreko orrialdeetan auresentitu den analisi absurduaren norabideetarik bat gehiago zehaztea. Horrek "Ebangelioaren absurdutasuna" jartzera darama. Horrek ideia hau, gorabeheretan hain emankorra, argitzen du, hots, uste sendoek ez dutela sinesgogortasuna eragozten. Aitzitik, ederki ageri da Deabruak idazlanaren egileak, bide horietan maiz ibiliak, amaitzeko, erabat bestelako zidorra hautatu duela. Izan ere, sortzaileak bere pertsonaiei, alegia Dostoievskik Kirilovi, emandako erantzuera harrigarria honela laburbil daiteke: existentzia gezurtia da, eta betierekoa.

## BIHARAMUNIK GABEKO SORKUNTZA

B

eraz, nabari dakusat hemen esperantza ezin saiheats daitekeela betiko, eta hartaz libre zirela uste zutenei ere eraso egin diezaiekeela. Horixe da orain arte ukitu diren idazlanei aurkitzen diedan interesa. Idazlan egiaz absurdu batzu aipa nitzake, sorkuntzaren aldetik bederen<sup>41</sup>. Baina orok bere hasiera behar du. Ikerketa honen xedea nolabaiteko fideltasuna da. Eliza heretikoekin hain gogorra izan bada, horrexegatik izan da, ume desbideratua baino etsai okerragorik ez dagoela pentsatzen zuelako. Baina gnostiko ausarten historiak eta manikear korronteen iraupenak gehiago egin du, dogma ortodoxoa eraikitzeke, otoitz guztiek baino. Luze-laburrak oro gordeta, gauza bera dago absurduaz ere. Haren bidea ezagutzen da handiek urruntzen diren zidorrak aurkitzean. Arrazoiketa absurduaren amaiera, haren logikak ezarritako jarretarik batetan, ez da indiferentea izaten esperantza berriro aurkitzea, oraindik haren aurpegi patetikoenetako batetan sartua. Horrek askesi absurduaren zailtasuna erakusten du. Horrek, batez ere, etengabeki eutsiriko kontzientziaren beharra erakusten du, eta saio honen koadro nagusian sartzen da.

Baina oraindik obra absurduak banan-banan aipatea kontua ez bada ere, sorkuntza-jarreraz behinik behin, hots, existentzia absurdua osa dezaketenetako batez konklusioak atera ditzakegu. Arteak ezin zerbitza daiteke ongi, ezezko pentsaeraz ez bada. Haren urrats ilun eta umiliatuak obra handi bat ulertzeko ezinbestekoak dira, zuriak beltza behar duen bezalaxe. Lan egin eta sortu "ezertarako ez" dela, buztinean eskultura egin, norbere sorkuntzak ez duela etorkizunik jakitea, egun bakarrean norbere obra birrindurik ikustea, sakonean kontzientzia hau izanez, horrek ez duela garrantzi handiagorik anitz mendetarako eraikitzeak baino, horixe da pentsaera absurduak bideratzen duen zuhurtzia zaila. Zeregin biok aurrez eramatea, alde batetik ukatu eta bestetik gozatea, horra hor sortzaileari irekitzen zaion bidea. Hutsari bere koloreak eskaini behar dizkio.

Honek artelanaren kontzepzio berezi batetara garamatza. Sarriegitan sortzaile baten obra lekukotasun isolatuaren segidatzat hartzen da. Orduan artista eta literaturia nahasi egiten dira. Pentsaera sakonak etengabeko bilakaeran dihardu, bizitza osoaren esperientziarekin ezkontzen eta hortxe moldatzen da. Era berean, gizaki baten sorkuntza bakarra obra horien elkarren segidako aurpegi anitzetan sendotzen da. Batzuek besteak osatzen dituzte, elkar zuzentzen edo berrarrapatzen dute, eta kontraesaten ere bai. Zerbaitek sorkuntza amaitzen badu, hori ez da artista itsutuaren garaipen-oihu liluratuak: "Dena esana dut" delakoa, sortzailearen heriotza baizik, horrela bere esperientzia eta bere jeinuaren liburuak ixten baititu.

Ahalegin hau, kontzientzia gaingizatiar hau, ez zaizkio nahitaez irakurleari agertzen. Giza sorkuntzan ez da misteriorik. Mirakulu hori borondateak egiten du. Baina sekreturik gabe behintzat, ez da egiazko sorkuntzarik. Zalantzarik gabe, gerta daiteke obra-erreskada bat pentsaera beraren hurbilpenen segida besterik ez izatea. Baina beste era bateko sortzaileak ere asma daitezke, juxta-posizioaz arituko lirakeenak. Horien obrek elkarren arteko loturarik gabe irudi dezakete. Nolabaiteko neurrian, kontraesankorrak dira. Baina beren multzoan birjartzean, beren ordena berreskuratzen dute. Horrela horiek ere heriotzatik jasotzen dute beren behinbetiko zentzua. Beren argiaren argitasunik handiena beren egilearen bizitzatik bertatik hartzen dute. Une horretan, bere obren segida ez da huts egiteen bilduma besterik. Baina porrot horiek guztiok hoshidetasuna bera gordez gero, sortzaileak hor bere egoera propioaren irudia errepikatzen jakin du, berak daukan sekretu antzua durundaraziz.

Hemen menperatzeko ahalegina nabaria da. Baina giza adimena aski da askoz gehiago egiteko ere. Berak sorkuntzaren borondatezko aldea besterik ez du frogatuko. Beste

nonbait nabarerazi dut giza borondateak ez zuela beste helbururik kontzientzia mantentzea baino. Baina, diziplinarik gabe, hori ez lihoake inora. Pazientziaren eta zolitasunaren eskola guztietatik, eraginkorrena sorkuntza da. Hauxe da, halaber, gizakiaren duintasun bakarraren lekukotasun hunkigarria: bere izaeraren aurkako jazarkuntza gogorra, antzutzat jotzen den ahaleginean tinko irautea. Horrek egunean eguneango ahalegina eskatzen du, nor bere buruaren jabe izatea, egiaren mugak zehazki aditzea, neurria eta indarra. Horrek askesia osatzen du. Hori guztiori "ezertarako ez", errepikatzeko eta lekuz aldatu gabe, oinak leku berean mugitzeko. Baina beharbada artelan haundiak berez garrantzi txikiagoa du, berak gizakiari inposatzen dion proban eta, bere mamuak gainditzeko eta bere errealitate biluzira pixkat gehixeago hurbiltzeko, eskaintzen dion aukeran baino.

\* \* \*

Ez dezala inork estetika okerra har. Hona dakardana ez da pazientziazko informazioa, tesi baten ilustrazio atergabe eta antzua, aitzitikoa baizik, neure gogoa argi azaldu badut. Tesi-elaberria, zerbait probatzen duen idazlana, guztietarik gorrotagarriena, maizenik pentsaera asebetean oinarritzen dena izaten da. Halako batek eduki uste duen egia, frogatu egiten du. Baina hor ibilian jartzen direnak ideiak ditugu, eta ideiak pentsaeraren aurkariak dira. Filosofo lotsorak dira sortzaile horiek. Nik aipatzen edo irudikatzen ditudanak, aldiz, pentsalari zoliak. Pentsaera bere baitara datorren halako puntu batetan, beren obren irudiak itxuratzen dituzte, pentsaera mugatu, hilkor edo matxinatuaren sinbolo nabari gisa.

Horiek, beharbada, zerbait frogatzen dute. Baina frogia horiek elabergileek beren buruei ematen dizkiete, besteei eskaini baino gehiago. Funtsezkoena beraiek konkretutan garaitzea da, eta beren handitasuna horixe izatea. Garaipen erabat haragizko hau pentsaera batek prestatu die, botere abstraktuak umiliaturik dauzkanak. Erabat horrelaxe daudenean, haragiak, kolpe berean, sorkuntza bere distira absurdu osoan izekitzen du. Filosofo ironikoak dira grinaz beteriko obrak egiten dituztenak.

Batasunari uko egiten dion pentsaera orok askotarikotasuna goستن du. Eta askotarikotasuna artearen lekua da. Izpiritua askatzen duen pentsaera bakarra hura bakarrik uzten duena da, bere mugez eta amaiera hurbilaz seguru. Ezein doktrinak ez dio eragiten. Bera obraren eta bizitzaren heldutasunaren zain dago. Hartatik solte, lehenak, berriz ere, esperantzatik betiko askatua den arima baten boz pixka bat ahuldua entzuneraziko du. Edo ez du deus entzuneraziko, sortzailea, bere jokoaz nekaturik, hortik alde egin nahi badu. Gauza bera da.

\* \* \*

Honela, sorkuntza absurduari galdetzen diot pentsaerari eskatzen niona, matxinada, askatasuna eta askotarikotasuna. Berak, ondoren, bere alferrekotasun sakona erakutsiko du. Adimena eta grina elkarrekin nahasten eta eramaten direnen eguneroko ahalegin horretan, gizaki absurduak diziplina bat erideten du, bere indarren funtsa osatuko duena. Hor berak egiten duen aplikazioa, burugogorkeria eta argikusmena, horrela, konkistajarrerarekin bateratzen dira. Sortzea, horretara, nork bere geroari forma ematea da. Pertsonaia horiek guztiok beren obrek zehazten dituzte, haiek obrak zehazten dituzten bezainbatean, gutxienik. Komedianteak irakatsi diguna: ez dago inolako mugarik irudiaren eta izatearen artean.

Derragun berriz ere. Horretatik guzti horretatik ezerk ez du egiazko zentzurik. Askatasun horretako bidean bada oraino egin beharreko aurrerapenik. Izpiritu kide horien azken ahalegina, sortze- zein konkista-arlokoa izan, beren burua beren egitekoetatik askatzea da: hots, hauxe onestera heltzea, obra bera, konkista, maitasuna zein sorkuntza, gerta daitekeela ez izatea; banakoaren bizitza ororen alferrekotasun sakona kontsumatzea, alegia. Horrexek ematen die, bestalde, erraztasun handiagoa



beren obra burutzeko, bizitzaren absurdutasunaz ohartzeak hartan gehiegikeria guztiekin murgiltzeko baimena ematen zien bezalaxe.

Gainerakoa, ezinbestekorik irteera besterik ez duen patua da. Ezinbesteko heriotzaz landa, dena, poza zein zoriona, askatasuna da. Mundu bat gelditzen da, gizakia nagusi bakarra duena. Lotzen zuena, beste mundu baten ilusioa zen. Haren pentsaeraren zoria ez da gehiago burua ukatzea, iruditan ugaltzea baizik. Pentsaera jokoan ari da -mitoetan, noski- baina mito horiek ez dute beste sakontasunik giza oinazearena baino, eta berau bezala agortezinak dira. Ez da jainkozko alegia, jostagarri eta itsugarria, lurtar aurpegi, jestu eta drama baizik, hartan zuhurtzia zaila eta biharamunik gabeko grina laburbiltzen direlarik.

SISYFOREN MITOA

## J

ainkoek Sisyfo arroka bat mendi baten tontorreraino etengabe biraraztera kondenatu zuten, handik bere pisuaz harria behin eta berriro erortzen zelarik. Arrazoiaren batengatik pentsatzen zuten ez dagokeela gaztigu ikaragarriagorik lan alferra eta esperantza gabea baino.

Homero sinetsiz gero, Sisyfo gizonik prestuena eta zuhurrena zen. Beste tradizio baten arauera, ordea, bidelapurren lanbidera makurtua genuen. Ez dakusat hor kontraesanik. Eritziak ez datoz bat bera infernuetako alferreko langile egin zuten motiboei dagokienez. Lehenengo eta behin, jainkoekiko arinkeriaren bat leporatzen zaio. Haien sekretuak jakinerazi omen zituen. Jupiterrek Egina bahitu zuen, Asoporen alaba. Haren aita, desagertzeaz harriturik, Sisyforengana joan zen deitorez. Beronek, epaskoaren berri zuenez gero, Asopori zekiena kontatzea eskaini zion, hark Korinthoko gotorlekuari ura emateko baldintzapean. Zeruko tximisten orde zaren bedeinkazioa nahiago ukan zuen. Eta horrexegatik zigortu omen zuten infernuetan. Homerok, halaber, Sisyfok Herioa kateaturik zuela kontatzen digu. Plutonek ezin jasan izan zuen bere erresuma huts eta ixilaren ikuskizuna. Gerraren jainkoa igorri zuen, Herioa bere garaitzailearen eskuetatik libratu zuena.

Are gehiago, hil hurran zegoela, Sisyfok, zuhurtzia urriz, bere emaztearen maitasuna frogatu nahi ukan omen zuen. Bere gorpu ehortzi gabea herriko plazaren erdira jaurtikitzeko agindu omen zion. Sisyfo infernuetan aurkitu zen. Han, giza maitasunaren aurkako obedientzia hartaz haserraturik, Plutonengandik lurrera itzultzeko baimena erdietsi omen zuen, emaztea gaztiga zezan. Baina mundu honen aurpegia berriz ere ikusi zuenean, ura eta eguzkia, harri epelak eta itsasoa dastatu zituenean, ez zuen gehiago infernuetako ilunbera itzuli nahi ukan. Deiak, haserreak eta abisuak alferrekoak izan ziren. Oraindik anitz urtetan bizi izan omen zen golkoaren biragunearen aurrean, itsaso leherkaria eta lehorraren irribarreak aitzinean zituelarik. Jainkoen erabakia behar izan zen. Merkurio etorri zen ausart hura paparretik hartzera, eta haren pozetatik erauzirik, bortxaz infernuetaraino eramane zuen, arroka jadanik prest zuen lekura.

Honez gero agerian da Sisyfo heroi absurdua dugula. Bai bere grinengatik eta bai bere tormentuagatik ere. Jainkoengana zuen mesprezioak, Herioari zion gorrotoak eta bizitzeko grinak oinaze esangaitz hori, bere izate osoaz sekula deus ez amaitzeko ahalegintzen dena, ekarri zioten. Mundu honetako grinengatik ordaindu beharreko saria horixe. Behin infernuetaratu eta gero, ez zaigu ezer esaten Sisyfoz. Mitoak irudimenak anima ditzan eginak dira. Oraingo honi dagokionez, gorputz makurtu batek harritzar ikaragarria altxatu, birarazi eta hamaika aldiz hasiriko aldapan gora igonerazteko ahalegin guztia besterik ez dakusagu; aurpegi teinkatua nabari dakioke, masaila, harriari atxekia, lokatzez estaliriko zama hartzen duen lepoaren laguntza, hari eusten dion oinaren eginahala, beso hutsez berriro azpia hartzea, lurrez beteriko bi eskuen giza segurtasun erabatekoa. Zeru gabeko lekuak eta sakonik gabeko denborak neurturiko ahalegin luze horren buruan, xedea, azkenik, lortua da. Orduan Sisyfok harria dakusa, instant batzutan behealdeko mundu honetara amiltzen, hortik osteria ere tontorretaraino igon beharko duelarik. Bera ere behearantz jaisten da berriro.

Itzulaldi horretan, geldiune horrexetan zait Sisyfo interesatzen. Harrien ondo-ondoan penatzen ari den aurpegi hori, jada harria da bera ere! Hor dakusat gizon hori, urrats neketsu baina beti bat horrekin, amairik ukanen ez duen oinazerantz berriro jaisten. Arnasa bezalakoa den ordu hori, bere zoritxarra bezain seguru datorkiona, ordu hori kontzientziarena da. Instant horietako bakoitzean, bera, gailurrak utzita, jainkoen gordeleketan barrena sartzen denean, bere patuari gain hartzen dio. Sendaagoa da bere arroka baino.

Mito hori tragikoa da, beraren heroia kontzientea delako. Izan ere, nolako pena luke, urrats bakoitzean garaitzeko esperantzak kemenik balemaio? Gaur egungo langilea bere bizitzako egun guztietan zeregin beretan ari da, eta patu hori ere, hura bezain absurdua da. Baina langilea ez da tragikoa, bera kontziente gelditzen den une bakanetan izan ezik. Sisyfok, jainkoen proletariak, ezindua eta jazarria, bere egoera miserablea hedadura osoan ezagutzen du: hartaz du pentsatzen jaisten ari den bitartean. Bere oinazea eman beharko liokeen argikusmenak, aldi berean, bere garaipena kontsumatzen du. Ez dago paturik mesprezioak gaindi ez dezakeenik.

\* \* \*

Zenbait egunetan jaitsiera oinaze artean egiten bada, era berean poztasunaz ere egin daiteke. Eta hitz hori ez da soberan. Sisyfo begitantzen zait oraindik, bere arrokarantz itzultzen, mina hasieran zelarik. Lurreko irudiek oroitzapenari gogorregi eusten diotenean, zorionaren gogorapenaren deia pisuegia denean, gerta daiteke tristura giza bihotzaz jabetzea: arroka garaitia da hori, arroka bera. Neurrigabeko miseria hori eramateko astunegia da. Horiexek dira gure Getsemaniko gauak. Baina egia lehergarriak ezagutzean ezereztu egiten dira. Horrela, hasieran Edipok, jakiteke, patuari obeditzen dio. Horretaz konturatu den unetik, haren tragedia hasten da. Baina une berean,itsu eta desesperaturik, munduarekin duen lotura bakarra neskato baten esku freskoa dela dazagu. Orduan perpaus neurgaitz baten durundia aditzen da: "Hainbeste froga gora behera, neure adin helduak eta neure arimaren handitasunak dena ongi dagoela juzkaratzen didate". Sofoklesen Edipo horrek, Dostoievskiren Kirilovek bezala, garaipen absurduaren formula ematen du. Aintzinakoen jakituria aro berriko heroismoarekin bat dator.

Ez da absurdua aurkitzen zorionerako eskulibururen bat idazteko tentaldirik izan gabe. "E! Baina zer, hain bide mehar horietatik...?". Baina mundu bat besterik ez da. Zoriona eta absurdua lur bereko bi ume dira. Banaezinak biak. Zoriona nahitaez absurdua aurkitzetik datorrela esatea errakuntza litzateke. Gerta daiteke, era berean, absurduaren sentimendua zorionetik sortzea. "Dena ongi dagoela juzkatzen dut", dio Edipok, eta perpaus hori sakratua da. Durundi egiten du gizakiaren mundu latz eta mugatuan. Dena ez dela ahitu, ez dutela dena ahitu erakusten du. Asebetetzerik ezaz eta alferreko minen gustuaz sartua zen jainkoa mundu honetatik kanporatzen du. Patua giza zeregin bihurtzen du, gizakien artean arautu beharrekoa.

Hortxe datza Sisyforen poz ixil guztia. Bere patua eskuetan dauka. Arroka bere gauza du. Era berean, gizaki absurduak, bere oinazeari behatzen dionean, idolo guztiak ixilerazten ditu. Ixiltasunak bat-batean beretu duen unibertso horretan, lurreko mila boz miretsi txikiak altxatzen dira. Dei inkontziente eta sekretuak, aurpegi guztien gonbiteak, horiek alderantzizko alde beharrezkoak dira, eta garaitiaren prezioa. Ez da itzalik gabeko eguzkirik, eta gaua ezagutu beharra dago. Gizaki absurduak baietz dio eta bere ahalegina etengabea izanen da. Patu pertsonalik baldin bada, ez da goi-mailako paturik edo, behinik behin, ez da bat besterik, berak ezinbesteko eta mespreziagarri deritzona. Gainerakoaz, badaki bere egunen jabea dela. Instant sotil horretan, gizakiak bere bizitzari so egiten dionean, Sisyfok, bere arrokarantz itzuliz, bere patua osatzen duten lotura gabeko ekintzen segida horri begiratzen dio, berak sortu, oroimenaz batu eta, handik laster, bere heriotzak zigilatzeak. Horrela, gizatiarra den guztiak giza etorkia duelako uste sendoan, ikusi nahi duen itsuaren gisa, eta gauak ez duela azkenik dakielarik, beti ibilian dabil. Arroka oraindik biraka ari da.

Sisyfo mendiaren pean uzten dut! Nork bere zama beti berraurkitzen du. Baina Sisyfok fidelitasun gorena erakusten du, jainkoak ukatzen eta arroka altxatzen dituen. Berak ere dena ongi dagoela juzkatzen du. Aurrerantzean nagusirik ukanen ez duen mundu honi ez deritzo antzu ez hutsal. Harri honen garau bakoitzak, gauez beteriko mendi

honen atal mineral bakoitzak, bere bakarrean, mundu bat eratzen du. Gailurretaranzko burruka bera aski da giza bihotza asetzeko. Sisyfo zoriontsu irudikatu beharra dago.

ERANSKINA

Esperantza eta absurdua Franz Kafkaren obran

Hemen eranskin gisa Franz Kafkari buruz argitaratzen dugun saio honen ordezt, Sisyforen mitoa-ren lehenbiziko edizioan Dostoievskiz eta suizidioaz egindako kapituluaz plazaratu zen. Edonola ere, oraingo hau 1943an L'Arbalète (= "balezta") aldizkarian agertu zen.

H

or, bestelako ikuspegiaz, sorkuntza absurduaren kritika aurkitzen da, Dostoievskiri buruzko orrialdeetan jadanik ukitua (Argitaratzailearen oharra).

Kafkaren arte guztia irakurlea berrirakurtzera behartzea besterik ez da. Haren korapiloaskatzeek, edo askatzerik ezek, nolabaiteko azalpenak iradokitzen dituzte, baina horiek ez dira argiro esaten, eta oinarrituak izateko, istorioa beste ikuspuntu batetik berrirakurri beharra dago. Batzutan, bitara interpretatzeko aukera ageri da, eta hortixek dator bi irakurkerak egin beharra. Horixe da idazleak nahi zuena. Baina oker legoke Kafkarengan dena xehetasunetan interpretatu nahi lukeena. Sinbolo bat beti ere orokortasunean datza, eta, itxurapena oso zehatza izan arren, artistak ezin du hor mugimendua besterik birjarri: ez dago hitzez hitz joaterik. Gainerakoaz den bezainbatean, deus ez da ulergaitzagorik idazlan sinbolikoa baino. Sinboloak bera darabilena beti gaintitzen du, eta egiazki hark adierazteko asmo zuena baino gehiago esanerazten dio. Ikuspegi horretatik, sinboloaz ongi jabetzeko erarik seguruenaz ez probokatzea da, aldez aurretiko gogoetarik gabeko izpirituaz obra hastea, eta haren ezkutuko korronteen bila ez aritzea. Kafkari dagokionez, bereziki, onestua da haren jokoa onartzea, hots dramari itxuratik eta elaberriari formatik ekitea.

Lehen begiratuan, eta axola gabeko irakurlearentzat, abentura kezkarriak dira, pertsonaia dardarti eta burugogorak bere sekula formulatzen ez dituzten problemetatik ateratzen dituztenak. Prozesua-n Josef K... salatzen dute. Baina berak ez daki zertaz. Berak, duda gabe, bere buruaren alde egitera jotzen du, baina ez daki zergatik. Abokatuek haren kausari zail deritzote. Bitartean, hark ez dio maitatzeari, elikatzeari edo bere egunkaria irakurtzeari uzten. Geroago haren epaiketa dator. Baina epaimahaiaretoa oso iluna da. Berak ez du gauza handirik ulertzen. Uste du, soilki, kondenatu egin dutela, baina zertara, kasik ez dio bere buruari galdetzen. Zenbait aldiz horretaz ere duda egiten du, eta bizitzen segitzen du. Askoz geroago, bi gizon, dotore eta ongi jantzirik, haren bila datoz eta berei jarraitzera gonbidatzen dute. Kortesiari handienaz errebal desesperatu batetara daramate, haren burua harri baten gainean jarri eta bertan itotzen dute. Hil baino lehen, kondenatuak hau besterik ez dio: "Txakur baten antzera".

Argi ageri da, nolakotasunik nabariena naturala izatea duen kontakizun honetan, zaila dela sinboloz mintzatzea. Baina naturaltasuna kategoria zaila da ulertzeko. Badira idazlan batzu irakurleari gertakaria natural gisa irudierazten diotenak. Baina badira beste batzu ere (bakanagoak, hori bai) zeinetan pertsonaia bera baita gertatzen zaiona naturaltzat jotzen duena. Paradoxa bakan baina begien bistakoagatik, zenbat eta pertsonaiaren abenturak ezohizkoagoak izan, are nabariago izanen da kontakizunaren naturaltasuna: giza bizitza baten arrotasunaren eta gizaki horrek berori onartzen duen sinpletasunaren artean senti daitekeen urruntasunarekiko proportzionala da. Badirudi naturaltasun hori Kafkarena dela. Eta hor, hain zuzen ere, ongi aditzen da Prozesua-k esan nahi duena. Giza egoeraren irudiaz mintzatu izan da. Noski. Baina, aldi berean, errazagoa eta zailagoa da. Esan nahi dut, Kafkak partikularragoa eta pertsonalagoa duela elaberriaren adiera hori. Nolabait, mintzo dena berbera da, gu konfesatzen bagaitu ere. Bera bizi da eta kondenatua izan da. Mundu honetan bizi duen elaberriaren lehen orrialdeetan jakiten du hori, eta gauzak hobetzeko zerbait egiten saiatzen bada, ez da, halere, deusetan harritzen. Bera ez da behin ere aski harrituko honelako harridurarik ezaz. Kontraesan horietan ezagun dira idazlan absurduaren lehen zeinuak. Izpirituak bere tragedia izpirituala konkretura projektatzen du. Eta ezin du hori egin, koloreei hutsa adierazteko eta eguneroko keinuei betierekoaren xede gorenak azaltzeko indarra ematen dien azkengabeko paradoxaz ez bada.



Era berean, Gaztelua, beharbada, egiteko teologia da, baina ororen gainetik graziaren bila dabilen arima baten banako abentura dugu, mundu honetako gauzei beren erret sekretua eta emakumeei berengan lo datzan jainkoaren zeinuak galdetzen dizkien gizon baten abentura. Itxuraldaketa, bere aldetik, zolitasunaren etika baten imajineria ikaragarriaren irudia da. Baina aldi berean, gizakiak, ahaleginik egin gabe, bera bilaka daitekeen basapiztia bere baitan sentitzean pairatzen duen harridura neurgaitz horren emaitza ere bada, izan. Funtsezko baliobikotasun horretan datza Kafkaren sekretua. Zabukada atergabe horiek, naturaltasunaren eta ezohizkoaren artekoak, gizabanakoaren eta unibertsalaren artean, tragikoaren eta egunerokoaren, absurduaren eta logikoaren artekoak, haren obra osoan zehar aurkitzen dira, eta, aldi berean, bere durundia eta esangura ematen diote. Horiek aipatu beharreko paradoxak dira, indartu behar diren kontraesanak, idazlan absurdua ulertuko bada, behintzat.

Izan ere, sinboloak aurretik bi plano eskatzen ditu, ideiazko eta zentzaziozko bi mundu, eta bataren eta bestearen arteko korrespondentzi hiztegia ere bai. Ezartzeko zailena lexiko horixe da. Baina elkarren aitzinean jarririko bi munduez kontzientzia hartzea, horien ezkutuko harremanen bidean abiatzea da. Kafkarengan, mundu bi horiek, alde batetik, eguneroko bizitzarena eta, bestetik, naturaz gaineko kezkena dira<sup>42</sup>. Dirudienez, Nietzschek perpausaren etengabeko ustiaketaren aurrean gaude hemen: "Problema nagusiak kalean dira".

Ba du giza izaerak, horixe baita literatura guztien topikoa, funtsezko absurdutasunik, aldi berean geldiezineko handitasuna ere duen bezala. Uste izatekoa den bezala, biak batera datoz. Bi-biak ageri dira, derragun berriro, gure arimaren gehiegikeriak eta gorputzaren pozaldi ahikorak banatzen dituen dibortzio irrigarri horretan. Izan, absurdua dena hauxe da, gorputz horren arima izatea bera hain neurrigabeki gainditzen duena. Absurdutasun hau erakutsi nahi lukeenak kontrastatzen paraleloen jolasean eman beharko lioke bizitza. Horrela ba, Kafkak tragedia egunerokoaz adierazten du eta absurdua logikaren bidez.

Aktoreak pertsonaia tragiko batez zenbat eta nabarmenkeria gutxiago egin, are indar handiagoa ematen dio hari. Neurrizkoa bada, sort dezakeen horrorea neurrigabea izanen da. Greziar tragedia, ikuspegi honetatik, maisu aberatsa da. Idazlan tragikoan, patua beti ere hobeki sentierazten da logikaren eta naturaltasunaren aurpegipean. Ediporen patua aurretik iragarria zen. Naturaz gaindik erabakia zen berak hilketa eta intzestua egiteko zituela. Dramaren ahalegin guztia ondoko logika-sistema erakustea besterik ez da, dedukzioz dedukzio, heroiari zoritxarra erakarriko diona. Ezohizko patu hori iragartzea, berez, ez da inondik ere ikaragarria, sinesgaitza dirudielako. Baina patua nahitaez gertatu behar hori eguneroko bizimoduaren, gizartearen, Estatuaren edo famili emozioen barrutian frogatzen bazaigu, orduan horrorea kontsokratu egiten da. Gizakia iharrosten eta "Hori ezin izan daiteke" esanerazten dion jazarkuntza horretan, badago, jadanik, "hori" egin daitekeelako segurtasun desesperatua.

Hortxe datza greziar tragediaren sekretu osoa, edo, gutxienez, haren ikuspegietako bat. Izan ere, bada beste bat, alderantzizko metodoaz Kafka hobeki ulerteraziko diguna. Giza bihotzak joera deitoragarria du bera zapaltzen duenari ez besteri patua esateko. Baina zoriona ere, bere erara, arrazoirik gabea da, saihetsezina delako. Gaur egungo gizakia, ordea, horren merezimendua berak duelakoan dago, izatez, berorren berri izan ez arren. Askok hitz egin beharko litzateke, aitzitik, greziar tragediako patu pribilegiatuek eta legendetako hautatuek, Ulysses-en antzera, abentura okerrenetatik beren buruengandik salbatzen direnez.

Edonola ere, gorde behar dena, ixilpeko kidetasun hauxe da, tragikoari logikoa eta egunerokoa eransten dizkiona. Horra hor zergatik, Samsa, Itxuraldaketa-ren heroia, salerosle ibiltaria den. Horra hor zergatik, bera zomorrotzen duen abentura pitxi

horretan, atsekabe ematen dion gauza bakarra ugazaba bere etorrerarik ezaz haserre izatea den. Zangoak eta antenak irteten zaizkio, haren bizkarra okertu egiten da, sabelean zehar puntu zuriak barreiatuak ditu eta -ez nuke esanen horrek ez ziola harridurarik sortzen, horrela ez bailuke eraginik - baina horrek guztiorrek ez zioten ardura handirik ematen. Kafkaren arte guztia ñabardura horretan datza. Haren idazlan nagusian, Gaztelua-n, eguneroko bizitzako xehetasunek dute gaina berreskuratzen, eta halere, ezer burutzen ez den eta dena berrastan den elaberri pitxi horretan, arima baten abentura esentziala irudikatzen da, bere graziaren bila ari dena. Problema egintzan agertzeko era hau, orokorra eta partikularra bateratzeko modu hau, ezagunak dira, halaber, sortzaile handi guztiengan. Prozesua-n heroiari berdin dei zekiokeen Schmidt zein Franz Kafka. Baina Josef K... du izena. Ez da Kafka eta halere bera da. Erdi-mailako europar bat da. Mundu guztia bezalakoa. Baina K izaera horrek jartzen du, era berean, haragizko ekuazio honen x-a.

Kafkak absurdua adierazi nahi duenean ere, koherentziaz baliatzen da. Jakina da bainontzian kanaberaz arrantzan ari zen eroaren istorioa; mediku batek, psikiatri trataeraz halako ideiak izanez, galde egin omen zion: "Zer, heldu egiten al dute?" eta honelako ihardespenez latza izan zuen "Ez horixe, lerdo halakoa, hau bainontzi bat da eta". Istorio hau pitxikeria gisakoa da. Baina horrela garbi nabari da ukitu absurdua logika gehiegiarekin noraino loturik aurkitzen den. Kafkaren mundua, egia esan, unibertso esanezina da, eta hor gizakiak, ezer aterako ez duela jakinik ere, bere buruari bainontzian arrantzan aritzeko luxu barrumingarria ematen dio.

Beraz, hemen idazlan absurdua bere oinarrietan ezagutzen dut. Prozesua-n, adibidez, hori bete-betean lortua duela esan dezaket. Haragia garaile da. Ez da hor ezer falta, ez jazarkuntza adierazigabea (baina berbera da idazten duena), ez desesperantza zoli eta mutua (baina berbera da sortzen duena), ez eta ibiltzeko askatasun harrigarri hori ere, elaberriko pertsonaiek beren arnasean azken heriotzaraino dutenak.

Halere, mundu hau ez da dirudien bezain itxia. Aurrerabide gabeko unibertso honetan Kafkak esperantza era bakanean sartzen du. Ikuspegi horretatik, Prozesua eta Gaztelua ez doaz norabide berean. Elkar osatzen dute. Batetik bestera aurki daitekeen konturatu gabeko gorabideak ihespidearen ordeneko konkista neurrigabea irudikatzen du. Prozesuak problema bat plazaratzen du, Gazteluak, nolabait, konpontzen duena. Lehenak, metodo ia zientifikoa erabiliz eta konkluditu gabe, deskribatu egiten du. Bigarrenak, nolabaiteko neurriaz, azaldu egiten du. Prozesuak diagnostikatu eta Gazteluak sendabidea pentsatzen du. Baina proposaturiko erremedioak hor ez du sendatzen. Gaixotasuna bizimodu normalean sartu besterik ez du egiten. Onartzerat laguntzen du. Nolabaiteko adieran (pentsa dezagun Kierkegaardengan), maitarazi egiten du. K... lur-neurtzaileak ezin pentsa dezake beste ardurarik barrua jaten diona baino. Bera inguratzen dutenak ere izenik ez duen hustasun eta oinaze horren liluraz gatibaturik gelditzen dira, sufritzea hor aurpegi pribilegiatuaz jantzirik balego bezala. "Bai dudala hire beharra, diotso Friedak K...ri. Hi ezagutuz geroztik, zeinen abandonaturik sentitzen dudan neure burua, hi ondoan ez haudalarik". Zapaltzen gaituena maitarazten eta irtenbiderik gabeko mundu horretan esperantza sortarazten digun erremedio fin hori, dena aldaturik uzten duen bat-bateko "jauzi" horixe da iraultza existentzialaren sekretua eta Gazteluarena berarena ere bai.

Idazlan gutxi dira, beren ibileran, Gaztelua baino zorrotzagoak. K... gazteluko lurren neurtzaile izendatzen dute, eta herrira heltzen da. Baina herritik gaztelura ez dago komunikatzerik. Ehundaka orrialdeetan zehar K... bere bidea aurkitzen saiatuko da burugogorki, beharrezko urrats guztiak egiten, maltzurkerian arituko, zeharka ibiliko, behin ere haserratu gabe, eta, fede harrigarriarekin, gomendatu zitzaion funtzioan berriro sartu nahiko du. Kapitulu bakoitza porrot berria da. Eta hasiera berria ere bai. Ez

da hor logikarik, jarraitzeko gogoia baizik. Burugogorkeria horren hedadurak idazlanari tragikotasuna dakarkio. K...k gaztelura telefonatzen duenean, adiezinako boz nahasiak, nolabaiteko irribarreak, dei urrunak somatzen ditu. Hori aski du bere esperantza elikatzeko, udako zeruetan ageri diren zeinu batzuren antzera, edo gure bizitzeko arrazoa egiten duten arratseko promes horien antzera. Hortxe aurkitzen da Kafkaren baitako malenkonia bereziaren sekretua. Horixe bera, egia esan, Prousten obran edo plotindar paisaian arnasa egiten dena bera: paradisu galduen nostalgia. "Guztiz malenkoniatsu jarri naiz, dio Olgak, Barnabasek goizean Gaztelura doala esan didanean: ibilaldi seguraski alferra, egun seguraski galdua, esperantza seguraski hutsala". "Seguraski", oraindik ñabardura horren gainean Kafkak bere obra osoa jokatzen du. Baina zereginik ez; betierekoaren bilaketa hor xehe-xeheki egiten da. Eta Kafkaren pertsonaiak diren automata inspiratu horiek, gu izan gintezkeenaren irudia ematen digute, gure dibertsioez<sup>43</sup> gabeturik eta jainkotasunaren umiliazioetara oso-osorik eramanez.

Gaztelua-n egunerokoarekiko menpekotasun hau etika bilakatzen da. K...ren esperantza nagusia Gazteluak bera onartzea da. Horretara bakarrik ezin hel daitekeenez gero, ahalegin guztiak egiten ditu grazia hori meritatzeko, herriko kide bihurtuz, bere arrotasun-izaera, mundu guztiak sentierazten ziona, galduz. Berak lanbide bat, etxeko supazterra, gizon normal eta sanoaren bizitza nahi du. Bere erokeria ezin du gehiago jasan. Arrazoigarri izan nahi du. Herrian arrotz bihurterazten duen madarikazio partikularra bere gainetik kendu nahi du. Honi buruz Friedaren episodioa adierazkorra da. Gazteluko funtzionarietako bata ezagutu duen emakume hau, amorante gisa bere iraganagatik hartzen du. Hark emakumeagandik bera gainditzten duen zerbait eskuratzen du -eta, aldi berean, emakumea Gaztelurako betiko ezduin bihurtzen duenaren kontzientzia ere badauka. Hemen Kierkegaardek Régine Olsen-ez zuen maitasun bakanaz pentsa daiteke. Gizaki batzuren, beraiek irensten dituen betierekotasunaren sua aski handia da, hartan ingurukoaren bihotza bera ere erretzeko. Jainkoari Jainkoarena ez dena emateko oker galgarri hori ere Gaztelu-ren episodio honetako gaia da. Baina Kafkaren baitan, badirudi hor ez dela okerrik. Doktrina bat eta "jauzi" bat da. Ez dago ezer Jainkoarena ez denik.

Are adierazkorragoa da, gainera, lur-neurtzailea Friedagandik askatzea, Barnabas ahizpenganantz joateko. Izan ere, Barnabas familia herriko bakarra baita Gazteluak eta herriak berak abandonaturik dutena. Amaliak, ahizpa zaharrenak, Gazteluko funtzionarietako batek egiten zizkion proposamen lotsagarriak ezetz esan die. Ondoa izan duen madarikazio inmoralak Jainkoaren maitasunetik egotzi du betiko. Jainkoagatik norbere ohorea galtzeko gai ez izatea, haren graziarako duin ez izatea da. Filosofia existentzialean gai ezaguna dugu hor: moralaren aurkako egia. Hor gauzak urrun doaz. Izan ere, Kafkaren heroiak egiten duen bidea, Friedagandik Barnabas ahizpengana doana, maitasun fidatutik absurduaren jainkotzeraino doana bera baita. Hor ere, Kafkaren pentsaerak Kierkegaardenarekin bat egiten du. Ez da harritzekoa "Barnabastar kontakizuna" liburuaren azkenean kokaturik egotea. Neurtzailearen azken saioa, Jainkoa, ukatzen duenaren bidez, berraurkitzea da, bera ezagutzea, baina ez guk ontasunaz eta edertasunaz ditugun kategorien arauera, haren arduragabekeriaren, haren injustiziaren eta haren gorrotoaren aurpegi huts eta itsusien atzetik baizik. Gazteluaren aurrean onartua izatea eskatzen duen arrotz hori, bere bidaiaren bukaeran pixka bat atzerriratuagorik dago, aldi horretan bere buruarekiko fideltasunik ez baitu, eta bere esperantza zentzugabearen aberastasun bakarraz, jainkoazko graziaren basamortuan sartzen ahalegintzearen, morala, logika eta izpirituaren egiak alde batera uzten ditu<sup>44</sup>. Esperantza hitza hemen ez da irrigarria. Aitzitik, Kafkak kontatzen duen egoera zenbat eta tragikoagoa izan, hainbat zurrunago eta probokatiboago bihurtzen da esperantza

hori. Zenbat eta Prozesua egiaz absurduagoa izan, are hunkigarriago eta zilegi gabeago ageri da Gaztelu -ko "jauzi" eroa. Baina hor pentsaera existentzialaren paradoxa argi eta garbi aurkitzen dugu, Kierkegaardek adierazten duen bezala: "Esperantza lurterra heriotza-kolpe jo beharra dago, eta orduantxe lortuko da, soilki, egiazko esperantzaz<sup>45</sup> salbatzea", honela itzul daitekeena: "Aurretik Prozesua idatzi behar da, ondoren Gaztelua idazten hasteko".

Kafkaz mintzatu diren gehienek haren obra zehaztean, hura oihu desesperatu gisa definitu dute, gizakiari inolako irtenbiderik uzten ez diona. Baina horrek berrikustea eskatzen du. Badira era bateko eta besteko esperantzak. M. Henry Bordeaux-en obra baikorra bereziki etsigarria iruditzen zait. Hartan bihotz zail samarrei deus ere permititzen ez baitzaie. Malraux-en pentsaera, aldiz, beti ere bizkorgarri gertatzen da. Baina kasu biotan, hor ez da esperantza bera, ez eta desesperantza bera ere. Badakusat, soilki, idazlan absurduak berak saihestu nahi zuen fidelgabetasunera gida dezakeela. Egoera antzu baten errepikapen ondorio gabea besterik ez zen obra hori, iraungikortasunaren gorespen argikusi hori, hor ilusioen sehaska bilakatzen da. Horrek azaldu, horrek forma ematen dio esperantzari. Sortzailea ezin da gehiago hortik aldendu. Obra ez da, izan behar zukeen jolas tragikoa. Obrak zentzua ematen dio egilearen bizitzari.

Pitxia da, edonola ere, ia iradokizun bereko idazlanak, Kafkarenak, Kierkegaardenak edo Xestovenak, adibidez, edo, laburki esateko, elabergile eta filosofo existentzialistenak, oso-osoan absurduantza eta beronen ondorioetara makurtuak, azken buruan esperantza-oihu neurrigabe horretara bideratuak izatea.

Irensten dituen Jainkoa besarkatzen dute. Esperantza, apaltasunetik barnesartzen da. Izan ere, existentzia honen absurduak naturaz gaineko errealitateaz pixka bat gehiago bermatzen baitie. Bizitza honetako bideak Jainkoagana baldin badarama, orduan irtenbidea dago. Eta Kierkegaardek, Xestovek eta Kafkaren heroiek beren ibilbideak errepikatzean dituzten ekintasuna eta burugogortasuna segurantzaz<sup>46</sup> horren botere goresgarriaren aparteko bermeak dira.

Kafkak bere jainkoari handitasun morala, ebidentzia, ontasuna, koherentzia ukatzen dizkio, baina horrela haren besoetara hobeki joateko da. Absurdua ezaguna da, onartua, gizakia horretan etsi egiten da eta une horretatik badakigu jadanik ez dela gehiago absurdua. Giza egoeraren mugetan, zer da esperantza handiagorik egoera horretatik aldegitzen uzten diona baino? Halaxe dakusat, berriz ere, pentsaera existentziala, ohizko eritzien aurka, gehiegizko esperantzaz oreturik dago, hasierako kristautasunaz eta berri onaren iragarpenaz, aintzinako munduari eragin zion hura bera izanez. Baina pentsaera existentzial oro karakterizatzen duen jauzi horretan, burugogorkeria horretan, gainalderik gabeko jainkotasunaren neurketa horretan, nola ez ikusi bere burua ukatzen duen zolitasunaren marka? Bere burua salbatzearen abdikatzen duen harrotasuna besterik ez da hor. Uko hori emankorra litzateke. Baina horrek ez du hura aldatzen. Nire begietarako ez da txikitzen zolitasunaren balio morala, harrotasun guztien antzera, bera ere antzua dela esanez gero. Izan ere, egia bat, definizioz, antzua baita. Begien bistako gauzak guztiak hala dira. Dena emana den eta ezer azaldua ez deneko munduan, balio edo metafisika baten emankortasuna zentzurik gabeko nozioa da.

Edozein modutan ere, hemen argi ageri da Kafkaren obra zer nolako pentsaera-tradizioan txertatzen den. Gaizki ulertzea litzateke, izan ere, Prozesu-tik Gaztelu-ra doan urratsa zorrotzegi hartzea. Josef K... eta K... neurtzailea Kafka erakartzen duten polo biak besterik ez dira<sup>47</sup>. Haren antzera mintzatuko naiz, eta esanen dut haren obra ez dela, seguraski, absurdua. Baina ez diezazkigula horrek bistatik ken haren handitasuna eta unibertsaltasuna. Kafkak eguneroko iragaitza hori, esperantzatik larritasunera, eta jakituria desesperatutik borondatezko itsutasunera doana irudikatzen

hedadura handiz jakin du, eta hortixek datoz haren balioak. Haren obra unibertsala da (obra egiazki absurdua ez da unibertsala), hor gizateriatik iheska ari den gizakiaren begitarte hunkigarria irudikatzen den neurrian, bere kontraesanen putzutik sinesteko arrazoiak, bere desesperantza emankorretatik esperoa izateko arrazoiak atera nahian dabilelarik, haren heriotza-ikasketa beldurgarriari bizitza deituz. Obra hura unibertsala da iradokizun erlijiosoa duelako. Erlijio guztietan bezala, gizakia hor bere bizitzaren pisuaz askatua da. Baina nik hori baldin badakit, bera miretsi ere egin ahal badut, badakit, halaber, ez nabilela unibertsal denaren bila, egiazko denaren bila baizik. Gerta daiteke biak batera ez etortzea.

Ikusteko era hau hobeki ulertuko da, pentsaera egiazki desesperagarria, hain zuzen ere, elkarren aurkako erizpideez mugatzen dela baldin badiot, eta idazlan tragikoa izan litekeela, etorkizun-esperantza oro erbesteturik, gizaki zoriontsu baten bizitza azaltzen duena. Zenbat eta bizitza bihotz-altxagarriagoa izan, are absurduagoa da bera galtzeko ideia. Hortxe da, agian, Nietzscheren obrari darion arnasaren lehortasun gurenaren sekretua. Ideia-moeta horretan, dirudienez, Nietzsche izan da Absurduaren estetikatik azken muturreko ondorioak atera dituen artista bakarra, haren azken mezua adimenaren zolitasun antzu eta konkistatzailean eta naturaz gaindiko kontsolamendu ororen uko berretuan baitatza.

Halere, aurrekoa aski izana dateke, saio honen barrutian, Kafkaren obraren garrantzi nagusia nabarerazteko. Hemen giza pentsaeraren azken mugetaraino eramanez gara. Hitzari bere zentzu osoa ematean, obra honetan dena funtsezkoa dela esan daiteke. Edonola ere, berak absurduaren problema oso-osoan jartzen du. Beraz, ondorio hauek gure hasierako oharretara hurbildu nahi izanez gero, mamia formara, hots, Gaztelua-ren zentzu sekretua elaberria iragaten den arte naturalera, K...ren bilaketa grinatsu eta harroa, bera dabileneko dekoratura, bilaketaren handitasuna zerik izan daitekeen ulertuko da. Izan ere, nostalgia gizatiarraren marka baldin da, agian inork ez die horrenbeste haragi eta erliebe eman damuaren mamu hauei. Halere, era berean, obra absurduak eskatzen duen aparteko handitasunaz ere jabetu beharra dago, agian hemen aurkitzen ez dena. Arteari zehazki dagokiona orokortasuna banakoarekin lotzea baldin bada, ur-tanta baten betierekotasun iraungikorra tantaren argien distirekin elkartzea, are egiazkoagoa da oraindik, idazle absurduaren handitasuna estimatzea, berak bi mundu horien erdian tartekatzen dakien bereizkuntzagatik. Haren sekretua, haiek bateratzen diren puntu zehatza aurkitzen jakitea da, beren desproporziorik handienez.

Eta egia esateko, gizakiaren eta gizatiar ez denaren leku geometriko hori, bihotz garbiek edonon ikusten dakite. Faust eta Don Kixote artearen goi-mailako sorkariak baldin badira, hori haiek beren esku lurtarretatik erakusten dizkiguten neurrigabeko handitasunei esker gertatzen da. Halere, beti heltzen da halako une bat, izpirituak esku horiek uki ditzaketen egiak ukatzen dituenak. Halako unea heltzen da, sorkaria tragikoki hartzen ez dena: hura seriooki hartzen da soilki. Gizakia, orduan, esperantzaz arduratzen da. Baina hori ez du bere arazoa. Arazoa ihesbidetik aldentzea da. Hortaz, gizakia bera da nik, Kafkak unibertso oso-osoari egiten saiatzen den prozesu bortitzaren bukaera, aurkitzen dudana. Haren epai sinesgaitzak, amaitzeko, mundu itsusi eta asaldagarri hau absolbatzen du, hor satorrak berak ere esperantza izaten saiatzen direlarik<sup>48</sup>.